ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2009ko urriaren 26a > Astelehena > VII. urtea > 251. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Krisian, etxe barruko lan zama handitu egiten da, batez ere emakumeentzat"



**Mertxe Larrañaga**
EHUko irakaslea > 08

**G2a** **Maria del Mar Boneten epeltasuna** > 29

**MIKOLOGIA**
**Onddoa, udazkenero gero eta zale gehiago dituen basoko lorea** > 03

**BERGARA**
**AHTko kaltetutakoekin batzartuko da Legebiltzarra epe laburrean** > 05

**EKONOMIA**
**Mekanikalango langileek hainbat protesta egin dituzte** > 06

**AZPIEGITURAK** > AHT GELDITU! ELKARLANAREN EZOHIKO BATZARRA

## Elkarlana: "AHTren kontrako gehiengoa artikulatuko dugu"

**BATZARRA** Zapatuan Arrasaten egin zuen batzar orokorrean Elkarlanak ildo eta helburu nagusiak zehaztu zituen

**AURRERAPAUSUAK** Herri kontsultak eta Iparraldeko taldeekin abiarazi duten elkarlana nabarmendu zituzten

**EZTABAIDA** Elkarlanak salatu zuen erakunde publikoek trenaren gaineko eztabaida estali gura dutela > 04

**FUTBOLA** > UDA

## Gernikatik ere hiru punturekin

Aretxabaletako mutilak seigarren dira sailkapenean, Gernikan hiru puntu batu ostean > 23




ARABAKO DANTZARIAK Adurtzako (Gasteiz) dantza taldea Guardiako pieza baten erakustaldia egiten, Aramaioko kiroldegian. JOSETXO ARANTZABAL

## Aramaio dantzan jarri zuten Arabako XI. Topaketan

Dantzariz bete ziren Ibarrako kaleak zapatu arratsaldean, Arabako Dantzarien Biltzarra zela-eta. Herriko txistulariek lagunduta, anfitrioiek zabaldu zuten kalejira, azken 50 urteotan Aramaioko Lagun Artea dantza taldean ibilitako 50 bat lagunek; tartean, 1956. urtean taldea sortu zeneko bi aramaioarrek ere esku hartu zuten. Horren ostean, kiroldegian, Aramaio, Dulantzi, Agurain, Langraiz Oka eta Gasteizko dantzarien emanaldia izan zen. > 11

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**BERTSOLARITZA** > TXAPELKETA

## Elgetarra, finalerdirako sailkatuta

Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalerdietan izango da. Agirreazaldegik Leitzan jardun zuen urriaren 10ean eta 634 puntu eskuratu zituen. Azaroaren 14an Tolosan izango da. > 32




Ainhoa Agirreazaldegi. I.A.

**ELGETA** > ODOL-EMAILEAK

## Ibarreko 90 emaileri, omenaldia

Debagoieneko eta Debabarreneko odol-emaileek urteroko topaketa egin zuten > 12



**Kamiseta opari. Nahi?**

Zoaz 7. orrialdera



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

**INGURUMENA** > MIKOLOGIA

# Onddoa, udazkenero gero eta zale gehiago dituen basoko lorea

**URTE GUZTIAN** Perretxikoak batzeko urte guztian barrena egoten da aukera, baina onddo preziatuenak jasotzeko sasoi onena udazkena da

**NEURRIAK** Har daitekeen perretxiko kopuruaren gaineko arauak ipintzeak gehiegikeriak saihesteko balio dezaketela uste dute zale batzuek

**BASOAN** Pagadietan, haritz artean edo pinudietan egon ohi da perretxiko gehien eta guretik Arabara ez ezik Nafarroara ere joaten dira batzera

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Udazken loreak deitu izan zaie perretxikoei eta udazkenean sartu garen honetan, asko dira perretxiko bila ibiltzen diren zaleak. Horietako batzuekin egon gara eta gehienek esaten dute aurtengo urtea oso ona dela perretxikotarako. "Iazkoa urte txarragoa izan zen perretxikotarako, baina izan dira aurtengoa bezain urte onak", esan digu Jose Antonio Irazabal perretxiko zale elgetarrak.

Urte guztian egoten da perretxikoak batzeko aukera, baina saskia hartu eta basora gehienak udazkenean joaten dira. Rafa Salido Eskoriatzako perretxiko zalearen esanetan, "udazkena da sasoirik onena onddo preziatuenak ateratzen direlako, baina urte guztian daude perretxikoak. Udaberriko zizak jendeak ez ditu hain erraz bereizten eta huts egitea saihesteko ez ditu askok batzen".

Horregatik ez ezik, eguraldiaren eraginarengatik ere bada udazkena perretxiko sasoia. "Joan zen asteko izotzek ekarri zuten onddo gutxiago haztea, baina espero dut berriz ere agertzea. Habitat eta klima zehatzak behar ditu onddoak. Ilargiak ere badu eragina eta aldaketarekin onddo gehiago ateratzen dira", dio Salidok. Luis Ezenarro Bergarako perretxiko zaleak dio oraindik ez duela nahikoa hotz egin perretxikorik ez irteteko: "oraindik tenperatura egokia dago eta Gabonak bitartean, eguraldiak laguntduz gero, batu ahal izango dira".


Onddoak dira Debagoiendar artean estimatuenak. GOIENKARIA

#### ESTIMATUENAK, ONDDOAK

Denetariko perretxikoak daude gure inguruko basoetan, baina onddoak estimatzen dira gehien. "Kopuruz asko ez izan arren, mostrarako adina denetarik dago, baina gehien estimatzen dira onddoak eta gibelurdinak; gutxiago batzen dira, pinutelak eta errotariak. Ez txarragoak direlako, ohiturarengatik baizik", dio Iñaki Madinabeitia perretxiko zaleak. Rafa Salidok dio kuletoen bila ere joaten dela jendea, baina zailagoa dela aurkitzea. Robilloiak batzen dituenik bada eta udaberrian zizak.

#### ARABARA ETA NAFARROARA

Basora joan behar da jateko adina perretxiko batu nahi bada, eta guretik jende asko Araba aldera joaten da, baita Nafarroara ere. "Jendea, Urbasara, Lizarrustira… joaten da perretxikotara. Bergara inguruan oso harizti eta pagadi gutxi dago; hala ere, Gorla edo San Migel aldean badaude batzuk", dio Madinabeitiak. Ibarreko jende asko Gatzaga aldera, Landa ingurura, Marietara, Elgeara edo Kurtzetara joaten dela dio Salidok. Irazabalek Gorbeia aldean eta Elgeta inguruan ere batu izan ditu. Luis Ezenarrok, gomendio bat eman digu: "Pagadian, haritz artean, pinudietan, zelaietan, perretxikoak aurkitzeko toki denetan bilatu behar da".

Araban eta Nafarroan perretxikoak batzeko, mugak eta arauak ipini dituzte, ordea. Horrekin, gureko perretxiko zale batzuk konforme daude, baina ez denak. "Neurriak ipintzea ez zait hain ongi iruditzen. Oso epe laburra izaten da perretxiko kopuru handiak har daitezkeena. Egin behar dena da gaztetxoei erakutsi mendian jan behar dituztenak baino onddo gehiago ez hartzen. Ikusi dut jende nagusia perretxikoak jateko txarrak direla-eta apurtzen dituena. Etorriko da eguna arrantzarako bezala perretxikoak batzeko ere lizentzia beharko dena", esan digu Rafa Salido eskoriatzarrak.

Madinabeitia eta Ezenarro mugak ipintzearen alde daude. Jendeak gehiegikeriak egiten dituela diote: "norberandako eta ingurukoendako baino gehiago hartzen dituzte".

Jose Antonio Irazabalek dio arauak errespetatu beharra dagoela, baina "sarritan joan, aurkitu ez eta egun batean zorte ona eduki eta gehiago hartzeko aukera dagoenean pena da ez hartzea".

#### LEHIA HANDIA

Gero eta perretxiko zale gehiago dago gure inguruetan. Irazabalen esanetan, "jendeak erretiroa lehenago hartzen du, oraindik sasoiko daudenean; gazteak ere, txandaka lan egiten dute eta krisiaren eraginez, langabezian edo erregulazioan daudenak perretxiko bila ikustea gero eta ohikoagoa da".

Zenbat eta jende gehiago orduan eta lehia handiagoa. Hortaz, asko batu nahi bada zenbat eta lehenago joan hobe. "Bada jendea egunsentia baino lehen autoan joaten dena besteek ez dezaten ikusi nora doazen, baita ere autoa alde batean utzi eta bestera joaten direnak beste perretxiko zaleek ez jarraitzeko", dio Salidok.

Perretxikotara joateko, onena, horren gainean asko dakien norbaitekin joatea, eta jangarriak batzeaz gain, jateko egokiak ez direnen gainean ere apur bat ikastea.

ERREZETA

### Perretxikoak, basotik platerera

Berakatz edo kipularekin, tortillan edo nahaski eran jaten dira gehienetan perretxikoak, baina bada beste modurik gertatzeko.

Onddo beltzak, laminetan moztu, olioa eta gatza bota eta mikrouhin labean bi edo hiru minutuan egitea edo onddoz betetako txipiroiak euren tintan jartzea gomendatu du Rafa Salidok.

Luis Ezenarro abila da sukaldean, baina konplexutasun askorik gabe gertatzen ditu. Plantxan edo labean ipintzea edo piper gorriak onddoekin betetzea dira bere gomendioetariko batzuk.

Iñaki Madinabeittiaren esanetan, "onddoak kapritxorako dira; asko janez gero, astunak izatera hel daitezke".

JAKIN BEHARREKOAK

**> JANTZIA**
Perretxikotara, basora, janzkera egokiarekin joan behar da: oinetako erosoak, mendiko botak badira hobe; oihal gogorreko prakak (sasi artean ibiliz gero arantzarik ez sartzeko) eta alkandora edo kamiseta. Lepokoak, belarritakoak, eskumuturrekoak... soberan daude.

**> SASKIA, LABANA ETA MAKILA**
Beti saskia eraman behar da, plastiko barruan perretxikoak usteldu egiten dira-eta. Gainera, perretxikoak lurretik txukun ateratzeko labana zorrotza behar da eta makila ere lagungarria da.

**> EZ GALTZEKO**
Baso ezezagun batean ibili behar badugu GPSa edo ipar-orratza eraman. Galduz gero, sakelako telefonoa eramatea ere oso garrantzitsua da. Bestalde, umeekin perretxikotara joanez gero, aukera bat izan daiteke umeei txilibitu bana ematea eta galtzen badira tokian geldi egoteko eta txilibitua jotzeko esatea, horrela aurkitu ahal izateko modua izan daiteke.

**> ADITUAK EDO LIBURUAK**
Basoan aurkitzen diren perretxiko guztiak hartzea arriskutsua da. Horrela eginez gero, jan aurretik aditu batek begiratu behar ditu. Bestalde, hartu aurretik zein perretxiko den jakiteko liburua eramatea ere gomendagarria da.

**> TOKI EGOKIAK**
Aritza, paga, gorostia, elorria... zuhaitz nahasketa dagoen basoak dira perretxikoak hazteko aproposak.

**> NOIZ JOAN**
Perretxiko zaleak egunsentirako joan behar dira basora.

**> EZ HARTU**
Perretxiko txikiak ez dira hartu behar, gerora perretxiko gehiago jaso nahi badira behintzat. Izan ere, perretxiko bat hazten denean bere esporak botatzen ditu eta horrek eragiten du perretxikoak ugaritzea. Perretxiko txikiek, ordea, ez dituzte esporak helduta izaten eta hartuz gero, ez da aukerarik uzten aurrerago euren esporak botatzeko. Bestalde, perretxiko pozoitsuak ere dauden tokian utzi behar dira.



Ezohiko batzar orokorra bukatu ostean, Elkarlaneko kideek katealdia egin zuten Arrasateko erdigunean. JOSETXO ARANTZABAL

**AZPIEGITURAK** > AHT GELDITU! ELKARLANAREN EZOHIKO BATZARRA

# "AHTren kontrako gehiengo soziala artikulatzea da helburua"

AHT Gelditu Elkarlanak ezohiko batzar orokorra egin zuen zapatuan Arrasateko Kulturaten

Elkarlaneko taldeak herri gehienetan daudela eta kontzientziazioa handitu dela azaldu zuten

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

AHT Gelditu! Elkarlanak ezohiko batzar orokorra egin zuen zapatu goizean Arrasateko Kulturate aretoan. 90 lagun inguruk esku hartu zuten.

Batzar luzea izan zen eta hainbat gai jarri zituzten mahai gainean. Batez ere, AHTren oposizioaren ibilbidearen errepasoa egin zuten, azken urteotan jazotako gertaera eta lanen azkartzeak azpimarratu zituzten eta epe laburrean Elkarlanak garatuko duen ildoa eta plangintza adostu zituzten. Horien gaineko zehaztasunak ez dituzte oraindik ezagutzera eman gura izan.

**OPOSIZIOA ARTIKULATZEA**

AHT Gelditu! Elkarlana AHTren kontrako erreferente bilakatu dela azaldu zuten, eta herri gehienetan taldeak eratu direla: "Herri galdeketek ere kontzientziazioa handitu dute eta mobilizazioak are eta jendetsuagoak dira; bide onean gabiltzanaren seinale".

Iparraldeko taldeekin ere harremanak indartu dituztela eta ekimen bateratuak egiteko asmoa dutela jakinarazi zuten.

Hala ere, onartu zuten Elkarlanaren premia nagusiena dela tren horren kontra dagoen "gehiengo sozial hori artikulatzea eta aktibatzea".

ESANAK

**"AHT Estatu arrazoi bilakatu da eta agintari publikoak saiatu dira benetako eztabaida egin ordez, hori desitxuratzen"**

**Mila Elorza** > Elkarlana

**HERRIARI HITZA EMAN**

Elkarlaneko kideek, baita ere, azpimarratu gura izan zuten krisiak agerian utzi duela "eredu ekonomikoaren porrota" eta herritarren premiak beste batzuk direnean "zentzubakotzat" jo zuten azpiegitura erraldoi hori egitea. Horrez gain, uste dute "euskal herritarrek onartuta" dutela herriari hitza eman behar zaiola; hortaz, eskubide hori praktikan jartzeko galdeketa egiteko eskatzen dute.

Bestalde, nabarmendu zuten erakunde publikoek proiektuaren bideragarritasuna aztertu beharrean, "eztabaida ezkutatu" gura izan dutela "AHT Bai edo Ez, ETA Bai edo Ez bihurtu guran". Hori salatzeaz gain, gogoratu zuten eurek desobedientzia baketsua egiten dutela.

**EZBEHARRA**

# Atsekabea Aitor Bengoaren hilketagatik

Heriotzaren berri jakin ostean samina zabaldu zen Aretxabaletan

**I.B.** > ARETXABALETA

Ezbeharra eguen gauean gertatu zen. Ustez 22:30ak inguruan Imanol anaiak labankada eman zion Aitor Bengoari familiako etxean. Ertzaintzak jakitera eman zuen aurretik anaien artean eztabaida sutsua izan zela, baina familiak bertsio hori gezurtatu egin zuen; haien esanetan, ez zen inongo eztabaidarik izan; eta gaineratu zuten Imanolek buruko gaixotasuna daukala eta ustez horrek eragin ziola hala jokatu izana.

**MARTUTENERA ERAMAN DUTE**

Gertakariaren berri izan ostean, Ertzaintzak Imanol Bengoa atxilotu zuen, hilketa egin izanaren akusaziopean, eta ikerketa zabaldu zuen gertakaria argitze aldera. Ustezko hiltzailea epaitegitik pasa ostean, Martuteneko espetxera eraman zuten.

Egubakoitz goizean gertaeraren berri izan zenean atsekabe handia zabaldu zen Aretxabaletan eta baita inguruko herrietan ere, Aitor Bengoa *Txilibri* Leintz bailaran oso ezaguna zelako. Egubakoitzean egin zuten hileta elizkizun jendetsua Aretxabaletako San Migel elizan.

**MOTOR-GIDARIA HILDA**

Bestalde, eguen goizean Arrasaten istripua izan zuen motor-gidaria ordu gutxitara hil egin zen. Eguen goizean, 07:30ak aldera, kamioi batek Soraluzeko Koldo Lizarralde motorista harrapatu zuen, eta oso larri zauritu. Lizarralde Arrasateko Eskualdeko Ospitalera eraman zuten eta handik Gasteizera, baina azkenean hil egin zen.






SVMS SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak
Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA
103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

**AZPIEGITURAK** > AHT

# Bergarako kaltetutakoekin batzartuko da Legebiltzarra

Aralarrek eztabaida "interesatua" egitea leporatu dio EAJri, eta Legebiltzarrean kaltetuen batzorde berezia egin gura du

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Gasteizko Legebiltzarrak onartu du AHTren Bergara-Bergara ibilbidea berrikustea, EAJren eskaerari kasu eginda.

Hain zuzen ere, EAJren eskaera urgentziazkoa izan zen, ingurune horretako lurjabetzea hasi baino aurretik hori egin gura zutelako. Hala, lortu dute Legebiltzarreko ordezkaritza bat ibilbide zehatz horretako kaltetutakoekin batzartzea.

Are gehiago, EAJren eskaerak dio batzartze horren abiapuntu 2008an ibilbide horren gainean adostutakoa izan behar dela, beti ere ibilbide hori "atzerapen barik eta ziurtasun juridikoarekin egiteko aukera egoten bada".

Ekimen hori EAJk eraman zuen Legebiltzarrera euren iritziz gaur egun aurreikusitako ibilbideak 2008an adostutakoak baino "kalte handiagoa egingo dielako ingurumenari eta ondare historiko eta kulturalari dagokionez garrantzi handia duten baserri batzuei".

Horren harira, EAJKo Maribel Vaquero legebiltzarkideak Eduegi baserria aipatu zuen adibidetzat; berorrek Jaurlaritzako emandako monumentu izendapena daukalako.

**ADIF-EN ESKU**

Ekimenaren onarpena jakin ostean, EAJko ordezkariak pozik agertu ziren; eta jakinarazi zuten "2008ko proiektura itzultzea ADIFen eskuetan" dagoela. Are gehiago, jeltzaleak baikor dira "proiektuari atzerapenak eragin barik 2008ko ibilbidera itzultzeko oinarri legal nahikoa" dagoelako.

**ARALAR: 'EKIMEN INTERESATUA'**

Horren harira, Aralar alderdiak kritikatu egin du EAJren ekimena "eztabaida interesatu"tzat definituz; hain zuzen ere, Angiozarren AHTk izango duen ibilbidea "aldatzen saiatzea ingurumenean kaltea gutxitzeko".

Aralarreko legebiltzarkide Oxel Erostarberen esanetan, eskaera horrek EAJk beste udalerriekin elkartasunik ez duela adierazten du". Hain zuzen ere, Erostarberen taldeak honako hau uste du: "Bergarako kalteak bakarrik kontuan hartzen badira, lehenengo eta bigarren mailako herritarrak sortuko ditugu. Horregatik, ibilbide osoan izango diren kalte ikaragarriak aztertzea ezinbestekoa da".

**BATZORDE BEREZIA SORTZEA**

Hala, Aralarko kideek Legebiltzarrean eskatu zuten AHTren kalteak gutxitzeko batzorde berezi bat sortzea, baina Legebiltzarrak ez zuen eskaera onartu. Hala, Erostarberen taldeak "ezinbestekotzat" jotzen du ibilbide osoan izango diren kalteak aztertzea. Eta, horretarako, gura dute AHTren eragina gutxitzeko "ibilbidea berraztertzea eta, Lurralde Antolaketako Gidalerroek esaten dutenaren harira, bitarteko geltokiak aurreikustea".

Bestalde, Erostarbek honako hau ezan zuen: "erakundeetatik at, kalean ere gauzak adosteko beharra dagoela eta AHTk ez duela lortu.



Euskal Herria Mugaz gaindi Arrasaten, kulturaten egin dute. GOIENKARIA

**MINTEGIA** > EUSKAL IKERKUNTZA

# Euskal Herria Mugaz Gaindi jardunaldiak Arrasatetik Argentinara salto egingo du

Arrasaten ospatu duten euskal kulturaren gaineko ikerkuntza jardunaldiak oso harrera ona izan du

**I.B.** > ARRASATE

Egubakoitzean bukatu zen Euskal Herria Mugaz Gaindi jardunaldiaren seigarren edizioa. Hiru egunetan nazioarteko 30 ikertzailek Euskal Diasporaren gaineko lanak mahai gainean jarri eta azaltzeko aukera eduki dute. Jardunaldien antolatzaileak oso pozik agertu dira aurkeztutako lanen maila ikusi ondoren; eta, horrez gain, parte hartu duen adītu kopuru handia ere nabarmendu dute.

Jardunaldien azken egunean munduan barrena dauden euskal abizenen gainean jardun zuten.

**WEBGUNEAREN BITARTEZ**

Ohiko jardunaldia bukatuta, orain birtuala hasiko dute eta berau jarraitzeko aukera dago *www.euskosare.org/ikertzaileak* webgunearen bitartez. Hala, edozein interesatuk irakurri ahal izango ditu jardunaldietako ponentziak webgune horretan. Ez hori bakarrik, horren bitartez aukera izango dute lan horien egileekin harremanetan jartzeko eta euren iritziak trukatzeko.

**LEKUKOA ARGENTINARA**

Ana Ugalde eta Jon Ander Ramos antolatzaileek Euskal Herria Mugaz Gaindi jardunaldiaren lekukoa Argentinako Tandil herriari eman diote, zazpigarren edizioa han egin dezaten.

etxeko leihotik



Usoa Agirre > 'uagirre@goiena.com'

## Eta zuk? Zelan ikusten duzu telebista?

Ez dut jakin nahi sofan eserita, etzanda edo sukaldeko mahaian ikusten duzun telebista. Nola ikusten duzu? Telebistan, digitalean, ordenagailuan... Gaur egun “telebista ikuste” akzio hori zentzua galtzen doa. Telebista piztu eta momentuan ematen ari direna geroz eta gutxiago “irensten” dugu eta horretarako alternatibak bilatzen ditugu.

Alternatibarik ezagunena Interneteko Youtube ataria dugu. Norberaren bideoak igo eta konpartitzeko asmoz sortu zen hasieran, baina gaur egun edozein bideo aurki genezake bertan, guk nahi dugun momentuan: partikularren bideoak, betiko telebistako saioak, musikarien klipak, bideo-sormenak... Niri Internetek zeharo aldatu dit telebista ikusteko modua. Tartetxoren bat dudanean telebista ikusteko, Internetera jo, momentu horretan ikusi nahi dudana bilatu eta ikusi.

> **“GOITBn joan den eguenean egin genuen lehen streaming saioa”**

Orain, Interneten bertan betiko telebistako saio asko ere ikus genitzake zuzenean, streaming zerbitzuei esker. GOITBn joan den eguenean egin genuen lehen streaming saioa, Arrasateko alkatearen elkarrizketa eskainiz Interneten. Zazpi bat ikusle izan ziren momentuan saioa ikusten eta iruzkinak egiten. Telebista interaktiborako pausu bat izan daiteke. Gainera, munduko edozein lekutatik Goiena Telebista ikus daiteke horrela!

**> Galderak zuzenean**
***Alkatearekin zuzenean*** **saioa Interneten ikusteaz gain, alkateari momentuan galdera egin diezaiokezu. Aste honetan Oxel Erostarbe Elgetako alkatea izango da Goiena Telebistako platoan. Egin zuk ere galdera.**

**> LTDren beharrik ez**
**Lurreko Telebista Digitala izango omen dugu laster telebista ikusteko modu bakarra. Momentu honetan LTDan dagoen aukera ikusita, Interneteko eskaintza nahiago. Aukera zabala, anitza eta interaktiboa.**

> LEHEN SEKTOREA

**Mankomunitatea erabiltzaileei Zubillagako hiltegiaren kudeaketa berria azaltzen dabil**

Zubillagako hiltegiaren kudeaketaren gaineko eredu berria aztertzen dabiltza. Hala, eguaztenean kudeaketa proposamenaren gaineko aurkezpena egingo die Pedro Iturbek ibarreko 80 bat harakinei Arrasaten, Kulturaten, 14:30ean.

UNED BERGARA
IKASTAROAK
• MINTZAPRAKTIKA INGELESEZ
Goi-mailako ezagupena dutenentzako.
Hasiera: Azaroaren 4an.
• INGELES HIZKUNTZARA SARRERA
Hasiera: Azaroaren 6an.
Informazio gehiagorako:
Tel.: 943 76 90 33
info@bergara.uned.es

**EKONOMIA** > ENPRESA

# Mekanikalango langileek ugazabaren etxe aurrean eskatu dute ordain diezaien

Salatu dute hilabeteak daramatela nomina barik eta enpresak ez diela "ordaindu gura"

Ugazabak dio aurten oso gutxi fakturatu duela, eta "zero lan" dagoela lantegian



Egubakoitzean kale-bilkura egin zuten langileek Arrasaten. UBANE MADERA

**UBANE MADERA/LEIRE KORTABARRIA**
> ARRASATE

Mekanikalan Mondragon enpresako hainbat langilek zor dietena eskatzeko kale-bilkura egin zuten egubakoitz eguerdian enpresaren ugazabaren etxe aurrean, Arrasateko Maiatzaren 1a plazan. Mekanikalan 1973an Arrasaten sortutako enpresa da, nahiz eta orain Legution dagoen.

**HAINBAT SALAKETA**

Mekanikalan enpresako langileek hainbat gertakari salatu gura dituzte. Besteak beste, maiatzaz geroztik, Mekanikalan lan erregulazio espedientean sartu zenetik, euretako batzuk lanera joan arren bost hilabete kobratu barik dituztela, eta beste batzuei, berriz, bost hilabete ez, baina bizpahiru ez dietela ordaindu. Gasteizko auzitegi probintzialean aurkeztuta dute salaketa sindikatuek.

Gainera, EREa azaroaren 1ean bukatuko da eta horrek esan gura du azaroaren 2an lantalde osoari lanera bueltatzea tokatuko litzaiokeela, baina aldiz, fabrikan lanik ez dutela salatu dute.

Langileak "ia seguru" daude enpresak ez diela ordaindu gura, ez dute ulertzen-eta 36 urteko ibilbidea daukan enpresa batek ez izatea diru soberakinik halako egoerei aurre egiteko.

**LAN ESKAERAK, BEHERA**

Enpresako ugazabak, Mikel Alberdik, berriz, esan du iaz bi milioi euro pasa fakturatzetik, aurten 800.000 euro inguru fakturatzera pasa dela enpresa eta, gainera, kobratzeke ditu hainbat lan. "Zero lan" dutela ere kontatu du. Alberdik salatu duenez, maiatzean EREa sinatzeaz bat komunikabideetara jo zuten CCOOko ordezkariek, eta horrek publizitate txarra ekarri zion enpresari eta ondorioz, "lan eskaera gutxiago" ere bai.

Kontatu du bizpahiru hilean, langileak fabrika pintatu eta garbitzen ibili direla, eta hilabete horiek bai "kobratu dituztela".

Azpimarratu gura du bere asmoa dela enpresarekin aurrera segitzea, nahiz eta "zail" ikusi, sektoreko enpresen "%99 egoera larrian" daudelako.

**DIRULAGUNTZAK**

## Zabaldu egin da 420 euroen esparrua

Emantzipatuta ez dauden langabeek ere eska dezakete prestazio hori

**L.K.** > BERGARA

Emantzipatuta, etxetik kanpo bizi ez diren langabeek badaukate aukera Espainiako Gobernuak ematen dituen langabeendako 420 euroak eskatzeko. Hala, Madrilek zabaldu egin du 420 euro horien onuradunen esparrua. Orain arte, prestazio hori bakarrik zen gainerako langabezia subsidioak eta dirulaguntzak agortuta zituztenendako.

**FAMILIA-UNITATEA, OINARRI**

Dirulaguntza eskatzeko, familia-unitateko kide guztien –eskatzailea barne– errenten batuketaren emaitza, kide kopuruaren artean zatituta, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren %75 baino handiagoa ezingo da izan.

Familia-unitatea da eskatzailea, ezkontidea, 26 urtetik beherako seme-alabak, edo hortik gorakoak, gutxitasunik badute. Eskatzaileak ez baditu baldintza horiek betetzen, gurasoak ere hartuko dira familia-unitatean kontuan, eskatzailea haiekin bizi bada.

**EKONOMIA** > KRISIA

# Arrasateko bulegoan eska daitezke Zeharo dirulaguntzak

Kutxak hiru milioi euroko fondoa sortu du "krisiak bortizki kaltetutako" herritarrei laguntzeko, eta Gabonak arte iraungo du



Kutxa Zeharoren Debagoieneko bulegoa Arrasaten dago. GOIENKARIA

**L.K.** > ARRASATE

Arrasateko Kutxa Zeharo bulegora hasi da jendea inguratzen, Kutxaren Gizartekintzak sortutako krisiaren aurkako dirulaguntzak eskatzeko.

Kutxak hiru milioiko fondoa sortu du "krisiak bortizki kaltetutako" –arduradunen esanetan– herritarrei laguntzeko. Laguntzok oinarrizko premiak asetzeko izango dira, eta urte bukaerara arte iraungo du kanpainak. Gehienez ere, 3.000 euro jaso ahal izango ditu onuradun bakoitzak. Eskatzaileak oinarrizko baldintzak betez gero, Kutxak kasu bakoitza aztertuko du, eta ondoren erabakiko du laguntza eman edo ukatu. Baldintza nagusia da krisiaren eraginez sortutako egoera bat izatea.

**EKONOMIA** > ENPLEGUA

# INEMen webgune berriak lan eskaintza bat bera ere ez du erakusten

Espainiako Enplegu Erakundeak 'www.redtrabaja.es' sortu du, baina oraindik akatsak ematen ditu

**L.K.** > BERGARA

Espainiako Enplegu Erakundearen (INEM) webgune berriak (*www.redtrabaja.es*) akatsak izaten jarraitzen du sarean ipini eta astebete inguru pasa denean. Hala, lan eskaintzak ikusteko menu bat egon arren, ez da lan eskaintza bat bera ere agertzen. Horrez gain, nahiz eta atari nagusia eta beste atal batzuk euskaraz ere egon, webgunearen beste zati asko espainol hutsean daude.

**PROFILA SORTZEKO AUKERA**

Helburua da INEMeko bulegoetan egin daitezkeen tramite, eskaera edo bilaketa asko Internet bidez egin ahal izatea. Besteak beste, langabeek aukera dute langabezia-prestazioak webgunetik tramitatzeko, eta beste hainbat izapide ere *on-line* egiteko. Horretarako, NA elektronikoa eta ziurtagiri digitala behar dira.

Lan bila dabiltzanek euren profila sortu ahal izango dute, curriculuma igotzeko, ikastaroak jasotzeko eta enpresek euren lan-eskaera ikusi ahal izateko. Webguneak berak hainbat bideo dauzka, Redtrabaja zer den eta zela erabili azaltzeko; horiek ere espainolez daude.

Egin daitezkeen beste gauza batzuk hauek dira: prestazioen gaineko informazio legala jaso, banku-datuak kudeatu...

auzorik auzo

**GARIBAI** > Oñatiko auzoa da Garibai. Herriaren sarreran geratzen da auzoa; eta Oñatiko auzoekin gain, Antzuola eta Bergararekin egiten du muga Garibaik. Nekazaritzarako lur aproposenak lantegiek hartu dituztela azaldu digute.



Koixkarren dago auzoko ermita, Korosbizkarreko ermita. A.E.

Juan Joxe Egaña > Garibaiko auzo-alkatea

# "Zirkulazio handiko errepidea pasatzen da auzotik eta horrek zarata dakar"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Dolaetxe baserrikoa da Juan Joxe Egaña Garibaiko auzo-alkatea. Jende gutxi bizi den auzoa da eta auzotarrek ez dute elkartzeko ohiturarik. Zerbait egin beharra dutenean elkarteren batean batzen dira.**

**Errepidea auzoaren erditik pasatzen da. Arazoa da hori?**

Errepide nagusia pasatzen da auzotik, zirkulazio handikoa. Horrek dakar: zarata, abiadura… Gure etxea apur bat baztertuta dago, baina behealdean baserriak errepidetik oso gertu daude. Horiek izugarrizko arazoa dute, autoek zarata handia ateratzen dute-eta. Adibidez, aurrekoan radarrarekin ibili ziren abiadura kontrolatzen, baina radarra urtean ordubete bakarrik egoten da. Batez ere, gauean eta astebururuan ibiltzen dira autoak agudo.

**Eskatu duzue errepidearen arazoari irtenbidea ematea?**

Bere garaian kexatu egin ginen, baina pentsatzen dut ez duela irtenbide samurra izango. Eskatu genuen San Pedron, Torreauzoko bidegurutzean biribilgunea egitea; baina esan ziguten ez zegoela nahiko leku. Uste dut lekua borondatearen araberakoa izaten dela askotan.

**Zein da auzoaren egoera?**

Auzoan 20 baserri inguru daude, baina guztietan ez da bizi jendea; hortaz, gainbeheran doan auzoa da. Auzoa hutsik geratuko den? Auzoa non dagoen ikusita, gutxien espero dugunean etor daiteke jendea. Herritik gertu dagoen auzoa da, bertan dago.

**Auzoan lantegi asko daude. Arazorik ematen dute?**

Ez. Gerta liteke zerbait izorratzen denean zarata handiagoa ateratzea. Lantegiak beharrean soroak egongo balira, hobeto! Soro onenak hartuta daude. Garai batean, hasi hemen eta Madalenaraino dena soroa zen; eta gainera, soro onak, errekaren ondoan zeudenak. Baina gero lantegiak egin ziren. Kontuan hartu behar dugu herri industrialean bizi garela.

Hala ere, uste dut ez dutela diseinu lan handirik egin. Egin dituzten fabrikak egiteko ez da arkitekto izan beharrik, leku onenean egin dituzte-eta!

> **"Aurreko menditik genero asko eramaten zen herrira; zumitza eta egurra, esaterako"**
>
> **"Agustindarrek domekero meza esaten dute, hitzarmen baten ondorioz"**

**Gero eta jende gutxiago izateak dakar lanerako jende gutxiago egotea.**

Baserrietako egoera edo auzoko egoera orokorrean zaila da. Lehen, auzo-lanean egiten ziren lan asko; baina orain ez dago jendea lanik egiteko: adibidez, bideak txukuntzeko. Garibaik bi bide ditu: Koixkarrera eta Duruanera doazenak. Udalak publikoak direla esaten du, eta bide horiek euren lana ematen dute. Lehen, baserri horietan jendea bizi zenean lan asko egiten zuten, baina orain zailagoa da.

**Garai batean bazegoen ogibiderik auzoan?**

Garai batean nekazaritzatik bizi zen jendea. Lehen, fabrikak sortu aurretik, hau leku ona zen generoa herrira eramateko; berdurak, adibidez. Aurreko mendiak genero asko ematen zuen kalerako: otzaragintzarako zumitza eta egurra eramaten zen, batez ere Kale Zaharrera. Lehen, aprobetxamendu oneko auzoa zen Garibai.

**Koixkargo ermitan domekero izaten duzue meza?**

Agustindarrak etortzen dira domekero meza esatera. Badago hitzarmen bat, basoekin zerikusia duena, eta eurak arduratzen dira meza esateaz. Jaiak ospatzen ditugu Gorpuzti hurrengo domekan: meza, luncha eta trikitia.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Urriko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 20 euro

XABIER LETE IKUSTEKO SARRERAK
ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA
Bidali AG ESPALOIA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



LIBURUA
PAMIELA argitaletxea
Bidali AG ATXAGA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.




KAMISETA
skunkfunk
Bidali AG KAMISETA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



MP3 BAT
EROSKI
Bidali AG EROSKI
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



SARI NAGUSIA
IRAILA-AZAROA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



**AHTEC NETBOOK LUG N011**
**Sistema eragilea:** Ubuntu Linux.
**Prozesadorea:** 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
**Memoria:** 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
**Disko gogorra:** 120GB 5400RPM SATA.
**Pantaila:** 10" pantaila TFT WSVGA LED.
**Bermea:** Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

**Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!**

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*

Urriaren 17a pobrezia amaitzeko eguna izan zen. Eta, horren harira, Pobrezia Zero plataformak hainbat ekitaldi antolatu zituen; tartean, eguenean Kulturaten Mertxe Larrañagak egin zuen hitzaldia: *Emakumeak krisi garaian.* Larrañaga Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko kide da, eta moneta eta finantza sistematan aditua.

**Mertxe Larrañaga** > EHUko irakaslea

# "Krisian, etxe barruko lan zama handitu egiten da, batez ere emakumeendako "

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Ekonomiako irakaslea da Mertxe Larrañaga; nazioarteko ekonomiako irakasgaiak ematen ditu EHUn. Ikerketa feminista eta generoko masterrean ere ematen ditu eskolak Larrañagak; hala, krisi garaian emakumeen papera azaldu digu.**

**Ikuspegi kritikotik, krisiari aurre egiteko zein neurri jar daitezkeen martxan azaldu duzu.**

Krisiaren gainean berba egin dut, eta azaldu dut oso labur nola ulertzen den krisia gaur egun. Zein ondorio izango dituen edo dituen dagoeneko gizon eta emakumeengan; eta, ikuspegi kritikotik, ze neurri jar daitezkeen martxan krisiari aurre egiteko.

**Zure ustez, nola eragin du gaur egungo krisi egoerak emakumeengan?**

Eragin oso kaxkarra izan da. Esan daiteke krisi hau gutxi batzuen portaerak sortutako krisia dela, eta ondorio negatiboa guztiongan izan du. Bai gizon eta baita emakumeengan ere; eta ondorioa ezberdina da gauza ezberdinak egiten ditugulako.

**Eraikuntzan eta industrian eragin du krisiak; ondorioz, gizonengan?**

Enpleguari begiratzen badiogu, krisiak eragin dio batez ere sektore oso konkretuari eta maskulinoari; ondorioz, langabeziak eragin die gehiago gizonezkoei emakumezkoei baino. Batez ere eraikuntzan eta industrian eragin du krisi honek.

**Beste garai batzuetan izan genituen krisiek gehiago eragin zuten emakumeengan oraingo honek baino?**

Ez nuke hori esango. Bizi izan ditugun krisiak asko izan dira industrian eragin dutenak; baita zerbitzutan ere, baina gehiago industrian.

Baina, krisi garaian, enpleguaz gain, lan baldintzak hartu behar dira kontuan, ezegonkortasuna. Hau da, lan baldintzak gogortu egiten dira... Alde horretatik, ezegonkortasunak gaur egun, behintzat, emakumeengan eragin handiagoa dauka. Horrez gain, familien errentak jaitsi egiten dira krisi garaian; eta familiak ahalegintzen dira euren bizimaila mantentzen. Hori egiten da etxe barruko lan zama handituz: eta gaur egun, emakumeek hartzen dute zama hori.




Mertxe Larrañaga, Kulturate kanpoan. A.E.

LANGABEZIA

**"Langabezian, emakumeak egoera kaxkarragoan egoten dira"**

AZPIEGITURAK

**"Enplegua sortu eta jendearengan eragin ona duten azpiegiturak sortu behar dira"**

KRISITIK IRTEN

**"Aurreko krisietatik emakumeak ez ziren etxera bueltatu; oraingoaz ere ez"**

**Esan daiteke krisiak emakumeei bi aldiz eragiten diela: etxetik kanpo eta etxean?**

Bai, hori da. Etxetik kanpo eragiten du eta etxean ere bai. Horrela izaten da.

**Ezegonkortasunak emakumeengan eragiten duela diozu. Non antzematen da hori?**

Ezegonkortasuna neurtzen da normalean enplegu partzialari begiratuz, baldintza kaxkarreko enpleguei begiratuz eta azpikontratei begiratuz. Hirurek emakumeengan eragin handiagoa dute gizonezkoengan baino. Enplegu partzialean gehienak emakumeak dira, eta askotan esaten da haiek aukeratzen dutela, libre, horrelako lanak izatea. Baina inkestek ez dute horrelakorik esaten.

Gainera, gertatzen da langabezia egoeran gizonezkoak eta emakumezkoak baldin badaude, emakumezkoen egoera kaxkarragoa izaten dela. Normalean, emakumezkoek gizonezkoek baino denbora laburragoan kotizatu izan dute eta babes txikiagoa izaten dute.

**Krisi garaian emakumeen egoera hobetze aldera zer egin daiteke?**

Auskalo zer egin daitekeen... Dirua azpiegituretan gastatzen dabiltza; bestalde, eraikuntza sektorea dabiltza bultzatzen. Hortaz, nik uste dut begiratu beharko litzatekeela zer motatako azpiegiturak dabiltzan bultzatzen, ze ez da-eta berdina autobideak egitea edo eskolak eraikitzea. Azpiegitura horiek zeinen onerako diren eta zein enplegu mota sortzen duten begiratu beharko litzateke.

Bestalde, badaude beste azpiegitura batzuk enplegua sortzen dutenak eta jendearengan eragin hobea dutenak: zerbitzu sozialak, batez ere. Horiek bultzatu beharko lirateke.

**Zure ustez, instituzioetan nahiko lan egiten da emakumeen egoera hobetzeko?**

Ez dakit. Nik uste dut oraindik hobetzeko asko dagoela, zer egina badago. Gertatzen dena da krisiak ez direla onak izaten horrelako gauzetarako.

**Zure hitzaldietara nolako jendea joaten da? Eta ze kezka jasotzen dituzu?**

Orokorrean, gehienak emakumeak izaten dira, adin guztietako emakumeak.

Kezkari dagokionez, bai emakumeen eta baita gizonezkoen artean ere kezka bera izaten da: krisitik nola aterako garen. Nola atera daitekeen eta noiz. Horiek dira, batez ere, kezka nagusiak.

**Krisitik ateratzen garenean emakumeen egoera ere hobetu egingo da?**

Bai, esperantza daukat hobera egingo duela, hobera egin izan duen moduan azkeneko hamarkadetan.

**Azkeneko hamarkadetan emakumeen egoerak hobera egin du. Horrelako krisi bat atzerapausoa izaten da?**

Atzerapausoa egoteko arriskua hor egoten da. Aurreko krisietan kezka handia zegoen ea emakumeek etxera bueltatu behar zuten, baina ez ziren bueltatu. Uste dut oraingoan ere ez garela bueltatuko.

Kutxa Auto Asegurua

# Orain baditugu auto-aseguruak. Bila ibili beharrik ez.

Ongi etorri **Kutxa Auto Asegurura**. Diruaz gainera, buruhausteak aurrezten dizkizun asegurura. Estaldura zabalak, zerbitzu-kalitatea eta prezio ona ondoen konbinatzen dituen eskaintza. **Liberty Seguros** etxearen bermearekin. Eta, jakina, **kutxa**ren konfiantzarekin.

Zatoz gu ikustera, eta xehetasun guztien berri emango dizugu.




zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

* Kutxa Auto Liberty Seguros, Compañía de Seguros y Reaseguros S.A.ren produktu bat da. Kutxa, Biharko Vida y Pensiones-en banku/aseguruetako operadore esklusiboa da. Haren baimena dauka Biharko Aseguradora-rekin eragiketak egiteko, eta Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian inskribatuta dago C0654G20336251 zenbakiarekin. Aseguru honetan bitartekari-lanak egiten ditu Biharko Aseguradora-ren eta Liberty Seguros-en artean izenpetutako banaketa-akordioaren testuinguruan.

## kale inkesta

# Ibarreko hainbat udal euren kirol eskaintza lantzen dabiltza. Baina egiten al dugu kirolik?



**Itziar Elorza**
Aurre-erretiratua
Bergara

Paseatzera egunero irteten naiz, baina bestela ez dut kirolik egiten; kiroldegira ere ez naiz joaten. Denborapasa izateaz gain, osasunagatik ere joaten naiz ibiltzera; batzutan nabari dut, bestetan, ez hainbeste.



**Xabier Azkarate**
Langilea
Bergara

Tarteka egiten dut kirolik; batez ere mendira joaten naiz, batzutan korrika egitera ere bai, baina lehiatzeko asmorik gabe. Lan kontuak direla-eta ezin izaten dut Udaletik antolatutako ikastaroetan-eta parte hartu.



**Isidro Galan**
Langilea
Lasarte

Bai, batzutan padelean aritzen naiz, baita palan ere. Baina onartu behar dut ez dudala behar beste kirol egiten, nahiko nagia naiz. Dena den zerbait egin behar da, bestela erreza da ehun kilotik gora harrapatzea!



**Imanol Berroia**
Ikaslea
Bergara

Garai baten saskibaloian aritzen nintzen, orain baina, lagata daukat. Korrika egitera irteten naiz batzutan, eta lagunekin ere geratzen naiz futbolerako. Forman egotearren baino, zerbait egitearren egiten dut.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ANTZUOLA

**> Lurraldebusen Lurraldebus txartelarik ez**

Bergara eta Antzuola arteko bidea autobusez egiten duen irakurle batek deitu digu haserre, Lurraldebus txartela ez diotelako onartu: "Bergara eta Iruñea lotzen dituen linea hartu dut asteon Antzuolara joateko eta Lurraldebuseko txartela izanda ere, diruz ordaintzera derrigortu naute eta deskontu barik geratu naiz". Gipuzkoako tartean txartela onar dezatela eskatu du erabiltzaile horrek.

BERGARA

**> Bergarako saihesbideko aparkalekura joateko argirik ez**

Bergarako saihesbidean dagoen bigarren aparkalekura doan bidean argi gutxi dagoela salatu du irakurle batek e-postaz. "Lehenengo aparkalekutik bigarrenera joateko errepide azpian dagoen tunela pasatu eta aparkalekuraino doan tartean ez dago argirik; gauean, arriskutsua izaten da handik pasatzea. Tarte hori ahalik eta azkarren argizta dezaten eskatu nahi dut".

BERGARA

**> Bergaran Deba errekako bazterrak garbitzeagatik pozik**

Zapatuan bergarar baten deia jaso genuen. Goizean, etxeko leihotik, 30 bat lagun Deba erreka garbitzen ari zirela ikusi eta auzolanean ibilitakoak zoriondu nahi izan zituen: "Txalogarria da horrelako ekimenak antolatzea. Gainera, adin guztietako herritarrek musu-truk parte hartzen dutela ikustea ere poztekoa da".

## usteak uste

**Mirian Biteri**

# Ordu aldaketa? Ez, mila esker

Erlojuaren orratzek hirurak markatzen zituztenean ordu biak izatera pasa ziren zapatutik domekarako goizaldean. Adituek diotenaren arabera, negua gerturatzen denean ez da komeni udako ordutegia mantentzea, gauez ordu gehiago egingo litzatekeelako lan eta horrek energia gastua igoko lukeelako. Aldaketa horren helburu nagusia, hortaz, eguzki argia hobeto aprobetxatzea eta gastu energetikoa murriztea omen da.

Ez naiz eztabaidatzen hasi behar horrekin helburua lortzen den edo ez. Gizartean aldaketa horrek eragiten duen ondorioetaz nahiago dut hitz egitea. Frantziak Europako Batasunari ordutegi bikoitza indargabetzeko eskatu dio, besteak beste, pertsonen animuan eta osasunean eragina duelako. Bat nator Frantziarekin; nik ere ez dut-eta batere gustuko neguko ordutegia.

## zorroztailea



**Joxemari Muxika**

# Erabakietan partaidetza

"Politika ez da kudeaketa esparrua soilik, berrikuntza esparrua bada ere; ez da administrazioa soilik, baizik eta aukera konpartituen irekiera, giza ekintzen egoeren diseinua da (...) errealitate berria aztertzeko gizarte eta politikarien artean hausnarketa esparru konpartituak zabaldu behar dira."

**"Parte hartuz erabakitzen duzu"**
**Eusko Ikaskuntza**
2009-11-12rako jardunaldirako deialdia




Ados nago, politikarien eta gizartearen arteko hausnarketa esparruak zabaldu egin behar dira. Gaurko politika egiteko eran lau urtetik behin botoa emanez erabaki guztiak alderdien (eta euren afiliatuen) artean garatzeko geratzen dira. Badirudi erakundeak ohartu direla herritarrengandik geroz eta aparteago dabiltzala eta herritarren iritzia jasotzeari garrantzia ematen hasi direla. Gainera, behin eta berriz errepikatzen den erretorika bat da.

Parte-hartzea gauza garrantzitsua denez, erakunde serioak dabiltza partaide deialdi honetan, hauen artean, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Ikaskuntza. Foru Aldundiaren eskariz, eduki beraren inguruan Baketik-ek antolatutako ikastaro batean parte hartua naizenez, gaiari buruz argitaratu dituzten dokumentuak aztertu ditut.

Parte-hartze prozedurari buruz egiten diren azalpen teorikoetan bi gabezia nabaritzen ditut: batetik, norbanakoei bakarka deitzea lehenesten dela; eta bestetik, iritzia eskatzeko aukera lantzen dela, baina erabakia hartzeko boterea erakundeek eurentzat gordetzen dutela. Beraz, norbanakoak ez dauka beste inoren ordezkaritzarik eta ez zaio ematen inoren aurrean erantzuteko ez betebeharrik, ez erantzunkizunik.

**"Erabakitzeko ahalmena partaideek eduki beharko lukete, libreak direlako eta ez inoren zerbitzuko aholkulari"**

Hausnarketa honekin partaidetza gabeziari erantzuteko bidea irekitzeko asmoa ageri da. Baina proiektuek gizartearen sinesgarritasuna eta babesa izatea nahi badute, erabakiak partaide kolektiboen eskuetan uzteko saltoa eman beharko dute.

Honen ondorioz, jarduera bat antolatzeko erabaki ahalmena partaideek eduki beharko lukete, libreak direlako eta ez inoren zerbitzuko aholkulari. Eta, aldi berean, erabakia bere gain hartzen duen Kolektiboa litzateke jarduerak sor ditzakeen ondorioen erantzulea.

Erabakietan parte hartuz izango ditugu etorkizunarekin konprometitzen diren herritarrak.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Mirian Biteri, Txomin Madina, Xabier Urtzelai **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**> ARRASATE** Alternatiba-Zutik eta Aralarrek hileta zibilak egiteko baliabideak eskatu dituzte **> 15**



**> OÑATI** GI-2630 errepideko eta bidegorriaren lehen zatiko lanak batera egiten dabiltza **> 18**



**> ESKORIATZA** Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 'Irrien Lagunak' ikuskizun berria aurkeztuko dute **> 19**



Ikuskizuna eskaini aurretik, herriko kaleetan kalejira egin zuten dantzariek. MIRIAN BITERI



Guztira, 150 dantzari inguruk parte hartu zuten. M.B.



Aramaioarrak, Txakolin-dantzan. M.B.

**ARAMAIO** > ARABAKO DANTZARIEN XI. TOPAKETA

# Txakolin-dantzak kiroldegian bildutakoen txalo zaparrada jaso zuen

**150 DANTZARI**
Arabako hainbat herritatik iritsitako 150 dantzari inguru bildu ziren zapatuan

**BETERANO BI**
1956an, Aramaion, Lagun Artea sortu zeneko bi dantzarik parte hartu zuten

**MIRIAN BITERI** > ARAMAIO

Dantzariz bete ziren Ibarrako kaleak zapatu arratsaldean, Arabako Dantzarien Biltzarra dela-eta. Hitzordua 18:00etan jarrita bazegoen ere, apur bat beranduago hasi zen kalejira. Ordurako, baina, askotariko adinetako 150 dantzari inguru zain zeuden kiroldegi kanpoaldean.

Herriko txistulariez lagunduta, anfitrioiek zabaldu zuten martxa; azken 50 urteotan Aramaioko Lagun Artea dantza taldean ibilitako 50 bat lagunek, hain justu ere. Tartean, 1956. urtean taldea sortu zeneko bi aramaioarrek parte hartu zuten.

Kiroldegia atzean utzita, Nardeaga kaletik, herriko plazarantz abiatu zen kalejira; handik Ibargoiara eta buelta eman ostean, Nardeaga hartu zuten berriro, hasierako tokira itzultzeko. Hasiera baten, ondorengo erakustaldia plazan egitea aurreikusita bazegoen ere, zerua ilun zegoen eta badaezpada kiroldegian egitea erabaki zuten antolatzaileek.

Aramaioarrek ez zuten huts egin eta dantza ikuskizuna hasi aurretik, kiroldegiko harmailak jendez lepo zeuden. Dantza egiten hasi aurretik, Arabako hainbat herritatik iritsitako dantzari guztiak kantxara irten ziren.

**TXAKOLIN-DANTZA**

Lagun Artekoak izan ziren erakustaldia zabaldu zutenak, Aramaioko dantza batekin: Txakolin-dantzarekin, hain zuzen. Lagun Artea taldeko Jose Madina dantzariak horren jatorria jakinarazi zigun: "Orain dela 20 urte berreskuratutako dantza aramaioarra da. Galduta zegoen eta Diputazioaren bidez horri eutsi genion, herrietako topaketak egiten hastean". Horren esanahia ere azaldu zigun Madinak: "Tabernan zeuden koadrila bik behin apustua egin zuten ea zeinek egiten zuen hobeto dantza. Horiek ezberdintzeko, koadrila bateko kideek gerriko beltza daukate eta besteak, gorria".

Jarraian, gainontzeko taldeak Arabako hainbat herritako dantzak erakutsi zituzten; hala nola, Aguraingo Lezea Zortzikoa zein Eltziegoko edo Guardiako dantzak. Erakustaldia amaitu aurretik, dantzari guztiak berriro kantxara irten ziren, Larrain dantza eta Txula-lai batera dantzatzeko.

**DANTZARIAK, POZIK**

Ikuskizuna amaitzean, Madina pozik zegoen: "Dena oso ondo irten da, giro polita egon da eta hori pozgarria da". Lagun Artea taldeko Azahara Alonso, Ane Gardoki, Amaia Arregi eta Maider Gardoki ere iritzi berekoak ziren. Horrenbeste entsegu ostean ondo dantzatu zuten-eta; baina, baita jende asko egon zelako erakustaldia ikusten. Eguna ez zen hor amaitu. Gauean, afaria eta erromeria egin zuten herrian.

**DATUA**

**5**

**HERRI**

Kiroldegiko erakustaldian Arabako hainbat herritatik iritsitako 150 dantzari inguruk parte hartu zuten: Aramaio, Dulantzi, Agurain, Langraiz Oka eta Gasteizko hainbat talde, hain zuzen ere.


Intsigniak eta diplomak jaso zituzten debagoiendarrak. T.M.

**ELGETA** > ODOL-EMAILEEN TOPAKETA

# 90 debagoiendar inguru omendu zituzten odol-emaileen bazkarian


Giro aparta izan zuten bazkarian; argazkian, Oñatiko taldea. T.M.

Debagoiena eta Debabarreneko odol-emaileek giro apartean egin zuten urteroko topaketa

**TXOMIN MADINA** > ELGETA
Atzo egin zuten Gipuzkoako odol-emaileen elkarteak urtero buru-tzen duen diploma eta intsignia banaketa, eta Debagoieneko eta Debabarrenekoak Elgetan elkar-tu ziren. Gure ibarrari dagokio-nez, Antzuola, Bergara, Elgeta eta Oñatikoak bildu ziren bertan, eta egun aparta igaro zuten.

**INTSIGNIAK ETA DIPLOMAK**
Meza ostean, Espaloian bazkaldu zuten. Ondoren heldu zen egune-ko momentu gogoangarriena: 25 odol emanaldi egin dituztenei diplomak banatu zizkieten; eta 40 eta 50 emanaldi egindakoei, intsig-nia bat. Denak bertaratu ez arren, ia 90 izan ziren oparia jaso zuten debagoiendarrak.

Aipamen berezia merezi du Joxe Anjel Arbulu antzuolarrak. *Donante handi* izendatu zuten, 75 odol emanaldi egin izanagatik. Madrildik bidalitako diploma eta oroigarria jaso zituen Arbuluk.

Antolakuntza lanetan ibili-tako Gregorio Vivesen esanetan, primeran pasa zuten atzoko egu-na. "Oroigarriak ematea mun-duan dagoenik eta gauzarik poli-tena da: azkenean emandako laguntza handiari errekonozi-mendu bat da. Gogoratu behar da, ez dagoela makinarik odolik egi-teko" azaldu zuen Vivesek. Gai-neratu zuen, atzoko egunak odol-emaileen arteko harremanak estutzeko balio duela, eta bide batez inoiz odolik eman ez dute-nak horretara animatu zituen.

**BERGARA**> INGURUMENA

# 1.200 kilo inguru zabor batu zituzten erreka bazterretik

Zapatuan 30 herritar batu ziren auzo-lanean Ibaiondo inguruko erreka bazterrak garbitzeko

**T.M.** > BERGARA
Heldu, gazte eta haur, 30 pertso-na inguruk erantzun zioten zapa-tu goizean erreka bazterrak gar-bitzeko auzo-lanerako egindako deiari.

Goizeko hamarretan elkartu ziren eta balde, eskularru eta hainbat erraminta aldean zituz-tela, goiz osoa eman zuten Ibaion-do pasealekuaren inguruko erre-kara botatako zaborrak jasotzen.

Ehun metroko esparruan ibi-li ziren lanean, eta denetatik jaso zuten bertan: plastiko ondarrak gehienbat, baina baita koltxoi, erosketetarako karrotxo eta mikrouhin-labe bana ere. 1.200 kilo zabor denera.

**ZABORRA, PLAZAN**
Behin erreka ondoko lanak amai-tuta, San Martin plazara eraman zuten zabor guztia, eta han egon dira ikusgai gaur arte.

Naiara Corcuera Udaleko Ingurugiro teknikariaren esane-tan, pozik zeuden jendearen par-te-hartzearekin; eta azaldu zue-nez zaborra plazan erakutsita, herritarrak kontzientziatzea gura zuten: "Zaborrontziak ez badira erabiltzen edo komunetik edozer gauza botatzen badugu, erreketara zer heltzen den era-kutsi gura genion jendeari".

Horrelako ekimen gehiago antolatzeko asmoa dutela gaine-ratu zuen Corcuerak.


San Martin plazan jarri zuten ikusgai errekan batutako zikinkeria. TXOMIN MADINA

**ARETXABALETA** > XIII. GASTRONOMIA ETA FOLKLORE JAIA

# Patxaran onena, Aretxabaletako Gurutze Gomezena

Eguerdian hainbat erkidegotako jatekoak eta edatekoak dastatzeko aukera izan zuten herriko plazara joan ziren aretxabaletarrek

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Atzo, domeka, XIII. Gastronomia eta Folklore jaia egin zuten Aretxabaletan, Zaraia Mendizale taldeak eta Udalak elkarlanean. Jai giro ederra egon zen eguerdi partean herriko plazan, jendez lepo zegoen-eta. Batzuek Errioxako Jota taldearen emanaldia ikusten zuten bitartean, beste askok nahiago zuten momentuan egindako Extremadurako txitxi-burruntziak, Galiziako olagarroa edo Gaztela Leongo urdaiazpiko gozoa probatzea.

Erkidegoko horietako zein Euskal Herriko produktu gastronomikoak erosteko hainbat postu ere jarri zituzten arkupetan.

**22 LAGUN PATXARAN LEHIAKETAN**

Bazkaldu ostean, berriz, XV. Patxaran Lehiaketako sari banaketa egin zuten. Aurten, Gurutze Gomez nagusitu da; Jesus Errasti *Sardaneta* bigarren eta hirugarren geratu da. Aretxabaletarrak dira biak. Guztira, 22 lagunek parte hartu zuten esandako lehiaketan.


Extremadurako txitxi-burruntzi asko saldu ziren. J.A.


Arkupetan jarritako postuetan, besteak beste, gazta zegoen. J.A.


Eguerdi partean jendez lepo zegoen plaza. JOSETXO ARANTZABAL

**OÑATI** > I. TRIKITI JAIALDIA

# Ohiko bikote zein elkartze berri, denak batera Zubikoan

Epele-Iturbide zein Laja-Landakanda omendu zituzten, trikitiaren alde egindako lanagatik

**M.B.** > OÑATI

Giro bikaina egon zen zapatuan Oñatiko Zubikoa kiroldegian, Lizargarateko Trikitizale Elkartekoek antolatutako I. Trikiti jaialdian. Antolatzaileen esanetan, 200 lagun inguru elkartu ziren sei taldek eskainitako emanaldia ikusteko.

Betiko bikoteak zein sortu berri diren taldeek parte hartu zuten: Oñatiko Trikiti Eskola; Miren eta Agurtzane; Maixa, Ines eta Izer; Iker Allur eta Narbaiza; Epelde eta Iturbide; eta Laja eta Landakanda, hain zuzen. Bakoitzak laupabost pieza jo zituen.

**OMENALDIA**

Jarraian, Epele eta Iturbide zein Laja eta Landakanda bikoteak omendu zituzten, urteetan zehar trikitixaren alde egindako lanagatik. Lizargarateko Trikitizale Elkartekoek egindako bertsoa abestu zieten, trikiti eta panderoaz lagunduta. Gainera, bertso hori idatzita zuen pandero bana jaso zuten opari moduan. Jaialdia amaitu aurretik, parte-hartzaile guztiak agertoki gainera igo ziren eta hiru pieza jo zituzten batera.

**80 LAGUN AFALTZEN**

Musika emanaldia amaitzean, trikitilari eta pandero-joleak herriko kaleak girotu zituzten, afaltzeko ordua iritsi bitartean. Jarraian, Oinarri elkartean 80 bat lagun afaltzeko bildu ziren.

Jaialdiko antolatzaile Eneko Zumalde pozik zegoen dena aurreikusi bezala irten zelako. Azpimarratu zuen Zubikoara bildu zen jendea oso gustura egon zela. Modu batean edo bestean parte hartu zuten guztiei ere eskerrak eman gura izan zizkien.



Irudian, Ines, Izer eta Maixa, zapatuan Zubikoan eskainitako emanaldian. JOSETXO ARANTZABAL

**UDALAREN KUDEAKETA** > INO GALPARSORO ALKATEAREN ADIERAZPENAK

# "Olandixorekin arinduko da herri barruko autoen zirkulazio jasanezina"

San Andres eta Uribe arteko 'puntu beltza' tunela irekitzean konponduko dela dio alkateak, Sanjuanetan

2010eko aurrekontuak %20a murrizten saiatuko da Udala

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Ino Galparsoro Arrasateko alkateak herriari zuzenean eragiten dieten denetariko gaiak izan zituen hizpide joan den eguenean, *Goiena Magazinea*n emandako elkarrizketan.

**'JAZARPEN POLIZIAL ETA JUDIZIALA'**

Legealdi osoan politika orokorrak nahikoa zeresan izan du Arrasaten, une batzuetan Udala jomuga bihurtzeraino. Bada, azken hilabetean, Galparsorok dioenez, ezker abertzalekoak diren udal gobernuetan izan den "jazarpen polizial, judizial eta politikoak" eragiten du Udalen eguneroko jardunean. Arrasateri dagozkien kontuei heldu aurretik, politika orokorreko gaietan denbora galtzen dela salatzen du alkateak. Izan ere, uste du Galparsorok: "Arrasateko Udalak exijitzen du ahalmen eta denbora guztia udal kontuetara zuzentzea; zoritxarrez, ez digute uzten".

Hau guztia herritar talde bat urriaren 1ean *Utzi bakian Arrasate* leloa izan zuen manifestazioa deitzera bultzatu zuen testuinguruan kokatzen du Galparsorok. Gainera, aldarrikapen jendetsu hartako leloa "Euskal Herria osora" zabaltzeko modukoa dela dio.

**GASTUAK MURRIZTU BEHARRA**

Denon ahotan dabilen krisia, krisia baino "zerbait gehiago" dela dio Galparsorok, "sistema ekonomiko oso baten porrota" dela, hain zuzen. Eta ondorioak izan baditu Udalean: diru sarrerak, esaterako, "nabarmen" murriztu baitira. 2010erako, gainera, hainbat zalantza ditu Udalak jasoko dituen diru sarreren inguruan.

Horren aurrean, Udalaren gastuak murriztu beharra dagoela uste du alkateak, eta 2010ean %20 gutxiago gastatzea aurreikusten dute. "Oso zaila izango da, baina saiatuko gara", dio. Hala ere, murrizketa ez da sail guztietan berdina izango: "Gizarte zerbitzuetan hainbat eskaera jaso ditugu eta horiei erantzuteko ahalegin guztiak egin behar ditugu". Inbertsio berriei dagokienez, "lehentasunezkoak eta arrazoituak" izan beharko dira. Bestalde, Udalaren funtzionamendu eraginkor eta segururako beharrezkoa den finantziazioa lortzeko ezinbestekotzat jotzen du Galparsorok Eudelek Udalen Legea lehenbailehen indarrean jartzea. Oztopoa, baina, "politikoa" dela dio.

**ZIRKULAZIOA, OLANDIXOREN ZAIN**

Duela aste bi istripu larria izan zen Gipuzkoako Foruen plazan –Bolintxo okindegiaren ondoan–. Ino Galparsorok istripua gertatu zen lekua baino, San Andresetik Uribe auzoraino doan tarte guztia "puntu beltza" dela deritzo, bertako zirkulazioaren dentsitatea "jasanezina" baita. Arazoa konponduko da Olandixoko tunela irekitzen dutenean –obra sanjuanetarako amaituta egongo da–. Ordura arte, baina, "arazoari soluziobide bat emateko aukera gutxi" dagoela dio.

**TRANBIARI AGURRIK EZ ORAINDIK**

Tranbia ez da Jaurlaritzaren lehentasuna, baina ibarreko udalek ez dute amore emango. Izan ere, dio alkateak, "ikusten ari gara hainbat lekutan tranbia jarriko dutela; bada, hemen, trenik ez dugun eskualde bakarrean, zer gutxiago tranbia jartzea baino". Aldundiak autobus azkarra –autobusendako erreia– proposatu du, eta Udalak ez du txarto ikusten. Hori bai, behin-behinean.



Arrasateko gune beltzetako bat, "jasanezina" den zirkulazioarekin. Orain aste bi istripu larria izan zen bertan. J.B.

DATUA

**%20**

**AURREKONTUA MURRIZTEA**

Alkateak 2010erako aurrekontua %20a murrizten saiatuko direla adierazi du. Murrizketa, baina, ez da berdina izango arlo guztietan; eskaria nabarmen areagotu den gizarte zerbitzuetan, esaterako.

ESANAK

**"Ahalmen guztiak udal kontuetara zuzentzea exijitzen du Arrasateko Udalak, baina zoritxarrez ez digute uzten"**

**"Gizarte zerbitzuetan hainbat eskaera jaso ditugu, eta horiei erantzuteko ahalegin guztiak egin behar ditugu"**

**"Leku askotan tranbia jarri behar dute; zer gutxiago hemen, trenik ez dugun eskualde bakarrean, tranbia jartzea baino"**

**Ino Galparsoro** > Arrasateko alkatea

## Zerrajerako eraikina, jabego arazoak Jaurlaritzarekin

Herriko zenbait eraikin esanguratsu hutsik geratu dira azkenaldian, besteak beste, frantziskotarren arkupeak, Mesedeetako Andra Mari ikastetxea eta baita, orain gutxi, Zerrajerako eraikina. Lehen biak ez dira Udalarenak, eta Zerrajerako erlojuaren eraikinarekin jabego arazoak ditu Jaurlaritzarekin. Haien ustez, eurena da eraikinaren %80a, baina Udala ez dago ados. Hots, "oso urrunduta" daude bi aldeak. Auzitegietara heltzeko aukera badago, ezin dute-eta "besterik gabe" amore eman. Bertan Musika Etxea egin gura du Udalak, Arrasate Musikalek egoitza berria "benetan" behar duelako.



Zerrajerako eraikina eztabaida iturri da Udala eta Jaurlaritzaren artean; oraindik ezin da Arrasate Musikal bertara eroan. J.B.



Irudian, Malen Errasti feminista eta sindikalista arrasatearrari 2007an egin zioten hileta zibil jendetsua. GOIENKARIA

**HERIOTZA** > HILETA ZIBILAK

# Alternatiba-Zutik eta Aralar, hileta zibilak erritual bihurtzeko baliabideak eskatzen

Hiru alderdiek araudi zirriborroa aurkeztu diote Udalari hileta zibiletarako baliabideak eskain ditzan; uste dutenez, gizartean "gero eta handiagoa" den beharrari erantzun egin behar zaio

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Alternatiba-Zutik koalizioak eta Aralar udal taldeak hileta zibilak egin ahal izateko araudia aurkeztu diote Arrasateko Udalari. Araudi hori egiteko Eskoriatza eta Legazpiko omenaldi edo hileta zibilak hartu dituzte aintzat. Araudia aurkezteaz gain, eskaera ere egin diote halako ekitaldietarako Udalak "leku aproposa" eta "baliabideak" abiaraz ditzan. Adibidez, une horretan Udalak "familiari laguntzeko gertu egongo diren boluntarioen zerrenda" bere esku izatea ondo legokeela uste dute. Azken finean, gizartean "gero eta handiagoa" den beharrari erantzun behar zaiola diote.

**LEKUEN BEHARRA**

Hileta zibiletarako behar den lekuari dagokionez, bi eskaera egin dituzte: batetik, "leku finko eta irekia" izatea, "aterpegune" batekin. Adibidez, Aldaiko parkea. Eta, bestetik, "leku itxi finkoa" ere "beharrezkoa" ei da. Esaterako, egungo hilerria, "udal tanatorioa han dagoela aprobetxatuta". Gunea egokituz gero leku aproposa dela uste dute. Hala, materiala bertan gorde ahalko litzateke.

**FUNTZIONATZEKO PROPOSAMENA**

Araudi zirriborroak hileta zibilen garapena bermatzeko hainbat aspektu aurreikusten ditu; udal lokalen ordutegiak zehazten dira, adibidez. Horretarako, baina, udal agintariek proposamenari bidea eman beharko diote.

**MUSIKA** > AGGRESSIVE COMBAT TALDEA, ALEMANIAN ETA TXEKIAR ERREPUBLIKAN

# Astebete, sei emanaldi eta hamaika bizipen

Gaur Txekiar Errepublikako Velesin hirian joko dute; asteburuan Berlinen eta Hanburgon izan dira

**J.B.** > ARRASATE

Joan den eguenean Berlinera bidean jarri zen Aggressive Combat talde arrasatearra. Biran joan dira Alemania eta Txekiar Errepublikara, eta astebeteko egonaldian sei kontzertu eskainiko dituzte. Ez dira areto handietako emanaldiak izango, ez horixe. Laukote arrasatearra oso gustura sentitzen da tabernako giro izerditsuan, eta hala ibiliko dira atzerrian ere; seitik bost kontzertu tabernatan dira eta bestea, etxe okupatu batean.

Sei emanaldietatik bi egin dituzte dagoeneko: egubakoitzean, Berlingo Rothen Insel etxe okupatuan eta zapatuan, Hanburgoko Jolly Roger tabernan –St. Pauli futbol talde enblematikoko jarraitzaileen topalekuan–. Bi kontzertuok Stevie izeneko lagun berlindar baten laguntzaz lotu zituzten. Atzo, domeka, Pragan izan ziren, hiria ezagutzen.

**LAU EMANALDI ORAINDIK**

Gaur joko dute birako hirugarren kontzertua. Txekiar Errepublikako Velesin hirian egingo dute geldialdia, Jakub deritzon tabernan. Eta bihar herrialdeko bigarren hirian, Ceske Budejovicen, joko dute United Rebels taldearekin batera. Txekiar Errepublika atzean utzita, Alemaniara itzuliko da laukote arrasatearra, azken bi kontzertuetarako. Birako saio potoloenak izango dira. Dusseldorfen Rat City Riot talde amerikarrarekin eta Fightball alemaniarrekin joko dute, AK 47 tabernan. Eta birako azken kontzertua Dulmenen izango da, eta aurreko bi taldeez gain, Angel City Outcasts talde amerikar ezagunak joko du.

**"GURA BADA", BADAGO IRTETERIK**

"Gogotsu eta ilusioz beteta" irten zen taldea Europa aldera. Euren lehen bira da eta, diotenez, "sekulako aukera da kanpora irteteko eta gure musika zabaltzeko". Martxoan kolpe gogorra jaso zuten, Arnaiz gitarra joleak taldea uztea erabaki zuen-eta. Hala, bira ondo etorriko zaiela espero dute, taldearendako "urrats garrantzitsua" izango dela. Bestalde, musika taldeendako kanpora irteteko aukerak badaudela uste dute, "benetan irten gura bada".




Aggressive Combat joan den eguaztenean, biran joan baino egun bat lehenago. J.B.

**MARITXU KAJOI**

## Balorazio positiboa egin du Komisiñuek

Hala ere, jaietan izan zen poliziaren presentzia "itogarria" salatu dute

**J.B.** > ARRASATE

Maritxu Kajoi Komisiñue pozik dago 2009ko ospakizunarekin. Lehenengo eta behin, eskerrak eman gura izan dizkie arrasatearrei, "jaian parte hartzeagatik". Egitarauko ekintza ezberdinak "oso arrakastatsuak" izan zirela gaineratu du Jai batzordeak. Herritarren parte-hartzea bakarrik ez, Komisiñuek taberna, jatetxe, loradenda eta Udalaren lana eskertu gura izan du.

**ERTZAINTZAREN "MEHATXUA"**

Bestalde, jaietan izan zen poliziaren presentzia "itogarria" salatu du batzordeak. Ertzaintzaren "mehatxuengatik" Nobenaixoko omenaldia "kolokan" egon zela dio Jai batzordeak. Tankera horretako jardunek, diotenez, "bizikidetza arrisku larrian" jartzen dute.

**oharrak**

ABAROA

**> Txango interesgarria Lodosa eta Azagrara**

Uribarriko erretiratu eta pentsiodunen etxeak txangoa antolatu du datorren azaroaren 11rako. Nafarroako hegomendebalera joango dira: Lodosa eta Azagra herrietara, hain zuzen.

Lodosan, bertako piperrak nola kontserbatzen diren ikasiko dute. Bisita gidatuaren aurretik, baina, luncha izango dute. Gero, Lodosako monumentu aipagarrienak bisitatuko dituzte. Azagrara bidean upategi baten egingo dute geldialdia, eta gero Azagran bazkalduko dute. Azkenik, bazkalostean dantza eta bingoa izango dute. Guztira 24 euro ordaindu beharko dira.

Izenematea zabalik dago eta lekuen zozketa azaroaren 5ean, eguaztenean, egingo dute (17:00).

LITERATURA

**> Ipuin kontalariak Santa Marina auzoko liburutegian**

Eguen honetan, urriak 29, Lur Kortak eta Izaskun Muxikak *Bidaian* izeneko ikuskizuna antzeztuko dute Santa Marina auzoko liburutegian.

Ipuin kontalarien saio hori 4 eta 8 urte bitarteko haurrei dago zuzenduta.

**JENDARTEA** > IKASTAROAK

# Bizikasik beste lau ikastaro antolatu ditu

Azaroan barrena izango dira ikastaro horiek, eta guztiak doan; izenematea dagoeneko zabalik dagoela jakinarazi dute Bizikasitik



Otsailean Bizikasik eta Caritasek etorkinendako egindako joskintza ikastaroko parte-hartzaileetako batzuk. BIZIKASI

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Bizikasik beste lau ikastaro antolatu ditu azarorako. Ikastarook dira arrisku handiko elikagaien manipulazioa, mendekotasuna duten adinekoen zaintza, yoga eta oinarrizko joskintza. Dagoeneko zabalik dago izena ematekoepea eta eskolak doan izango dira. Izena emateko deitu 943 76 93 94 zenbakira (Miren).

**ARRISKU HANDIKO ELIKAGAIAK**

Arrisku handia duten elikagaiak manipulatzeko ikastaroa izango da azaroaren 3an eta 4an, 16:00-19:00 ordutegian, Miguel Altuna institutuan. Ikastaroa egiten dutenek eskuratuko dute lau urterako ziurtagiri homologatua.

**ADINEKOEN ZAINTZA**

Mendekotasuna duten adinekoen zaintza delako ikastaroari dagokionez, azaroaren 3an, 5ean, 10ean eta 12an izango dira eskolak, 15:30-18:30 ordutegian, Miguel Altuna institutuko areto nagusian.

**YOGA IKASTAROA**

Bizikasik eta Angiozar Jorratzen taldeak antolatu dute ikastaro hori eta izango da Angiozar auzoan, hango ekintza aretoan. Eskolak izango dira azaroaren 2an, 9an, 16an, 23an eta 30ean, 18:30-19:30 ordutegian.

**OINARRIZKO JOSKINTZA**

Joskintza ikastaroan irakatsiko dituzte oinarrizko ikasgaiak: botoiak eta kremailerak nola jarri, barrenak nola hartu, errepasoak nola egin... Azken batean, egunerokoan baliagarri izan daitezkeen ikasgaiak.

Eskolak izango dira azaroaren 2tik 13ra, astelehenetik egubakoitzera, 10:00-12:00 ordutegian, Espoloian dagoen Anezka dendan.

Bizikasitik jakinarazi dute sei lagun behar direla taldeek aurrera egin ahal izateko.

---

**txaloak eta txistuak**

## Ziburuak konpondu egin dituzte

Labegaraietako irakurle batek bidalitako mezuan zera dio: "Udan txistu bat jartzeko eskatu nien *Goienkaria*-koei, Labegaraietako ziburuak denboran apurtuta zeramatelako. Bada, oraingoan txalotu egin nahi dut Udala, ziburuok konpondu egin dituelako".

Irakurleak gehitzen duenez, irailean konpondu zituzten ziburuok eta "umeek badute berriz lasai, arriskurik barik jolas egiteko aukera".



GOIENKARIA

---

> JENDARTEA

## Gaur hasiko da gizarte parte-hartzeari buruzko ikastaroa

Gaur, astelehena, hasiko da gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza ikastaroa, 19:00etan, kultura etxean. Lau eguneko ikastaroa izango da. Gaurkoa izango da lehenengoa eta beste hirurak izango dira bihar, martitzena eta etzi, eguaztena, 19:00-21:00 ordutegian eta azaroaren 7an, 10:00-12:30 ordutegian. Azkeneko saioari dagokionez, ez da izango Bergaran, Donostian baizik, Foru Aldundian.

Prestakuntza ikastaroa Aldundiak bultzatu du eta parte-hartzea irekia eta doakoa izango da. Ez dago aurrez izena eman beharrik.

---

**oharrak**

KINTADA

**> 1933an jaiotakoek bazkaria egingo dute Azpeitxin**

Azaroaren 22an egingo dute. 12:30ean meza izango da, San Pedron. Izenematea da 6 euro, Intxorta tabernan.

KINTADA

**> 1967an jaiotakoek afaria egingo dute Tartufon**

Azaroaren 21ean egingo dute, 22:00etan. 19:00etarako egin dute hitzordua, Arrano eta Popi's tabernen aurrealdean. Izena emateko sartu behar dira 20 euro Euskadiko Kutxako zenbaki honetan: 3035 0009 19 0090084407.

KINTADA

**> 1943an jaiotakoek bazkaria egingo dute Azpeitxin**

Azaroaren 22an egingo dute. Izenematea da 18ra arte, Comercio Zubietan (943 76 16 13) eta Tejidos Fernandezen (943 76 53 22).

KINTADA

**> 1960an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Azaroaren 14an egingo dute, Lasan. Izenematea da Igarza harategian edo Barrenkaleko estankoan. Izena emateko orduan 10 euro aurreratu behar dira.

KINTADA

**> 1959an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Azaroaren 14an egingo dute, Tartufon. Hitzordua egin dute 20:00etarako, Fraiskozurin. Izena emateko azken eguna da azaroaren 10a. Horretarako, sartuko dira 70 euro Kutxako kontu zenbaki honetan: 2101 0070 81 0127058220.

KINTADA

**> 1953an jaiotakoek afaria egingo dute azaroan**

Azaroaren 14an egingo dute, Agorrosinen. Afaria izango da 21:00etan eta gero dantzaldia egongo da. Izenematea da 15 euro, Agorrosinen edo ONCEren kioskoan. Izena emateko azken eguna da azaroaren 12a.

KINTADA

**> 1934an jaiotakoek –55eko kintoak– bazkaria egingo dute**

Azaroaren 21ean egingo dute, Errekin. 14:00etan txikiteoa egingo dute eta 14:45ean izango da bazkaria. Izenematea da Errekin eta aurreratu behar dira 12 euro.

KIROLA

# Soraluze-Bergara krosa zapatuan

Izenematea eguaztenera arte izango da zabalik

E.M. > BERGARA
Zapatuan, urriaren 31n, Soraluze-Bergara krosaren 5. ekitaldia jokatuko da, Antxintxika kirol elkarteak antolatuta. Antolatzaileek erabaki dute gehienezko korrikalari kopurua jartzea eta, beraz, 500 korrikalarik hartu ahal izango dute parte zapatuko lasterketan.

Bete beharreko distantzia 10 kilometrokoa izango da, Soraluze eta Bergara artean, trenbide zaharretik, eta lasterketa 17:00etan hasiko da. Aurretik, 16:00etan, gaztetxoei zuzendutako lasterketa jokatuko da Bergarako kaleetan.

**SARI UGARI**

Izenematea, nagusiendako, eguaztenera arte izango da zabalik. Bergaran, Lazkano oinetako dendan eta Goiena aseguruetan (Zurradero 2) egin daiteke, 10 euro ordainduta. Arrasateko Goiena aseguruetan eta Oñatiko 0 Km. kirol dendan ere egin daiteke izenematea. Epez kanpo eginez gero, 15 euro ordaindu beharko dira. Soraluzeraino autobusez joan nahi izanez gero, euro bat ordaindu beharko dute korrikalariek. Sari ugari banatuko dituzte antolatzaileek lasterketaren ostean.



Argazkian, iaz saritutako lanen egileak Enara Minguez zinegotziarekin. GOIENKARIA

KULTURA > FILM LABURREN 4. LEHIAKETA

# Film laburren lehiaketako lanak azaroaren 2ra arte jasoko dituzte

Debagoieneko film zaleek har dezakete parte; irabazleek 400 euroko saria jasoko dute eta beste bi sari emango ditu epaimahaiak

EDU MENDIBIL > BERGARA
Laugarren urtez, Bergarako Udalak film laburren lehiaketa deitu du eta astelehenera arte, azaroaren 2ra arte, izango da zabalik lanak jasotzeko epea. Bergarako zein ibarreko herritarren sormen grina asetzeko asmoz antolatutako lehiaketa da. Lanak taldeka zein bakarka aurkeztu ahal izango dira.

Era berean, lanak edozein hizkuntzatan aurkezteko aukera egongo da, baina euskara ez den hizkuntza batean aurkeztuz gero, azpitituluak jarri beharko dira euskaraz.

Parte hartu ahal izateko baldintzetako bat honako hau da: parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du eta, horrez gain, filmak 15 minututik beherakoek izan beharko dute.

**HIRU SARI AZAROAREN 27AN**

Behin lanak aurkeztuta 25 eguneko lana izango du epaimahaiak lanak ikusi eta erabakia hartzeko. Antolatzaileek adierazi digutenez, oraindik ez dute erabaki nortzuk osatuko duten epaimahaia.

Edozein modutan, sari banaketa azaroaren 27an, egubakoitza, izango da Zabalotegi aretoan, eta egunean bertan jakingo da epaimahaia nortzuk osatzen duten. Lehen (400 euro) eta bigarren sariak (350 euro) eta bergarar onenari saria (150) emango dituzte. Lehen saria irabazten duenak

Joan den urteko lehiaketan 14 lan jaso zituzten. Txolarte elkartearen *Tariro tariro* izenburuko lanak eskuratu zuen lehen saria. Bigarren saria, berriz, Otavio Sendoyaren *Elephant* lanarendako izan zen.

Esan bezala, azaroaren 2ra arte izango da zabalik lanak jasotzeko epea. Edozein argibidetarako kultur etxera, edo 943 77 91 60 telefonora jo dezakete interesatuek.



J. ARANTZABAL

# Lokatzakoek denboraldia agurtu zuten Altzasun

Lokatzako txirrindulariek denboraldia agurtzeko afaria egin zuten zapatuan, Altzasu elkartean. Emaitza bikainak lortu dituzte kategoria ezberdinetako ziklistek (30 bat ibili dira infantil eta gazte maila bitartean) eta beraz, bazuten zer ospatu. Ehun lagun inguru batu ziren Altzasun, giro ederrean. Merezitako atsedenaldiaren ondoren, azaroaren 3an neguko prestaketari ekingo diote Lokatzako txirrindulari gazteek. Ziklo-krosean ari direnak neguan, eta errepidekoak udaberrian itzuliko dira lehiaketetara.



J. ARANTZABAL

# Joxan Izaren erakusketa Aroztegin

Joxan Iza artista bergararrak erakusketa zabaldu zuen egubakoitzean Aroztegi aretoan. 1985. urtean egiten hasi zen panpin elektrikoez gain, azken bi urteotan egindako koadroak (formatu panoramikokoak zein txikiagoak) batu ditu erakusketan. Egubakoitzeko inaugurazioan jende dezente batu zen Barrenkaleko aretoan; *panoptik.com* izenburuko erakusketa azaroaren 8ra arte izango da zabalik, ohiko ordutegian.



Legazpirako noranzkoan egingo dute bidegorria; une honetan egokitze lanak egiten dihardute Ugarte Eraikuntza enpresako langileek. MIREIA BIKUÑA

**AZPIEGITURAK** > ERABERRITZEA

# GI-2630 errepideko eta bidegorriaren lehen zatiko lanak batera egiten dihardute

Belatxaratik Olabarrietaraino doan errepideko lanak Coprisa enpresak egiten dihardu; eta bidegorria egokitzeko lanak, Ugarte Eraikuntza enpresak

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

GI-2630 errepideko eraberritze lanak eta bidegorri sarearen lehen tramuko lanak batera egiten dihardute. San Lorentzo, Olakua, Ugarkalde eta Olabarrieta inguruetan sortuko zen zirkulazio pilaketa ikusirik, Udalak lanok batera egitea erabaki zuen. Belatxara gasolindegitik Olabarrietaraino doan errepideko lanak Coprisa enpresaren esku daude eta bidegorriko lanak, Ugarte enpresaren esku.

**3,5 KILOMETRO BERRITUTA**

GI-2630 errepidea berritzeko lanen proiektuaren arabera, 13 eta 17. kilometro puntuen artean lau zatitan egingo dituzte lanak, guztira 3,5 kilometro hartuta.

Lan horietan, bide zoruaren egitura birgaitu eta betun nahasketa beroko bi geruza zabalduko dituzte. Gainera, drainatze sarea hobetzeko hormigoizko areka egingo dute tarte batzuetan. Oraingoz, Belatxaran inguruan eta Olabarrietan dabiltza lanean.

Bestalde, errepidea konpontzeaz gain, abiadura moteltzeko neurriak hartuko dituztela esan digu Lourdes Idoiaga alkateak: "Abiadura handian ibiltzen dira autoak Olakua auzoan, semaforoak egon arren. Hortaz, eraberritze lanak aprobetxatuz, bi bideak estutu egingo ditugu autoak motelago ibil daitezen".

**BIDEGORRIA, ESKUINETIK**

Bidaurretako biribilgunetik ahateen urmaelaren parean dagoen autobus geltokiraino bidegorriko lanak egiten dihardute; hain zuzen ere, Legazpirako noranzkoan. Ugarte Eraikuntzak enpresa hasi da lanok egiten. Zati hori Urrutxuko kirol gunetik Ugarkaldera joango den ardatz nagusiko tramuetako bat izango da. Bigarren ardatz nagusia Kurtzekuan hasi eta Berezaon bukatuko da.

Ander Irazustak egindako proiektuaren arabera, bidegorri sareak bi ardatz nagusi eta sei bide-adar izango ditu.

**ERREPIDEAK** > NEURRI BERRIA

## Kuartelaren ondoko igoera itxi egingo dute gauetan zirkulaziorako, segurtasunagatik

Guardia Zibilak egindako eskaera aintzat hartu du Udalak, eta pibote hidraulikoak jarriko dituzte

**M.B.** > OÑATI

Guardia Zibilaren kuartelaren inguruko segurtasuna bermatzeko, kanposantu aldera doan errepidea itxi egingo dute gauetan. Erabaki hori hartu du Udalak, Guardia Zibilak egindako eskaera aintzat hartuta.

Horren harira, zehaztu barik dagoen ordutegi baten zirkulazioa moztu egingo dute tarte horretan. Horretarako, pibote hidraulikoak jarriko dituzte kanposantuko igoeraren hasieran, biribilgune ondoan.

**GAUETAN BESTE BIDE BATZUK**

Aurreko asteko eguenean eta egubakoitzean errepidea moztu egin zuten ordu batzuetan zuloak egiteko eta pibote hidraulikoak jartzeko. Lanak bukatu ondoren, debeku berria indarrean jarriko dute, baina oraindik ez dute ordutegia zehaztu.

Kuartelaren ondoko igoera itxita dagoen orduetan, beste bide batzuk erabili beharko dituzte gidariek errepidera irteteko edo kanposantura joateko. Besteak beste, Ramon Irizar kaletik, Ibarra aldera hartu eta saihesbidera irten daitezke. Handik Arrasate, Legazpi, kanposantu eta Zañartu aldera har dezakete. Bestela, Otadui zuhaiztiko irteera har dezakete.

> MATRIKULAZIOA

## Ikastaroetako ordainketa, hilaren 30a baino lehen

Kultura Sailak antolatutako ikastaroetako behin betiko ordainketa egubakoitza baino lehen egin beharko da. Ikastaro bakoitzerako onartu dituztenen zerrendak ikusgai daude kultura etxean. Helduek 66 euro ordaindu beharko dituzte, gaztetxoek 48 euro eta bitxigintza ikastarokoek 46 euro. Guztiek dirua sartu beharko dute Euskadiko Kutxako 3035 0005 36 0050900035 zenbakian. Epe barruan matrikula ordaintzen ez dutenak edo kultura etxera ziurtagiria eroaten ez dutenak ikastarotik kanpo geratuko dira.

**oharrak**

HITZALDIA

**> Bizi testamentuaren gaineko berbaldia Pake Lekun**

Santiago Goñik bizi testamentuaren gainekoak kontatuko ditu bihar, 17:00etan.

ERAKUSKETA

**> Gorka Salmeronen erretratuak ikusgai kultura etxean**

XIX. mendeko teknikarekin egindako 25 erretratu ditu ikusgai Salmeronek azaroaren 6ra arte, astelehenetik domekara.

ZINEMA

**> Eguenean, zinekluba**

Ed Harris zuzendariaren *Appaloosa* emango dute zineklubean, 20:00etan.

**ARETXABALETA-ESKORIATZA** > GAZTE ARGAZKI RALLYA

## Egubakoitzera arte aurkez daitezke lanak gaztelekuetan

Lehiaketan 12 eta 17 urte bitarteko edozein gaztek parte hartu ahal izango du

Aurretik ezarritako 10 gaien gaineko 10 irudi aurkeztu beharko dira JPEG formatuan



Aretxabaletako gaztelekuaren gaineko irudiak ere atera ahal dituzte gazteek. GOIENKARIA

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Txatxilipurdik argazki lehiaketa antolatu du Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasateko gazteleku eta gaztetxokoen artean. Lehiaketa horretan 12 eta 17 urte bitarteko edozein gaztek parte ahal du horretan. Hori bai, egubakoitza, urriak 30, baino lehen aurkeztu beharko dituzte lanak aipatutako gazteleku edo gaztetxokoetan.

Txatxilipurdiko kide Lander Juaristik jakinarazi digunez, gaia librea ez bada ere, oso zabala izango da. Izan ere, aurretik ezarritako 10 gaien gaineko beste hainbat argazki aurkezteko aukera izango dute gazteek: lagunak, udazkena, natura, kirola, musika, norberaren herria, gaztetxoa edo gaztelekua, amona-aitonak, kultura ezberdinak eta dirua, hain justu ere. Lanak JPEG formatuan egon beharko dira. Juaristik nabarmendu du argazkiak taldeka edo bakarka aurkeztu ahal izango direla eta irudiak norberak ateratakoak izan beharko direla; *Photoshop-ean* landuta izan direnak onartzen badira ere.

**AZAROAREN 7AN, SARIAK**

Horrekin batera, azaldu digu lehiaketa horren sari banaketa azaroaren 7an, zapatua, egingo dutela. Horretan, argazki bilduma onenak sari nagusia jasoko du. Ez hori bakarrik; irudi onena ere saritua izango da-eta.

Txatxilipurdikoek esandako lehiaketan parte hartzeko gonbidapena egin diete gazteei. Horren harira, gogorarazi dute dagoeneko argazkigintza egunerokotasunean bizi dugula; izan ere, gaur egun edozeinek dauka-eta irudiak aterako aukera, argazki kamara edo poltsikoko telefonoen bidez. Juaristiren arabera, "dena den, oraindik ere argazki edo irudi batekin gauza asko esan daitezke, momentu egokian guk nahi dugun irudia har dezakegu".

Lehiaketaren gaineko informazio gehiago nahi dutenek, 943 79 54 46 telefono zenbakira dei edo *gazteak@txatxilipurdi.com* helbidera idatzi dezakete.

**ESKORIATZA** > HAURRAK

## Pirritx eta Porrotx, azaroaren 28an

Urtero moduan, ikuskizun berria aurkeztuko dute pailazoek; aurtengoak, *Irrien Lagunak* du izena

Sarrera salmenta sistema aldatuko dute; herriko ikastetxeetako umeek aurretik erosi ahalko dute




Goiko irudian, *Irrien Lagunak* ikuskizun berriaren kartela ageri da. I.A.

**M.B.** > ESKORIATZA

Aurten ere ez dute huts egingo Pirritx, Porrotx eta Marimototsek. Azaroaren 28an, *Irrien Lagunak* ikuskizun berria aurkeztuko dute Eskoriatzako kiroldegian.

Udaletik jakinarazi digute sarrera salmenta sisteman aldaketak daudela. Urtero sarrera banaketarekin gorabeherak izan dira. Hori dela-eta, aurten, Jose Arana ikastolako eta Luis Ezeiza ikastetxeko guraso elkarteek sarrera banaketa beste modu batera egitea adostu dute. Hori horrela, azaroaren 13ra arte, Eskoriatzako ikastetxeetako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasle bakoitzak ikastetxean bertan sarrera erosteko aukera izango du; ikasle bakoitzeko, gehienez, bi sarrera. Gainontzeko sarrerak,¶17 azaroaren 18an, herriko kiroldegian jarriko dituzte salgai.

**KANTUAK ZUZENEAN**

Esan bezala, *Irrien Lagunak* izeneko saio berria aurkeztuko dute. Horretan pailazoek Sudurgorrien Eguna egingo dute kiroldegian biltzen diren umeekin batera. Lagun bihurri eta kilikagarriekin, denon artean, barre eginarazten diguten uneak gogoratuko dituzte; eta barre, kantu eta dantza artean, egunero bizi, sentitu eta ikasten dugunarekin puzzlea osatuko dute. Gainera, aurtengo ikuskizunean kantuak eta soinua zuzenean izango dira.

**ARETXABALETA**

## Tubos Precisioneko erakina, plenoan

**M.B.** > ARETXABALETA

Gaur arratsaldean, Aretxabaletako udaletxean egongo den osoko bilkuran, Bedarreta auzo inguruan dagoen Bergara, Jauregi, Resusta y Cia izeneko eraikinean zegoen Tubos de Precision S.Coop. lantegiko bulegoen lur eremuen arauak aldatzeaz jardungo dute. Lur industrialak dira orain eta HUHEZIko fakultatea han jarri ahal izateko, sailkapena aldatu behar dute.

Bestalde, Cerrajera Valle Leniz enpresa egon zen tokian etxebizitzak eraikitzen ari dira. Horien artean geratuko den plazari izena jartzea erabakiko dute, 18:00etan, egingo duten osoko bilkuran.

**ESKORIATZA**

## Ordenantza fiskaletaz jardungo dute etzi

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzan ere osoko bilkura egongo da asteon; eguaztenean, hain zuzen. Eztabaidatuko dituzten gaien artean, 2010. urterako ordenantza fiskalak aldatzeko hasierako onarpenarena dago.

Horretaz gain, udako opoorren aurretik ura aurrezteareren gainean Udalak onartutako ordenantzari egindako iradokizunetaz jardungo dute eta behin betiko onartzea espero dute.

**IKUR FRANKISTAK**

Eskoriatzako kaleetatik kutsu frankistako ikurrak kentzeko proposamena ere aurkeztuko dute. Osoko bilkura 18:30ean hasiko da.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



Urtean zehar Antzuolan hainbat argazki lehiaketa antolatzen dituzte. GOIENKARIA

ANTZUOLA > LEHIAKETA

# Hilaren 30a, azken eguna argazkiak aurkezteko

Epaimahaia argazki munduko adituek osatuko dute eta kalitate teknikoa eta artistikoa eta adierazteko originaltasuna hartuko dituzte kontuan

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Aurten hamabosgarren aldiz antolatu du Udalak argazki lehiaketa Antzuolan jaio edo bizi diren lagunendako.

Lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna, egubakoitza, urriaren 30a, izango da. Udaletxera eraman beharko dituzte argazkiak parte-hartzaileek.

Argazkiak egileari buruzko ageriko datu barik aurkeztuko dira, baina argazki bakoitzari atzeko aldean izenburua ipinita. Argazkiaren izenburuarekin eta maila zehaztuz kartazal itxia gehitu beharko zaio irudi bakoitzari parte-hartzailearen datu guztiekin.

**HIRU MAILA**

Lehiaketa hiru mailatan bereizi dute. Lehenengoa 6 eta 12 urte bitartekoendako, alegia; bigarrena 13 eta 18 urte arteko gazteendako; eta hirugarrena, 19 urtetik gorako antzuolarrendako.

Argazkiak 30x40 zm-ko neurria duen krema edo *beige* koloreko kartoi finezko euskarrian aurkeztu behar dira. Barruko argazkiaren tamaina, berriz, 25x35 zm-koa izango da gehienez.

Lanak koloretan edo zuri-beltzean aurkez daitezke eta edozein gai aukeratu ahal izango du parte-hartzaile bakoitzak; gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Argazki munduko adituek osatuko dute epaimahaia eta lanak baloratzeko kontuan izango dituzte kalitate teknikoa eta artistikoa eta adierazteko originaltasuna. Hauen erabakiak azaroan Olaran etxean egingo duten sari banaketan jakinaraziko dituzte eta gero argazki guztiak ikusgai izango dira Olaranen.

Lehen mailako lehenengoak 20 euro irabaziko ditu eta bigarrenak 15 euro. Bigarren eta hirugarren mailetan lehenengoek 150na euro jasoko dituzte eta bigarrenek 90na euro.

Udaletik herritarrak animatu nahi dituzte argazki lehiaketan parte hartzera.

ARAMAIO > LAGUNTZAK

# Renove Planeko dirulaguntzak udaletxean eska daitezke abenduaren 31ra arte

Etxetresna elektrikoak, ibilgailuak, leihoak edo galdarak erosiz gero jaso ahalko dira laguntzak, baldintza jakin batzuk betez gero

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Etxetresnen kasuan, hozkailuak, izozkailuak, garbigailuak, ontzigarbigailuak edo labeak erosiz gero jasoko dira laguntzak. Ibilgailuen kasuan, eskatutako baldintzak betez gero 400 euro jasotzeko aukera izango da. Leihoek, bestetik, energia aurrezteko ezaugarriak izan beharko dituzte. Galderei dagokienez, erosleak partikularra izan behar du eta galdararen potentziak 70 kW baino txikiagoa izan behar du. Dirulaguntzak eskatzeko epea abenduaren 31n amaitzen da; eskariak udaletxean aurkeztu behar dira. Laguntzak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzen inguruko informazio guztia kontsulta daiteke Aramaioko udal webgunean: *www.aramaio.org*.

**BIZI KALITATEA HOBETZEKO**

Aurrekoez gainera, beste laguntza batzuk ere eska daitezke: 2008an indarrean egon zen lanbide arteko gutxieneko soldata baino errenta txikiagoa izan duten pertsonendako bizi baldintzak eta kalitatea hobetzeko. Urriaren 31 baino lehen egin behar da eskaria Udaleko Ongizate Zerbitzuetan.

LEINTZ GATZAGA > HIRIGINTZA

# Pilotalekuko lanek oraindik ez dute hasiera datarik

Landagipuzkoa32 egitasmoaren dirulaguntza jasoko du eta Etorlurrek hartuko du lanen ardura; proiektua oniritzia jasotzeko zain dago

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Aldundiak onartuta dauka pilotalekuko aterpea berritu eta guztiz ixteko egin beharreko inbertsioa, 103.965 euro hain zuzen. Diru horren erdia inguru Landagipuzkoa32 egitasmoak jarriko du eta gainerakoa Udalak. Proiektua eginda dago, baina oraindik ez du jaso oniritzirik eta ondorioz, lanok ez dituzte hasiko aurten. Etorlurrek dauka horien ardura eta hark esleituko ditu gero.

Pilotalekuko aterpea kobrezkoa da eta egoera kaskarrean dago. Udalak hainbat konponketa egin dizkio azken urteotan baina guztiz berritu beharrean dago.



Aterpea berritu beharra daukan Gatzagako pilotalekua. M.A.

ELGETA > DANTZA

# Euskal Herriko dantzen ikastaroa umeendako

6-12 urte bitarteko umeendako da eta izenematea zabalik dago udaletxean

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Aspaldi desegin zen Ozkarbi elkarteko dantza taldea. Ordutik ez da talderik herrian, baina Elgetako umeek Euskal Herriko dantzak ikasteko aukera izan dezaten nahiko lukete Maala guraso elkarteak eta Udalak. Hala, ikastaroak antolatzeko lanean aritu dira, eta deialdia egin dute 6-12 urte bitarteko umeendako.

**IRAKASLEA, PATXI MONTERO**

Eskolaz kanpoko jarduera moduan antolatzea proposatzen dute. Gutxieneko ikasle kopuru batek izena emanez gero, asmoa da saioak astelehenetan 16:45etik 17:45era egitea eskolako ganbaran.

Herrian aurretik ikastaro bat baino gehiago emandako Patxi Monterok gidatuko ditu saiook, eta asmoa da ekintzarekin azaroaren 2an hastea.

Interesatuek udaletxean eman dezakete izena hilaren 27a baino lehen, edo guraso elkarteak eskolan duen postontzira datuak bidaliz. Taldean egiteko dantzak landuko dituzte ikastaro horretan; zirkuluan egitekoak, gehienbat. Ikastaroaren prezioa hilean 12-15 euro bitartekoa izango da, ikasle kopuruaren arabera finkatuko dena.

**ASKOTARIKO DANTZAK**

Patxi Monteroren asmoa da Euskal Herri osoko dantza errazak umeei erakustea. Proposamenen artean daude Iparraldeko zazpi jauziak, Zuberoako branlea, Paganosko txulalai eta Baztango xanpetrike. Arrasateko errementari-dantza eta Abaltzisketako txantxoak ere zerrendan daude.



**> FUTBOLA**
Bergarak sei gol egin zizkion Euskaldunari partidu ederrean **> 23**



**> ESKUBALOIA**
Ford Mugarri Arrasatek partidua berdinduta ere lider jarraitzen du **> 24**



**> ELKARRIZKETA**
Xabier Oñederra laugarren sailkatu da 4x4 autoen txapelketan **> 27**

**IRRATI-KONTROLEKO AUTOAK** > ZIRKUITUA ESKORIATZAN

# "Neguan autoekin ibiltzeko beharrezkoa zen zirkuitua"

**DOSPISTONES**
Ibarreko elkarteko kideek erosi dute autoendako zirkuitua

**DOMEKATAN**
Eskoriatzako pilotalekuan jarriko dute zirkuitua

**XABIER URTZELAI** > ESKORIATZA

Eskoriatzak irrati-kontroleko autoendako zirkuitua du. Ibarreko Dospistones elkartekoek erosi dute zirkuitua, eta atzo estreinatu zuten, pilotalekuan, herritarren aurrean.

Klubeko Iñigo Gartzia (Eskoriatza), Javi Martin (Soraluze), Oscar Zubia (Legazpi), Antxon Carenas (Arrasate) eta Sergio Frutos (Eskoriatza) ibili ziren 1/18 eskalako auto elektrikoekin lehian. Jose Antonio Sanchez ere klubeko kide da, baina hark gasolinazko autoak erabiltzen ditu, eta taldekideak zirkuituan zebiltzan bitartean, Sanchezek kirol horren berri eman zion ASTELEHENEKO GOIENKARIAri: "Ikustekoa da auto txiki horiek ze azkar dabiltzan. Ez dute gasolinazkoekin zerikusirik, eta hauek gazteendako oso aproposak dira, ez direlako garestiak, baina aldi berean aukera ematen diete gazteei elektronikaz eta mekanikaz ikasteko –gainera, eurekin ezin da minik hartu–. Izan ere, motor indartsuagoak edo motelakoak, esekidura independienteak, diferentzialak... benetako autoak dirudite.

**ZALETASUN EDERRA**

Dospistones taldeko kidearendako zaletasun ederra da gazteendako: "Auzoko kaleetan gazteak ikusten ditut batera eta bestera, zaletasun barik. Eta negurako ez dago hau baino zaletasun hoberik. Gure helburua da ibarrean egoitza propio bat izatea, zirkuitua egonkorra izan dadin, baina gaur egun hori lortzea oso zaila da, eta Eskoriatzan irtenbide polita aurkitu dugu".

Dospistones taldeko kideek ordubete behar dute erosi berri duten Foam kautxuzko zirkuitua muntatzeko: "Baina auto txikiagoekin ibiltzeko zirkuitua da, eta dagoeneko pieza gehiago erosi ditugu zirkuitua handitzeko. Guztira, 2.000 euro gastatu ditugu zirkuituan, baina oso txukun dago".

**ENTRENAMENDU EZIN HOBEA**

Dospistones taldeko kideak gasolinazko autoekin ibiltzen dira –Sergio Frutos 16. sailkatu da Espainiako Txapelketan–, baina neguan, auto elektrikoekin ibiltzea entrenamendu ederra da: "Autoaren norabidea etengabe zuzendu behar delako".



Gidariak lasterketa hasi aurretik, 1/18 eskalako autoekin, zirkuitu berrian. JOSETXO ARANTZABAL




Dospistones taldeko kideak, domekako zirkuituaren inaugurazioan. X.U.



Mantenu lanak egiten. J.A.

**Iñigo Gartzia** > Dospistones taldeko kidea

## "Hasi berriei auto horiek gidatzen irakatsiko diegu"

**X.U.** > ESKORIATZA

**Iñigo Gartziak (Eskoriatza, 1977) hiru urte daramatza irrati-kontroleko autoekin. Gasolinazkoekin hasi zen, baina orain auto elektrikoetara ere egin du salto.**

**Zirkuitu txukuna muntatu duzue pilotalekuan. Zelan joan da goiza?**

Autoekin eta zirkuituarekin ondo ibili gara, baina ordenagailuak hainbat arazo eman dizkigu autoen denborak hartzerako orduan. Bestela, gazte koadrila polita etorri da pilotalekura, eta eurendako ere autoak izan ditugu gertu, zaletasun hau proba dezaten. Eskoriatzako Udalak babesa eman digu, eta asmoa da zirkuitu hau domekero muntatzea, jendea bertan ibil dadin.



GOIENKARIA

**Pilotalekuko ateak, horrenbestez, zabalik egongo dira.**

Bai, bai. Egia da autoarekin zirkuituan ibiltzeko abilezia apur bat behar dela, eta horra sartu aurretik hasi berriei irakatsiko diegu autoa zelan gidatu. Horrekin batera, mantenu lanak eta bestelako lanak ere irakatsiko dizkiegu.

**Irrati-kontroleko autoak garestiak ziren lehen, baina horiek ere merketzen dabiltza.**

Gasolinarekin dabiltzan autoak garestiak dira, baina auto hauek 1/18 eskalakoak elektronikoak dira eta gutxi gorabehera 180 euro balio du horrelako bat erosteak. Prezio horren barruan autoa, bateria eta bateria kargatzailea sartzen dira, hau da, ibiltzeko gertu.

**Eta ondoren nahi beste moldaketa egin daitezke**

Bai. Egia esan, datozen moduan oso ondo daude, baina posible da motor hobea jartzea, karkasa aldatzea, suspentsioak... pieza guztiak alda daitezke.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > 7. JARDUNALDIA

# Ondarroak hasierako minututik erakutsi zuen zergatik irabazi dituen partidu denak

Ligako liderrak joko ona bai, baina zortea ere aldeko izan zuen, Idigoras atezainak irrist egin eta lehenengo minutuan gola egin zutelako



Aloñako mutilak Ondarroakoei zelaiaren erdialdean presioa egiten, Oñatikoen eskuin hegalean

ALOÑA MENDI

**0-3**

ONDARROAKO AURRERA

**Aloña Mendi** > Idigoras, Bernal (Jon Igartua, 58.min.), Garmendia, Palacios, Iñigo Arregi, Zubia (Julen Barrena, 67.min), Agirre (Unai Moiua, 51.min.), Juaristi (Jon Astigar. 60.min.), Ibabe, Sanchez eta Olalde.

**Ondarroako Aurrera** > Izagirre, Peña (Laka, 20.min), Lema, Goñi, Arkotxa, Graña, Uribesalgo, Lanribar, Badiola (Arreitunandia, 68.min), Aramaio (Prieto, 60.min) eta Lopez (Duarte, 78.min).

**Epailea** > Merino jauna. Lan txukuna.

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

Ohorezko erregionalean Ondarroak zazpi partidu jarraian irabazi izana ez da kasualitatea. Oñatiarrek bazekiten horrenbeste partidua hasi aurretik, baina ez zuten uste lehenengo minututik kontrarioak horrelako abantailarik izango zuenik.

Partidu hasieran minutu bateko isilunea gorde zuten Carmen Moiuaren izenean, Juan Carlos Igartuaren amaren izenean. Eta, isilune horren ondoren, partidua hasi eta berehala berriro ere mutu geratu zen Azkoagain. Zorigaiztoko jokaldian, Iñigo Idigorasek irrist egin zuen Badiolak urrunetik egindako jaurtiketa geratzeko, eta hala aurreratu ziren kostaldeko mutilak (0-1).

Josu Zubiaren asmoa liderraren aurrean atea hutsean ahalik eta gehien mantentzea bazen, pikutara asmoak. Hortik aurrera Ondarroako Aurrera ondo kokatu zen zelaian. Atzealdean sendotasuna oinarri duen taldea dela erakutsi zuen, eta zelai erditik aurrera Aloñari kosta egin zitzaion gol aukera garbirik izatea. Ondarroako taldeak, berriz, hasierako minutuetan lanak eman zizkion Idigorasi, baina bigarren gola egin zuten arte ez zuten apartekorik egin. Baina esan dugu lehen zatia amaitu aurretik Ondarroako kapitainak bigarrena egin zuela, eta zelakoa gainera. Ezker hegaletik erdiraketa ona jaso zuen Badiolak, eta baloia airean zetorrela nahikoa izan zuen salto egin, hanka ondo kokatu eta baloiari nahi zuen norabidea ematea. Erraz esaten da, baina gola egitea ez zen horren erraza. Eta hor Aloñako atezainak ezin zuen ezer egin (0-2).

**BIGARRENEAN ERASORA**

Markagailuan atzetik zirela ikusita Aloñak erasora egin zuen atsedenaldiaren ostean. Baina, jokoaren erritmoa berriro errekuperatu aurretik Ondarroak hirugarrena egin zuen. Kontraeraso azkarra egin, eta oraingoan Lopez golegile, Badiolaren paseari esker (3-0).

Ikusitakoak ikusita Zubiak Moiua eta Astigarraga zelairatu zituen hurrengo minutuan, eta

**OHOREZKO ERREGIONALA** > 7. JARDUNALDIA

# Mondrako jokalarien ezintasun aurpegiak

Ordiziak Mondraren areara iritsi zen bakoitzean gola egin zuen; hori ikusita, jokalariek etsita amaitu zuten partidua

MONDRA

**0-4**

ORDIZIA

**Mondra** > Mikel, Azpeitia (Arregi, 57.min), Illart (Garmendia, 77. min), Laspiur, Zabaleta, Unai, Garin, Jokin (Garikoitz, 62.min), Muruamendiaraz, Bereziartua, Heriz (Ormaetxea, 67.min).

**Ordizia** > Antxon, Fernandez, Esnaola, Imaz, Gonzalez, Lizarraga, Ekain, Julen, Iñigo (Mikel, 63.min), Crespo (Iñigo, 72.min), Gisasola (Ander, 82.min).

**Epailea** > Sanchez jauna. Txartel hori bakarra ere ez zuen erakutsi.

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Epaileak partiduaren amaiera adierazten duenean, bada modu bat norgehiagoka horretan zer gertatu den jakiteko. Jokalariak normalean luzaketak egitera zelairatzen dira berriro, eta euren keinuek, irribarreek edota bromatarako gogo ezak erakusten di aurreko 90 minutuetan zer gertatu den.

Bada, zapatuan Mondrako jokalarien aurpegiak ezin argigarriagoak ziren, berri txar bat jaso duenak jartzen du horrelako aurpegia, ezinean dabilenak, aspaldian ez moduan ahalegindu, eta hala ere emaitzarik lortzen ez duenak.

**LAUTAN IRITSI, LAU GOL**

Ordiziaren merituagatik, eta Mondrak emandako erraztasunengatik Ordiziak Mikelen ate ingurura iritsi zen bakoitzean gola egin zuen. Hortxe egon zen bi taldeen arteko aldea, bestela, Ordiziak ez zuen baloi jabetza handiagoa izan, ez zituen gol aukera gehiago izan, eta orokorrean, ez da talde hobea.

Lehenengo 35 minutuetan parean egon ziren indarrak. Tarteka Ordiziak estutzen zuen, tarteka Mondrak. Baina, norbaitek esan zuen partiduak askotan detaile txikiek erabakitzen dituztela, eta 36. minutuan, Mondrak korner bat oparitu zion Ordiziari. Korner bat, ez zen gehiago, edo bai. Arrisku jokaldi bat, azken batean, eta markaketan huts eginda, Xabier Gisasolak buruz errematatu zuen barrura (0-1).

Hurrengo jokaldian epaileak aukera paregabea izan zuen Mondraren alde penaltia adierazteko, Muruari elastikotik heldu ziotelako nabarmen. Baina, Arrasatekoa ez zen lurrera erori, eta epaileak inoiz ez dira ausartzen horrelakoak adieraztera. Erasoan Mondrak ezker hegaletik egin zituen ahalegin gehienak, eta eskuinaldean Garin etsita zegoen, baloi bakarra ere iristen ez zitzaiolako.

Bigarren zatia hasi eta 10. minutuan egin zuen Ordiziak 0-2koa. Atzealdetik jokoa hasi guran, pasean asmatu ez eta baloia lapurtuta Ordiziako jokalaria ia area txikiraino sartu zen jaurtiketa egin aurretik (0-2). Orduan etorri ziren Mondraren minuturik onenak, erasorako grina handiena, baina ezin golik egin. Ordiziak Mondraren ate ingurura iritsi zen hirugarren aldian hirugarren kolpea eman zuen, eta laugarrenean, Ordiziako hegaleko jokalaria korner inguruan jokaldia egiten hasi, eta area txikiraino iritsi zen, defentsa lanetan zebiltzan gizon guztiak gainditu. Normalak Mondrako atezainaren haserre keinuak.



Jon Azpeitia, Ordiziako jokalaria presionatzen, zapatuan. XABIER URTZELAI


zegoen Aginaga marrazainaren begiradapean. JOSETXO ARANTZABAL

minutu gutxira zelairatu zituen Igartua eta Barrena, haize fresko bila.

Orduan egin zuen Aloñak bultza, baina ordurako Ondarroako Aurrerak eginak zituen etxerako lanak, eta puntan aurrelari bakarra utzita, lerroak atzeratu eta defentsa lanetara mugatu ziren. Astigarraga behin baino gehiagotan ahalegindu zen eskuin hegaletik jokaldiak egiten. Arrola gogotsu ibili zen defentsekin lehian eta Jon Igartuak ere izan zuen gola egiteko aukera, nahiz eta jaurtiketa jarrera behartuan egin. Olaldek egindako burukadek ere estutu zuten Izagirre, baina argazkirako posatzen balego moduan urrundu zituen baloiok.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > 7. JARDUNALDIA

# Euskaldunak gogotik ordaindu zuen Bergarak bertsiorik onena erakutsi izana

Bergarak futbol erakustaldia eman zuen zapatuan Agorrosinen; Iltzarbek hat-tricka eginda amaitu zuen partidua

BERGARA
**6-2**
EUSKALDUNA


Euskaldunako jokalaria baloia urruntzen, lurretik. JOSETXO ARANTZABAL

**X.U.** > BERGARA
Bergarak ez ditu baloiak oparitzeko izango, baina zapatuan Markel Iltzarbek lasai asko eraman zezakeen partidukoa etxera, partidu berean hiru gol egitea ez da-eta ohikoena. Baina, Iltzarberen golengatik baino Bergarak emandako erakustaldiagatik gogoratuko dute zale mahoneroek zapatuko partidua, biribila izan zelako.

Bergarak bi aste behar izan ditu zulotik zerura salto egiteko. Zuria ala beltza. Konfiantza barik ibiltzetik aspaldiko futbol onena errekuperatzera, hemen ez dago erdibiderik. Zapatuan, Bergara dantzan ibili zen Euskaldunaren kontura, edo dantzan ibili zuen baloia batetik bestera, kontrarioa galbidera eraman arte.

Lehenengo zatiaren amaieran Manu Diazen mutilak 3-0 ziren aurretik. Eta, 60. minuturako 6-0. Hor, Bergara lasaitu egin zen, eta Euskaldunak bi penalti baliatu zituen markagailua *txukuntzeko*: "Oso partidu ona egin dugu, aspaldi ez modukoa. Oso azkar erabili dugu baloia, pase mordoa eginez eta aspaldiko jokoa errekuperatuz", adierazi zuen Diazek, partidu amaieran pozik. Iltzarberekin batera, Loiolak, Oterok eta Agirrek egin zituzuen golak.

**HIRUGARREN MAILA** > 11. JARDUNALDIA

# Etxetik kanpora ezustea eman zuen berriro UDAk

GERNIKA
**1-3**
ARETXABALETA

**X.U.** > ARRASATE
Aretxabaletak urrezko beste hiru puntu batu zituen atzo Gernikaren zelaian. Gainera, Gordobilen eta Arenazaren mutilek zailena egin zuten, hasierako minutuetan gola jaso, eta hala ere, markagailuari buelta emateko gauza izan ziren. Atsedenaldia baino lehenago, Borja Luisek 42. minutuan erdiraketa bat ondo errematatuta egin zuen banakoa.

Bigarren zatian oso ondo jokatu zuen Aretxabaletak, eta egindako taldeko lanak fruituak eman zituen. 1-2koa Garaik lortu zuen baloi geldiko jaurtiketa batean, eta lasaitasunaren gola Oinatzen eskutik etorri zen (1-3).

Duda barik ligan ezuste handiena eman duen taldea, Aretxabaletak etxean hobetzea du hurrengo erronka. Datorren domekan, Beasain, Ibarran.

## Mondrako neskak liderrago Arizmendi futbol taldeari 7-0 irabazi eta gero



Zapatu arratsaldean derbia jokatu zuten lehenengo postuan dagoen Mondrak eta jardunaldia jokatu aurretik laugarren lekuan zegoen Arizmendik. Eta, Mondrako neskek argi erakutsi zuten zergatik diren lider, jokatutako bost partiduak irabazita. Arizmendik defentsa lanetan jardun zuen partidu osoa, baina ahalegindu zen kontraerasoekin Mondra ezustean harrapatzen. Ez zen posible izan. Argazkian, Arizmendiko Amaia eta Mondrako Tania, lehian.

XABIER URTZELAI



KOOP. E.
EGUZKIGRAF
inprimategia
Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

**EUSKADIKO TXAPELKETA** > SEIGARREN JARDUNALDIA

# Azken momentuan heldu zen berdinketa

## Arrasatearrek ez zuten seigarren garaipena erreskan lortzerik izan eta puntu bakarra geratu zen etxean



Iker Zubiaurre, Romoko atezainarekin aurrez aurre. JOSETXO ARANTZABAL

FORD MUGARRI ARRASATE
**27-27**
ROMO

**Ford Mugarri** > Kalle, Alzelai (2) Jonan. Esquibel (2), Aitor Esquibel (3), Zubiaurre (1), Masip, Olabarria, Santos, Aldanondo (11), Calleja (1), Isasmendi (4), Herrero,(1), Aranburuzabala, Arrese (2)..

**Romo** Merino, Juaristi (1), Zurdo (3), Latorre (1), Del Olmo (1), Lopez (2), Marin, Justo (4), justo (4), Gomez (2), Vicente, Martinez (10), Etxeberria, Endika, Gaztelu (3).

**Epaileak** > Melchor Vicario eta Pablo Garcia.

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Berdindua izan zen oso zapatu arratsaldean Ford Mugarrik Bizkaiko Romo taldearen kontra jokatutako partidua.

Gogoz irten ziren kantxara bi taldeak, eta arrasatearrak izan ziren lehenengo gola markatu zutenak. Ia lehenengo zati osoan etxekoak markagailuan aurretik joatea lortu zuten, baina gol errentak ez ziren oso handiak izan. Hala, atsedenaldira, 11-8 emaitzarekin joan ziren. Aurretik, baina, arrasatearrek jokalari garrantzitsu bat galdu zuten, Josu Herrerok min hartu zuen-eta.

.

**ROMOREN DEFENTSA ALDAKETA**

Atsedenaldiaren ostean, jokoa gogortu egin zen. Hasieran behintzat, Ford Mugarrik egoera kontrolpean zuela zirudien, baina ez zuten jakin bizkaitarrek defentsan egindako aldaketei erantzuten. Horren ondorioz, bien arteko aldea murrizten joan zen eta partiduaren bukaera aldera, Romok aurrea hartzea lortu zuen. Azken minutura, 26-27 emaitzarekin heldu ziren eta berdinketaren tantua Aldanondok sartu zuen penaltiz. Asko borrokatuta, baina azkenean puntu bat eskuratzea lortu zuten arrasatearrek.

**EPAILEEKIN HASERRE**

Epaileen lanak txistu asko jaso zituen partiduan, eta Edu Orgaz arrasatearren entrenatzailea haserre zegoen neurketa amaieran. "Argi dago partiduak geuk galtzen edo irabazten ditugula, baina gaurkoan, epaileetako batek akats ugari egin ditu, eta hori ere jakinarazi egin behar da", adierazi zuen Orgazek.

Zapatuko garaipenarekin, Euskadiko Txapelketan lider izaten jarraitzen du Ford Mugarrik. Hurrengo jardunaldian, Corazonistas izango da aurkaria.

**Edu Orgaz** > Ford Mugarriko entrenatzailea

## "Ez genuen espero hain ondo hastea"

**T.M.** > ARRASATE

**Denboraldi hasiera bikaina izan du Ford Mugarrik aurten: sei partidutik bost irabazi dituzte, eta sailkapenean lehenengoak dira.**



T.M.

**Nola ikusten duzu denboraldi hasiera? Non egon da gakoa?**

Aurreko urteko lanak asko balio izan digu; fisikoki talde gogorra dugu eta joko azkarra egiten dihardugu. Joko sistema eta defentsa ere hobetzen joan gara. Ez genuen hain ondo hasterik espero, baina argi dut faboritoak beste batzuk direla: egin behar duguna da aurrean mantentzen saiatu, faboritoek huts eginez gero aprobetxatzen saiatzeko.

**Emaitzok ikusita, hasi zarete dagoeneko amesten?**

Ez. Denboraldiko 26 partidutik sei bakarrik jokatu ditugu. Gainera, oraindik badugu zer hobetu. Egin behar duguna da gogor lanean jarraitu.

**EUSKADIKO SENIOR MAILA** > LEHENENGO JARDUNALDIA

# Estreinaldiko urduritasunak, oñatiarren etsai



Arantzazu Arabaolaza oñatiarra gola sartu guran. JOSETXO ARANTZABAL

VERKOL ALOÑA
**16-24**
URDAIBAI

**T.M.** > OÑATI

Maila aldaketak ez dira inoiz errezak izaten, eta maila berrian jokatzearen urduritasunak garesti ordaindu zituzten zapatuan Verkol Aloñako neskek.

**DEFENTSAREKIN ARAZOAK**

Urdaibai taldea zen mendean hartu beharrekoa, baina bizkaitarrek ez zituzten gauzak errez jarri. Defentsa zabala egiten hasi ziren; Aloñakoak ez ziren trebe ibili eta kosta egin zitzaien defentsa hori gainditzea. Urdaibairen defentsa atzera joan zenean, baina, etxekoek aukera aprobetxatu eta aldea murriztea lortu zuten. Hala, atsedenaldira gol bat atzetik heldu ziren oñatiarrak.

Bigarren zatian, baina, urduritasunak presaka jolastea ekarri zuen. Horren ondorioz, baloi ugari galdu zituzten Aloñakoek eta partiduaren laurden baten jokalari bat gutxiagorekin jokatu izanak ez zuen gehiegi lagundu.

Neurketaren ostean, Ainhoa Unamuno oñatiarren entrenatzaileak onartu zuen ez zutela partidu ona jokatu, baina hobetzeko gogoz daudela ere gaineratu zuen. Baina zapatuan, ez ziren guztiak atsekabeak izan: hain zuzen ere, aurreko urtean kategoriako lehenengoak izatearren, saria jaso zuten oñatiarrek.



Verkol Aloña taldea jasotako sariarekin JOSETXO ARANTZABAL

**ESKUBALOIA**

# Aloñako gaztetxoek ere, zorterik ez

**T.M.** > OÑATI

Euskadiko emakumezkoen kadete eta gazte mailako denboraldiaren bosgarren jardunaldia egon da jokoan asteburuan, eta bi mailetan Verkol Aloñako nesken taldeek ez dute punturik lortzerik izan, biek ala biek galdu egin dute-eta.

**AURKARIA, BASAURI**

Atzo goizean jokatu zituzten partiduak, biek ere Basauriko taldeen kontra. Gazte mailakoen kasuan, 12-8 izan zen azken emaitza, beti ere bizkaitarren alde.

Kadeteetan ere, lau goleko aldeagatik galdu zuten oñatiarrek; partidua amaitzean, 17-13 zegoen markagailuan.

Datorren astean, gazteek Eibar izango dute aurkari; kadeteek, Elgoibar.

**EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA** > BIGARREN JARDUNALDIA

# Garaipen garrantzitsua lortu dute eskoriatzarrek jokatutako lehen partiduan

Lehen zatiko bigarren laurdenean etxekoek defentsa gogortu zuten; donostiarrei aldea ateratzen hasi ziren orduan

ESKORIATZA
**58-37**
TECNUN


Eskoriatzarrak kontraerasoan ondo ibili ziren bigarren zatian. JOSETXO ARANTZABAL

**J.ZABALA-M.BITERI**> ESKORIATZA
Lehenengo jardunaldian atseden izan ostean, zapatuan saskibaloiko emakumezkoen senior mailan denboraldiko lehen partidua jokatu zuten eskoriatzarrek. Ezin hobeto hasi ziren, Donostiako Tecnun taldeari irabazi zioten-eta (58-37).

Norgehiagoka nahiko berdinduta hasi zen eta lehen laurdena nahiko parekatuta amaitu zen. Bigarrenean, baina, etxekoek defentsa gogortu zuten eta horrek eragina izan zuen markagailuan. Denbora gutxian hamar puntuko aldea lortu zuten (21-11). Aipatzekoa da zati horretan donostiarrek saskiratze bakarra egin zutela. Atsedenaldira 25-15 iritsi ziren.

**KONTRAERASOAN ONDO**
Bigarren zatiko lehen laurdenean Fernando Rasoren neskek defentsa gogorra mantentzeaz gain, kontraerasoetan asmatu zuten eta aldea handitzea lortu zuten; donostiarrek baloi asko galdu zituzten eta etxekoek egoera horretaz baliatu ziren 11-0 partziala egiteko (41-23). Alde horrekin, azken laurdenean lasaiago jokatu zuten etxekoek; defentsan ahulago ibili ziren. Partidu amaierara 58-37 iritsi ziren.

**GIZONEZKOEN LEHENENGO MAILA** > 4. JARDUNALDIA

# MU porrot berriarekin bueltatu zen atzo Loiutik

URDANETA
**75-59**
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**M.B.** > ARRASATE
Gizonezkoen lehenengo mailan, Mondragon Unibertsitateak ezin izan zuen atzo Urdanetaren kontra irabazi. Loiun jokatutako partidua 75-59 amaitu zen.

Nahiko ondo hasi zuten norgehiagoka Ointxeko jokalariek eta atsedenaldira iristean, oraindik partiduari buelta emateko aukera zegoela ematen zuen; bizkaitarrek 10 puntu goitik zeuden markagailuan.

**HIRUGARREN LAURDENEAN**
Baina, Javi Zurbanoren mutilek ez zuten behar bezala erreakzionatu eta hirugarren laurdenean alde hori azkar handitu zuten bizkaitarrek. Urdanetakoek 20 puntuko aldea lortu zuten eta partidua erabakita geratu zen. Sailkapenean azkenak daude orain arrasatearrak.

**GIZONEZKOEN GIPUZKOAKO SENIORRAK** > 2. JARDUNALDIA

# Aloña Mendik denboraldiko lehenengo garaipena lortu du

**M.B.** > OÑATI
Gipuzkoako Senior mailako txapelketan, Aloña Mendik denboraldiko lehen partidua irabazi zuen zapatu arratsaldean, etxean. Soraluce BKE B taldearen aurka jokatutako norgehiagokan, markagailuan hamahiru puntuko aldea ateratzea lortu zuten oñatiarrek, Zubikoan (67-54). Garaipen horren ondotik, sailkapenean hirugarren daude orain.

Bestalde, asteon, Mondragon Unibertsitatearen kontra lehiatuko dira oñatiarrak, aurkarien kantxan. Partidua zapatuan izango da, 16:00etan, Musakolako kiroldegian.

Zenbaki
Aholkulariak

TÜV
TÜV Internacional
Grupo TÜV Rheinland
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000

PROFESIONAL BAIMENDUNA
GARANTIA DE ALQUILER
902 21 21 92
OÑATEKO AHOLKUA



ENPRESEN AHOLKULARIAK
Juridikoa
•
Laborala
•
Fiskala
•
Kontabilidadea

KUOTA BAKARREAN, ENPRESAK BEHARREZKO DITUEN ZERBITZU GUZTIAK ESKAINTZEN DITUGU.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

**EUSKADIKO TXAPELKETA** > 1. JARDUNALDIA

# Isasi: "Jarrera honekin etorriko dira emaitza onak"

KANPANZAR-ART
**0-32**
ELORRIO

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Kanpanzar ART taldeak ligako lehenengo jardunaldian hartu du denboraldiko lehenengo kolpea: "Lehenengoa, eta begi artean, gainera", adierazi zuen partidu amaieran Igor Isasik

Arrasateko mutilek gainontzeko taldeek baino beranduago hasi dute liga, Maritxu Kajoiren asteburuan jardunaldia atzeratzea erabaki zutelako, eta ondoren atseden izan dutelako. Eta, Elorrio, berriz, bi jardunaldi jokatuta etorri zen zapatuan Mojategira, eta berdegunean igarri egin zen hori: "Gehienbat Elorrio garaipen beharrean zegoelako. Lehenengo bi partiduak galdu egin ditu Elorriok, eta Arrasatera larri etorri dira. Itsu-itsuan etorri dira partidua irabaztera, eta hor gu baino hobeto ibili dira".

**AITZAKIA BARIK**

Porrotaren aurrean, Isasik ez zuen aitzakiarik erabili, nahiz eta epailearen lanarekin ez zen batere pozik: "Baina puntu bakarra ere batu ez duzunean ezin zara aitzakiak bilatzen ibili".

Elorriok partidua hasi eta hamar minutura egin zuen lehenengo entsegua, eta bigarren zatian bizkaitarrek ez zuten behera egin, azken unera arte ibili ziren borrokan: "Gure taldeko kapitain Ander Herizek min hartu eta aldagelara joan denean igarri egin dugu. Taldeak behera egin du hor".



**EZKERRETIK** Elorrioko hegala ezker aldetik jokaldia egin guran. XABIER URTZELAI

Markagailuak bi taldeen artean egon den aldea erakusten badu ere, Isasi pozik zen taldekideek izandako jarrerarekin: "Emaitzarekin ezin naiz pozik egon, bistakoa da hori, baina taldekideak elkarri animatzen ibili dira uneoro, eta berdegunera behar den agresibitateaz zelairatu gara. Bistan da gaur ez dela gure egun onena izan, baina jendea oso serio dabil entrenatzen, eta jarrera horrekin berehala iritsiko dira emaitzak. Ez daukat dudarik".



**TALDE ARGAZKIA** Hau da Igor Isasik zelairatutako hasierako taldea. X.U.

**KIROLDEGIA**

## AUKEAK podometroa oparituko dizue

**X.U** > ARRASATE

AUKEA-k podometroa oparituko dio azaroaren 13a baino lehenago ondorengo ikastaroren batean izena ematen duenari: spining (20:30ean, astelehen eta eguaztenetan), funky helduak (18:30ean, egubakoitzetan), Body balance (10:15ean, egubakoitzetan), eta Body jam (19:30ean, martitzenetan). Body balance yoga, tai-chi eta pilates batzen dituen saioa da.

> SQUASH-A

### Euskadiko squash txapelketa datorren asteburuan Arrasaten

Euskadiko Squash Txapelketa egingo dute datorren asteburuan Arrasaten, eta txapelketan esku hartu gura duenak gaur du izena emateko azken eguna 656 736 017 telefono zenbakira deituta (15 euro). Informazio gehiago, *www.squasheuskadi.com.*

## Futbola

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Real Sociedad B** | **24** | 11 |
| 2. **Amorebieta** | **22** | 11 |
| 3. **Zalla** | **22** | 10 |
| 4. **Beasain** | **21** | 11 |
| 5. **Gernika** | **18** | 11 |
| **6. Aretxabaleta** | **18** | 10 |
| 7. **Zamudio** | **17** | 11 |
| 8. **Basconia** | **17** | 11 |
| 9. **Amurrio** | **16** | 11 |
| 10. **Arenas de Getxo** | **15** | 11 |
| 11. **Elgoibar** | **14** | 11 |
| 12. **Laudio** | **13** | 11 |
| 13. **Durango** | **12** | 11 |
| 14. **Leioa** | **12** | 11 |
| 15. **Santurtzi** | **12** | 11 |
| 16. **Portugalete** | **11** | 11 |
| 17. **Lagun Onak** | **10** | 11 |
| 18. **Retuerto Sport** | **8** | 11 |
| 19. **Eibar B** | **7** | 11 |
| **20. Salvatierra** | **6** | 11 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Laudio-Retuerto | 1-0 |
| Santurtzi-Amorebieta | 1-2 |
| Arenas-Reala | 1-1 |
| Lagun Onak-Eibar | 2-0 |
| Zalla-Leioa | 2-0 |
| Gernika-**Aretxabaleta** | 1-3 |
| Beasain-Salvatierra | 3-0 |
| Cult. de Durango-Amurrio | 2-2 |
| Basconia-Portugalete | 1-1 |
| Zamudio-Elgoibar | 2-0 |

**Hurrengoak**

**Aretxabaleta**-Beasain

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Ondarroako Aurrera** | **21** | 7 |
| 2. **Pasajes** | **15** | 7 |
| 3. **Hondarribia** | **14** | 7 |
| 4. **Oiartzun** | **14** | 7 |
| 5. **Zarautz** | **13** | 7 |
| 6. **Ordizia** | **12** | 7 |
| 7. **Idiazabal** | **10** | 7 |
| 8. **Bergara** | **10** | 7 |
| 9. **Aloña Mendi** | **10** | 7 |
| 10. **Hernani** | **10** | 7 |
| 11. **Trintxerpe** | **10** | 7 |
| 12. **Berio** | **9** | 7 |
| 13. **Tolosa** | **9** | 7 |
| 14. **Euskalduna** | **5** | 7 |
| 15. **Mondra** | **4** | 7 |
| 16. **EHU Vasconia** | **4** | 7 |
| 17. **Beti Gazte** | **4** | 7 |
| 18. **Real Union** | **3** | 7 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Beti Gazte-Berio | 1-0 |
| Aloña Mendi-Aurrera Ond. | 0-3 |
| Bergara-Euskalduna | 6-2 |
| Tolosa-Trintxerpe | 0-2 |
| Hondarribia-EHU Vasconia | 2-1 |
| Pasajes-Idiazabal | 5-0 |
| Real Union-Zarautz | 0-0 |
| Mondra-Ordizia | 0-4 |
| Oiartzun-Hernani | 1-0 |

**Hurrengoak**

Berio-**Aloña Mendi**
Aurrera Ondarroa-**Bergara**
Zarautz-**Mondra**

### BESTELAKOAK

| | |
|---|---|
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Aretxabaleta-Danok Bat | 0-2 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Getxo-Bergara | 0-0 |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Lazkao-Antzuola | 4-2 |
| Aretxabaleta B-Orioko | 0-0 |
| **LEHEN ERREGIONALA** | |
| Bergara-UDA Arizmendi | 2-1 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Orioko-Mondra | 3-1 |
| Zumaiako-Aloña Mendi | 2-1 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA** | |
| Arizmendi-Urola | 2-1 |
| Aretxabaleta B Arizmendi-Bergara | 5-1 |
| **OHOREZKO KADETEAK** | |
| Bergara-Amaikak Bat | 5-3 |
| Ordizia-Aretxabaleta Arizmendi | 1-1 |
| Beasain-Aloña Mendi | 3-0 |
| **KADETEEN 1. MAILA** | |
| Arrasate-Bergara | 2-0 |
| Aloña Mendi-Arizmendi | 5-0 |
| Aretxabaleta B-Elgoibar | 1-4 |
| **INFANTILEN OHOREZKO MAILA** | |
| Anaitasuna-Arrasate | 0-8 |
| Aretxabaleta-Arizmendi-Eibar | 1-1 |
| Aloña Mendi-Bergara | 5-4 |
| **EMAKUMEZKOEN LIGA** | |
| Bergara-Elgoibar | 0-2 |
| Amaikak Bat-Aloña Mendi | 2-2 |
| Mondra-Arizmendi | 7-0 |

## saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **SENIORRAK LEHENENGO MAILA** | |
| Urdaneta-Mondragon Unibertsitatea | 75-59 |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Soraluce BKE-Santo Tomas Lizeoa | 55-72 |
| Aloña Mendi-Soraluce BKE | 67-54 |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Eskoriatza-Tecnun | 58-37 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Easo A-Mondragon Unibertsitatea | 71-67 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Premank BKL-Eskoriatza | 5-46 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Mondragon Un. A-Caldereria Zaher | 59-75 |
| **KADETE NESKAK** | |
| Soraluce BKE-Andraitz | 30-31 |
| Colchones Atseden-Aloña Mendi | 17-62 |
| **INFANTIL MUTILAK** | |
| LEK-Kirol Aukera ISB | 16-97 |
| Servimasa BKE-BKL A | 11-53 |

## eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO SENIORRAK, GIZONEZKOAK** | |
| Ford Mugarri Arrasate-Romo Indup. | 27-27 |
| **EUSKADIKO SENIOR T. EMAKUMEZKOAK** | |
| Verkol Aloña Mendi-Urdaibai | 16-24 |
| **GAZTEEN EUSKADIKO T. EMAKUMEZKOAK** | |
| Atletico Basauri-Verkol Aloña Mendi | 17-13 |
| **KADET. EUSKADIKO T. EMAKUMEZKOAK** | |
| Atletico Basauri-Verkol Aloña Mendi | 12-8 |
| **GIPUZKOAKO LEHEN TERRITORIALA** | |
| Soraluce BKE-Amenabar | 30-32 |
| **GIPUZKOAKO BIGARREN TERRITORIALA** | |
| Tolosa-Arrasate | 30-24 |
| **GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK** | |
| Leizaran-Bergara Soraluce | 27-19 |

## errugbia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO TXAPELKETA** | |
| Kanpanzar ART-Elorrio | 32-0 |

Harmailatik
**Debagoieneko kirola GOITBn**
Astelehenero 22:15ean.
Goitb Goiena Telebista
*Ikustekoa!*




Xabier Oñederra bere autoaren aurrealdean; probetan beste auto bat erabiltzen du, baina orain tailerrean dauka. A.E.

Xabier Oñederra > 4x4 autoetako pilotua

# "Trialetan abilezia da beharrezkoa, harriak eta zuloak saihestu behar dira"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA

**Xabier Oñederra aretxabaletarra Euskal Herriko 4x4 txapelketan laugarren postuan geratu da. Azkeneko triala joan zen zapatuan Eskoriatzan egin zuten. Antolatzaile eta parte-hartzaile izan zen Oñederra. Harekin izan gara, eta esan digu zirkuitu baten beharra dutela.**

**Zorionak lehenengo eta behin. Azkenean, hirugarren beharrean laugarren geratu zara, baina emaitza ona izan da!**

Bai, hala da. Domekan, proba amaieran gaizki egin genituen kalkuluak eta hirugarren geratu nintzela uste genuen, baina azkenean laugarrena izan naiz. Pozik nago, baina ez diot garrantzi larregirik ematen. Nahiago dut egunero, trialetan, ondo ibiltzea.

**Noiz hasi zen Euskal Herriko txapelketa, eta nolakoa izan da zure lana?**

Guztira zazpi trial izan dira apirila inguruan hasi eta orain arte. Ez dut guztietan parte hartu, trial batzuetan autoa apurtuta izan dut-eta. Hala ere, parte hartu dudan guztietan lortu ditut puntuak. Eboluzio ona izan dudala esan daiteke.

**Lehenengo aldiz jokatu da aurten Euskal Herriko txapelketa, baina beste urte batzuetan nola ibili izan zara?**

Emaitzak onak lortu izan ditut. Erandion egiten den triala adibidez, guretzat onena izaten da, baina ez da txapelketarako puntuagarria. Han, adibidez, bigarren egin dut eta niretako hori garrantzitsuagoa da Euskal Herriko txapelketan laugarren geratzea baino.

**Euskal Herriko txapelketan puntuatzeko ze baldintza bete behar dira?**

Baldintza da gutxienez hiru trialetan parte hartu behar izatea. Eskoriatzako trialean, adibidez, 3., 4. eta 5. geratu zirenek bi trial bakarrik egin zituzten; hortaz, horiek ez dute Euskal Herriko txapelketarako puntuatu. Guk gaizki egin genituen buruketak, eta uste izan genuen horiek puntuatuz gero, ni hirugarren postuan geratuko nintzatekeela.

**Noiztik duzu motorrekiko zaletasuna?**

Orain dela sei urte gutxi gora behera, hasi nintzen 4x4 trialetan parte hartzen. Modalitate honetan hasi aurretik, autokrosean ibilitakoa naiz. Herrietan egiten ziren autokrosak, orain ez dira egiten.

**Kirol hau ezagutzen ez dutenei nola azalduko zenieke zer den 4x4 triala?**

Abilezia da, batez ere. Esan behar da pilotu-lagunak ere lan handia egiten duela proba mota hauetan; ez da pilotua bakarrik lanean dabilena. Beste auto proba batzuetan abiadurak garrantzi handia dauka; hemen ez. Zuloak, harriak... saihestea da kirol honen eginbeharra. Horretarako, pilotua eta pilotu-lagunaren arteko elkar-ulertze ona beharrezkoa da.

Esan daiteke motorren mundua abiadura dela; bada, modalitate honetan poliki joan beharra dago.

> **"Pilotu-laguna beti auto kanpoan joaten da, eta ezin du autoa ukitu. Laguntzea da bere lana"**
>
> **"Lur sail egokia behar dugu probetarako; hala, urtean bat baino gehiago egingo genuke"**

**Rallyetan ez bezala, 4x4 modalitatean pilotu-laguna autotik kanpo joaten da.**

Hori da, beti dago autotik kanpora. Ezin du autoa ukitu eta kontrapisua egin beharra baldin badauka, soka batzuk erabiltzen ditu. Gainera, bere eginbeharra da harriak eta zuloak non dauden azaltzea. Pilotuak, barrutik, ez ditu detaile asko ikusten.

**Eskoriatzan Basurdeak 4x4 taldea duzue. Noiz sortu zenuten elkartea?**

Eskoriatzan Eskomotor sortu zenean asmoa zen hainbat motor modalitate batzea elkarte berean. Azkenean, lur orotako ibilgailuak bakarrik geratu dira. Orain dela zazpi urte sortu genuen, gutxi gora-behera. Lehen pilotu asko ibiltzen ginen, orain gutxiago gara.

**Elkartea sortu zenutenetik antolatzen duzue triala?**

Bai, urtero egin izan dugu txapelketaren bat.

Niretako abantaila den zirkuitua ezagutzea? Ez, urtero zirkuitu berria egiten dugu-eta.

**Horregatik lur-sail baten beharra ikusten duzue, zirkuitu egokia izan dezazuen.**

Bai, hori da. Lur-sail egoki bat izango bagenu, zirkuitu aproposa egingo genuke; eta, modu horretan, urtean proba bat baino gehiago prestatzeko aukera izango genuke. Guri komeni zaigu lur-sail bat sarrera ona izango duena eta nahikoa toki izango duena jendea joateko.

**Ze erantzun jasotzen duzue udalen partetik?**

Urtero eskatu dugu Eskoriatzan, baina lurrik ez dagoela esaten digute. Aurten, Aretxabaletan ere eskatu dugu.



Wifi sistemaren instalazio bat. NEO2001

TEKNOLOGIA BERRIAK > OSASUNA

# Ikastetxeetan wifi-a kentzea eskatu dute

Wifi uhinak umeendako arriskutsuak direla ohartarazi dute Euskal Autonomia Erdikegoko hamabi taldek

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Haurren osasuna zaintzeko, ikastetxeetan wifi loturak kentzeko eskatu dute Euskal Autonomia Erdikegoko Kutsadura Elektromagnetikoaren Aurkako Taldeek, EILAS, ELA, ESK eta LAB sindikatuen babesarekin.

Interneterako sarbidea ematen duten wifi uhinak haurrendako arriskutsuak direla ohartarazi dute hamabi taldek. "Haurren hazkunde osasuntsua dago jokoan", diote. Hiru herrialdetako ikastetxe gehienek interneterako loturak dituzte kable bidez, taldeon esanetan. Ez dute, beraz, wifiaren beharrik ikusten, eta erabiltzeari utzi beharko litzaiokeela uste dute. "Prebentzioaren irizpidea" jarraitu behar litzatekeela, alegia. *Berria* egunkarian jaso duten moduan, antena eta uhinek bizidunengan duten eraginarekin kezkaturik dauden hamabi taldek osatu zuten plataforma, Euskal Herriko Kutsadura Elektromagnetikoaren Aurkako plataforma. Hark egin du ikastetxeetatik wifia kentzeko proposamena, eta sindikatu gehienen sostengua jaso du: EILAS, ELA, ESK eta LAB sindikatuek babestu dute eskaera. Ikastetxeetan kanpaina hasiko dute, elkarrekin, plataformak eta lau sindikatu horiek. Europako Parlamentuko "ia talde guztiek" onartu zuten, apirilean, "prebentzio irizpidea", kutsadura elektromagnetikoaren aurkako plataformak oroitarazi duenez.

HARRERA > IZEBA PROIEKTUA

## Adingabe atzerritarrak ilobatzat hartzea

Ordezko izeba-osabak ume horiendako maitasun iturri eta erreferente izatea da helburua

O.E. > ARRASATE

Baketik bake zentroaren ideia izan da Izeba proiektua eta Gipuzkoako Aldundiarekin batera jarri du abian. Helburua da harrera zentroetan dauden adingabe atzerritarrak iloba moduan hartuko dituzten familiak bilatzea. "Izan daiteke aldiro aldiro telefonoz deitzea, astean behin bazkaltzera gonbidatzea, arropa erosten laguntzea edo hizkuntza ikasten laguntzea", azaldu du Baketik bake zentroko zuzendari Jonan Fernandezek.



Ume bat ziburuetan. ANTOLAZAZD

### KANPAINA ABIARAZIKO DUTE

Ordezko izeba-osabak harrera zentroetan dauden adingabeko atzerritarrendako maitasun iturri eta erreferente izatea da Izeba proiektuaren helburua. Egitasmoaren bultatzaileek diote gaztetxo horiendako euskarri afektiboa eta gizarteratzeko bidea ere izan daitekeela, gainera, Izeba proiektua.

Izeba egitasmoa joan den astean aurkeztu zuten eta Aldundiak kanpaina abaiaraziko du familiak animatzeko.

PREBENTZIOA > GIDALIBURUA

## Nerabeen alkoholismoaren informazioa, gurasoendako

Alkoholaren kontsumoa gizartean onartuta egoteak izan ditzakeen arriskuak ere badakar

O.E. > ARRASATE

Nerabe eta gazteen alkohol kontsumoari buruzko informazio eta aholku gida argitaratu du gurasoendako Ordiziako Udaleko drogamendekotasun prebentzio zerbitzuak. Besteak beste, nerabe eta gazteek edaten duten alkohol kontsumoaren inguruko datuak eta kontsumo hori gizartean onartua egoteak izan ditzakeen arriskuak jasotzen ditu Ordiziako Udalak gurasoendako atera duen *Eta alkoholarekin zer?* izeneko gidak. Goierriko postontzi eta ikastetxeetan banatuko dute gidaliburua.




Gidaliburuaren azala. ORDIZIAKO UDALA

LEGEA > TARIFAZIO GEHIGARRIA

## Telefono zenbaki jakinen deskonexioa eskatu daiteke

Tarifazio gehigarria duten telefonoetan aplikatu daiteke, ume eta gazteek ez deitzeko

O.E. > ARRASATE

Telebista saioetako telefono zenbakietara ez deitzeko aukera dagoela, legez, dio Onintze Guridi abokatuak. "Kasu gehienetan, tarifazio gehigarria duten telefono zenbakiak izaten dira: 803, 806, 807... eta azken aldian batez ere 905 aurrezenbakia dutenak. 2009ko urtarriletik, kodigo horien deskonexioa eskatzeko eskubidea dugu telekomunikazioen erabiltzaileok, eta telefono-operadoreek obligazioa dute deskonexio hori gauzatzeko. Kasu horretan, gure telefonoetatik ezin izango da deitu zenbaki horietara".



Telefonoz berba egiten. CHANDALTOCHO

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> FUSIOA**
Organo erromantikoaren ziklo itxieran, txistua eta kantua ere lagun **> 30**



**> PURO CHILE**
Rock-and-rolla eta doinu beroak, musikari beteranoen eskutik **> 30**



**> BERTSOLARITZA**
Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra, finalderdirako sailkatuta **> 32**



Sentimentuz eta grinaz betetako kontzertua eskaini zuen Maria del Mar Bonetek Arrasaten. JOSETXO ARANTZABAL

**MUSIKA** > MARIA DEL MAR BONET

# Mediterraneoko epeltasuna ekarri zuen Bonetek gurera

**TERRA SECRETA**
Azken diskoa zuen Mallorcako abeslariak Arrasaten

**ARRAKASTA**
Entzuleak poltsikoratu zituen erakutsitako xumetasun eta gertukotasunarekin

**NON:** Amaia antzokia.
**EGUNA:** Zapatua, urriak 24.
**ZENBAT JENDE:** 200 lagunetik gora.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Topiko bat izan daiteke Maria del Mar Boneti buruz hitz egiteko, Mediterraneoa aipatzea. Zapatuko kontzertuan, topikoa bete egin zen… Eta eskerrak, hango baretasuna eta goxotasuna ekarri zituen-eta, behar denean bizitasunarekin uztartuta.

**PRESENTZIA SOILAREKIN, NAHIKOA**

Ohiko bere bost musikariekin aritu zen Bonet agertokian: beltzez, adornurik gabe, 40 urteko ibilbidean bildutako jakituria entzuleak bereganatzeko nahikoa dela erakutsiz. Argiztapena sinplea izan zen, sinplea, baina eraginkorra oso: erabilitako koloreek abesti bakoitzari zegokion giroa eman zioten-eta.

Bere azken lanari izena ematen dion kantuarekin hasi zuen emanaldia, Robert Gravesen *Terra Secreta* olerkian oinarritutako kantuarekin, hain zuzen ere. Eta, apurka-apurka, hamabost abesti entzun ahal izan genituen, gehienak Boneten lagun min edo pertsona miresten kanta eta olerkietan sustraituta.

Landareen izenez osatutako Josep Maria Llomparten *Camí Florit*, Joan Manuel Serraten *Canço de l'amor petit* doinu erromantikoa edo gerraren aurka Jordi Guardans letragileak idatzitako *Un exércit* bezalakoak abestuz, Bonetek erakutsi zuen urteak pasa arren, bere ahotsak ñabarduraz beteta jarraitzen duela; behar denean gogor, behar denean goxo. *Salonica* eta *Desde Mallorca al'Alguer* piezekin argi utzi zuen nondik datorren, eta bluesarekin ere ausartu zen *Blues en sol* kantan. Eskertzekoa da, gainera, abesti bakoitza hasi aurretik, letren nondik norakoei buruz azalpenak eman izana.

**BAITA EUSKARAZ ERE**

Bere jatorrizko hizkuntzan ez ezik, euskaraz ere aritu zen Mallorcakoa: *Lili eder bat badut nik* abesti herrikoia ederki asko abestu zuen, bati baino gehiagori oilo-ipurdia jarriz. Lau sokako gitarra joaz, *Jota Marinera* abesti alaiarekin borobildu zuen gaua *Nova canço*-ren dama handiak.



Ezkerretik eskumara Aitor Olea organo jotzailea lehen planoan, Andoni Egaña kantuan eta Jose Ignazio Ansorena. JOSETXO ARANTZABAL

**MUSIKA** > AITOR OLEA, JOSE IGNAZIO ANSORENA ETA JOSEBA EGAÑA

# Organoa ere fusioaren alde dago

**NON:** Bergarako San Pedro elizan.
**EGUNA:** Zapatua, urriak 24.
**ZENBAT JENDE:** Jarleku guztiak.

**JULEN NARBAIZA/I.B.** > BERGARA

Bergarako organo erromantikoaren zale porrokatuak direnek nahiago izaten dute instrumentu hori bere haunditasunean entzutea; hau da, bestelako laguntza gabe. Baina, aldi berean, beti da positiboa gehitzea, nahastea eta esperimentatzea. Gainera, horrek, besteak beste, bestelako zaleen jakin-mina ere pizten du.

Bergarako Organo Erromantikoaren zikloak ibilbide luzea dauka eta entzule asko batzen dira emanaldietan. Zapatukoan, esaterako, jarleku guztiak bete ziren eta hainbat lagunek zutik jarraitu zuten kontzertua.

**TXISTUAREN MELODIA**

Pantaila erraldoi batek lagunduta, San Pedro elizako Aitor Olea organo jotzailearen eta Jose Ignazio Ansorena txistulariaren nondik-norakoak jarraitu ahal izan genituen; baita ere, hainbat piezatan ahotsa jarri zuen Andoni Egañarena ere.

Ezin ukatu emanaldia berezia zenik, hiru instrumentu horien batzea ezohikoa da-eta, nahiz eta joan zen urtean Azkoitian egin zuten.

Egañaren batzea izan zen ezohikoena, bertsotan baino kantuan aritu zelako. *Haurtxo-haurtxoa* eta *Herri* eskaini zizkigun eta Gotzon Garate izan zuen gogoan. Jose Ignazio Ansorena ere fin ibili zen, duda barik. Txistuari puntu oso goxoa hartuta zein danbolinarekin lagunduta; eta Aitor Olea organo jotzailea ere dotore. *Heraldo martxa, Hasiera eta fuga en re menor, Eztai taldea, Bendaña, Birigarroa* eta beste gozatu zituzten batutakoek ordu eta laurdeneko emanaldian.

**MUSIKA** > PURO CHILE

# Punkaren ordez, rocka eta positibotasuna

**NON:** Eskoriatzako Inkernu tabernan.
**EGUNA:** Zapatua, urriak 24.
**ESTILOA:** Rocka.
**IRAUPENA:** Ordu inguru.

**I.B.** > ESKORIATZA

Talde askotan ibilitako Mamenek eta Urkok (Vulpes, Anticuerpos, Tian-Anmen...) gidatutako Puro Chile taldearen kontzertua jai bat izan zen hainbat arrazoiengatik: jende dezente batu zelako eta Elorriokoen kantuek giro ona eta positibotasuna transmititzen dutelako, hain zuzen ere.

Rock-and-rollari gogor ekiten diote, klasikoari, AC-DCren kutsua daukaunari; eta tarteka, ukitu beroagoak eta latinoagoak ere batu zituzten; guztiak sartzen dira Puro Chileren kokteleran.

**ANTICUERPOS-EN KANTUAK ERE**

Hitzei dagokionez, positibotasunez beteta daude eta hori *kutsatu* egiten da entzuleen artean. Punckaren ukazioaren sasoia pasa dutela jakinarazi ziguten.

Hala ere, iraganeko Anticuerpos taldearen kantu eder batzuek eskaini zizkiguten: hala nola, *Ya no estás* hunkigarria, *La fuerza está contigo* eta beste. Azkenean, bisak ere egin behar izan zituzten, hala eskatuta.



Anticuerpos eta Vulpeseko kide ohia da Mamen baxu jotzaile eta abeslaria. J.A.

IAMAI ANTZOKIA
kafe
ARRASATE
Ostiraletan 00:00etatik aurrera
Urriak 30 Mario Simancas.
Azaroak 6 Iñigo. Bakarrizketa jantzia eta irrazionala
Azaroak 13 Cesar Bueno. Magia eta umorea
Azaroak 20 Kike Viguri. Umorezko bakarrizketa
Azaroak 27 Jesus Angel Arriet eta Nano.

**MUSIKA** > FLAMING GAUPASING BROTHERS ETA ALEX EL HIERRO & IÑIGO CRINES

# Hirukoteak jendetza dira, bikoteak hobeto

**NON:** Arrasateko Hiru aretoan.
**EGUNA:** Egubakoitza, urriak 23.
**ESTILOA:** Rocka, bluesa...
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Azkenean egia izango da Euskal Herrian eta batez ere ibar honetan doinu gogorrak direla gustukoenak. Hala pentsatu behar egubakoitzerako Hiru aretoan prestatu zuten ikuskizun xume baina dotorerako bildutako jende kopuru txikia ikusita.

Lehenik eta behin, aspaldiko ezagun bat aurkitu genuen bertan: Jaime edo Jim TNT. Los Cretinos taldeko abeslari moduan zein bakarka hainbat proiektu ditu arrasatearrak; bada, oraingoan, berria sortu du: Flamin Gaupasing Brothers.

Material Rechazado punk-rock taldean armonika jotzen duen Ibaiek lagunduta sortu du talde berria eta bikote akustikoa da; Jaime gitarra akustikoa jotzen eta abesten, eta Ibai armonika jotzen eta koroak egiten.

Bikote horren hirugarren kontzertua izan zen Hiru aretokoa. Bluesa, rythm&bluesa eta rocka lantzen dute. Horretarako, abesti propioak idatzi dituzte, umoretsuak, taberna girokoak; eta horrez gain, hainbat bertsio egiten dituzte hitzak aldatuta: Van Morrison, Doors, Txus Blues & Jose Bluefingers (euren inspirazio den taldeetako bat).

**GASTEIZKO 'FEELING'-A**

Horren ostean, Gasteizko Alex El Hierro & Iñigo Crines bikotea igo zen agertokira. Alex ezaguna da Los Padrinos eta Ajustadores taldeetako abeslari izateaz gain, Euskal Herriko taberna askotan bakarlari moduan emanaldiak egin dituelako; eta Iñigok ere ibilbide luzea dauka.

Hala, maila oso dotoreko emanaldia egin zuten, batez ere klasikoen bertsioetan oinarrituta eta *feeling* handiarekin gainera. Hala ere, klasikoak bai, baina arima rockeroa dutenak, jakina, Alex El Hierroren ibilbidea azaltzen du. Hala, Rolling Stonesen kantu ugari jo zituzten, baita Los Rodriguez, Van Morrison, Antonio Vega eta, –Jaimeren laguntzarekin– Burningen hainbat pieza ere.

Bi ahotsetara eta bi gitarrekin, kantuen bitartez, beste nonbaitera bidaiatu ahal izan genuen klasiko horiekin guztiekin.



Alex El Hierro eta Iñigo Crines egubakoitzean Hiru aretoan egin zuten emanaldian. J.ARANTZABAL


# Etxean konposta egin nahi duzu?

Leintz Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Oñatin, Bergaran edo Antzuolan bizi zara?

**Debagoieneko Mankomunitateak beste 200 konpostagailu berri banatzeko kanpaina bat jarriko du martxan.**

**Debagoieneko bailaran bizi bazara eta bertan lorategia, lursaila, baratza edo antzekorik baduzu, deitu ezazu Debagoieneko Mankomunitatera eta har ezazu parte.**

Eskaerak egiteko epea: urriaren 26tik azaroaren 6ra. 08:30etik 12:00etara.

Informazio gehiago nahi izanez gero:
Debagoieneko Mankomunitatea.
Nafarroa Etorbidea, 17.
20500 Arrasate.
Tel.: 943 79 33 99.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Garapen Iraunkorrerako Departamentua
Departamento de Desarrollo Sostenible




**KULTURA** > EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

# Ainhoa Agirreazaldegi finalerdietarako sailkatua

## Final laurdeneko saio guztiak jokatuta, hamaika bertsolarik egin dute aurrera sailkapenean; elgetarra hamargarren tokian geratu da



Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra, Leitzan jokatutako saioan. IRATI AGIRREAZALDEGI

**I.AGIRREAZALDEGI** > BERGARA
Zapatuan jokatu zen Laudion Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako azken final laurdena. Azken saioa izanik ikusmin handia sortu zuen ekitaldi horrek, han erabaki zen-eta txapelketako finalaurrekoetan parte hartuko dutenen zerrendan. Sailkatuenen artean, Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra dago.

Agirreazaldegik Leitzan jardun zuen joan den urriaren 10ean egindako final laurdenean; horretab 634 puntu eskuratu zituen. Saio bakoitzeko lehenak zuzenean egin du aurrera eta gainontzekoek puntuazioari begiratuta. Horren arabera, eta saio guztiak jokatuta, sailkapenean hamargarren tokian geratu da Ainhoa Agirreazaldegi eta hamaikak egin dute aurrera.

**FINALAURREKOA: AZAROAK 14**
Elgetarrak azaroaren 14an jokatuko du finalaurrekoa Tolosako Usabal kiroldegian. Honako kantu lagun izango ditu han: Igor Elortza, Sustrai Colina, Iker Zubeldia, Uxue Alberdi eta Iñaki Gurrutxaga.

Tolosakoa baino lehen beste fin finalerdi jokatuko dira Bergaran eta Gasteizen. Bergarakoa azaroaren 7an izango da Udal Pilotalekuan eta honako bertsolariek jardungo dute: Aitor Mendiluzek, Maialen Lujanbiok, Etxahun Lekuek, Beñat Gaztelumendik, Fredi Paiak eta Jon Martinezek. Saio guztiak 17:30ean hasiko dira.

**SARRERAK**
Bertsolari Txapelketa Nagusirako saioetako sarrerak, aurrez erostekoan, Internet bidez bakarrik eros daitezke *www.bertsosarrerak.com* atarian. Finalaurrekoetarako sarrera arruntek 12 euro balio dute; Beſrtso Zale Elkarteko bazkide izan ezkero, sei euro. 16 urtetik beherakoendako sarrerek, aldiz, lau eurotan saltzen dira.




**MUSIKA** > GENERO INDARKERIA

# Beatriz Arzamendi, 'Femina Clasica 2009' kontzertuan

## Musikagile arrasatearraren lanak entzungo dira etzi, Madrilen, izango den emanaldian

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE
Beatriz Arzamendi arrasatearrak genero-indarkeriaren aurkako *Femina Clasica 2009* kontzertuan parte hartuko du. Sofia Martinez arabarra; Cruz Lopez de Rego, Anna Bofill eta Iluminada Perez Frutos kataluniarrak; eta Maria Dolores Malumbres musikagile errioxarrarekin batera, kontzertua eskainiko du etzi, eguaztena, 20:00etan, Madrilgo Nicolas Salmeron kultura etxean.

SGAEk antolatzen duen *Femina Clasica* emanaldiaren bigarren edizio hori *Asunto de dos: concierto de todos* lelopean egingo da. Kontzertuak, bi pertsonen arteko harremanak hasten diren kidetasun eta ilusioaren metafora izan nahi du, baita bikote batean gertatzen diren haserreak eta indarkeriazko ekintzak sor ditzaketen ondorioen aurrean izan behar dugun erantzukizunaren erreklamazioa ere.

**KONTZERTUA ETA DISKOA**
Gainontzeko musikagileekin batera, arrasatearrak eskainiko duen kontzertua eta sustapen-disko baterako zuzeneko grabazioa, Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren harira antolatu diren jardueren barruan kokatuta daude.

Musika emanaldi horren antolatzaileen arabera, musikaren eragin onak, bi pertsonen arteko harremanetan indarkeriarik ez egoten lagun dezake; hain justu ere, asmo horrekin, ekimen horretan parte hartuko duten emakume musikagileek eta interpretatzaileek lagundu nahi izan dute, egunen batean, musikaz gozatzeko gogobetetzeak Genero Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna ordez dezan.

Horren harira, antolatzaileek azpimarratu nahi izan dutenez,"guztion eskuetan dago, hortaz, bi pertsonen arteko kontua guztien kontzertu bilakatzea".



Beatriz Arzamendi. SGAE

GURE TALDEAK

## Ez!



Ezkerretik eskuinera, Mikel, Ruben, Lasa eta Josu. EZ!

# "Injustiziak salatzeko kantu oso kritikoak idazten ditugu"

Ez! musika talde oñatiarrak izen bereko maketa grabatu du Berrizko Lorentzo Records estudioan, Aitor Ariñoren aginduetara

Mikelek, Rubenek, Josuk eta Lasak 2007ko irailean sortu zuten taldea, eta punka, ska eta rocka nahasten dituztela esan digute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Oñatiko Ez! taldeak izen bereko maketa grabatu du. Aurkezpen kontzertua egin zuten gaztetxean. Mikel gitarra jotzaileak, Ruben bateria jotzaileak, Josu abeslariak eta Lasa baxu jotzaileak osatzen dute taldea. Maketarekin taldea ezagutzera eman gura dutela esan digute, eta euren ametsa diskoa grabatzea dela.**

**Taldea 2007ko irailean sortu zenuten. Ze asmorekin elkartu zineten?**

Mikelek eta Josuk elkar ezagutzen zuten aurretik Banda Munizipala taldeko kide izan zirelako. Lasak eta biok eurekin batzea erabaki genuen. Indar handiarekin hasi ginen. Bi urte hauetan 20 bat kontzertu egin ditugu. Hasieratik hasi ginen gure kantuak idazten eta zuzenekoetan horiek jotzen ditugu.

**Maketan grabatutako kantuak ere zuenak dira?**

Bai, hala da. Egunerokotasunean oinarritzen gara kantuak idazteko. Injustiziak salatzeko letra kritikoak egiten ditugu.

**Ze musika lantzen duzue?**

Musika estilo propioa egiten dugula esaten dugu, eta gu geu garela gure erreferente nagusia. Dena den, esango genuke rocka, ska eta punka nahasten ditugula. Maketan ska estiloko kantuak sartu ditugu. Dena den, maketa entzuten duen bakoitzak talde ezberdin baten ukituak antzematen dizkio.

**Non grabatu duzue diskoa?**

Berrizko Lorentzo Recordsen grabatu dugu Aitor Ariñorekin. Alde batetik, maketa izan arren, kalitatezko soinua nahi genuen. Beste alde batetik, Ariñoren lana ezagutzen genuen eta harekin grabatu nahi genuen. Ekaineko aste bukaera baten egin genuen guztia. Intentsua izan zen, baina gustura gaude emaitzarekin.

**Nortzuengana heldu gura duzue diskoarekin?**

Entzule guztiengana. Lanarekin lortu gura duguna da taldea ezagutzera ematea. Gure musika zabaldu gura dugu. Horretarako, maketa oparitzea erabaki dugu. 300 kopia egin ditugu eta lagunen eta ezagunen artean banatu ditugu. Kopia gehiago egingo ditugu.

Bestalde, gaurtik aurrera *www.myspace.com/eztaldea* webgunean entzun eta handik jaits daitezke kantuak.

**Maketaren ondoren, diskoa grabatzeko asmorik baduzue?**

Hori da gure ametsa. Baina poliki-poliki joango gara. Diskoa grabatzeko nahiko kantu baditugu, baina oso garestia da diskoa grabatzea. Maketa egiteko ere nahiko larri ibili gara. Lorentzo Recordsen grabatzea nahiko garestia da, eta, Udalak laguntza eman digun arren, dirua galdu dugu. Baina diskoa grabatuko dugu, ziur!

**Oñatiko talde gehienek Errekaldeko lokaletan entseatzen dute, baina zuek garaje baten egiten duzue.**

Bai, hala da. Josuren garaje baten entseatzen dugu. Aukera bagenuen Errekalden entseatzeko, baina talde asko gara eta lokal gutxi daude. Egutegi baten arabera antolatzen dute astea, eta tokatzen zaigun ordu eta egunean entseatu behar genuen.

Garajea gure lokala da, eta ahal dugunean elkartzen gara.

**Ez duzue arazorik bizilagunekin?**

Bi solairu dituen lur azpiko parkingean dugu lokala. Hortaz, nahiko intsonorizatua dago. Dena den, bizilagunen ordutegia errespetatzen dugu.

**Noiz egingo duzue hurrengo zuzenekoa?**

Azaroaren 6an Arrasateko Etxoste tabernan joko dugu eta urtea bukatu aurretik Oñatin egingo dugu kontzertua.




### Ska doinuak abiapuntu hartuta, rocka

Oñatiko talde (niretzat orain arte ezezagun) honek abestiak dosi txikietan ematen dizkigu. Izenburu bariko lan honetan bi kantu batu dituzte, Lorentzo Records estudio beteranoan grabatutakoak.

80ko hamarkadako hemengo taldeen kutsua, soinua eta abestien estruktura dauzka; are gehiago, ska estiloa daukate oinarri eta hori ez da batere ohikoa. Gainera, kantuek zelanbaiteko garapena daukate eta erritmo dantzagarri horiei eutsita, punk-rockera ere hurbiltzen dira, melodia eta kritikarekin.

Iker Barandiaran.

# iragarkilaburrak.com

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 89 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan. Sukaldea, hiru gela, egongela, bi bainugela, bi balkoi eta despentsa. Jantzita utziko genuke. Garaje itxiarekin. 687 11 07 21

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Prezio negoziagarria. 659 64 67 38

**Beasain.** Pisu oso zentrikoa Beasainen; 105 metro koadro, 4 logela, 2 bainugela, balkoi eta terraza. Ia berria, material eta eraikuntza kalitate handikoa. La Salle ikastetxetik oso gertu. Armairu eta altzariak, berogailua, parketa, sukaldeko elektragailu guztiak, garbigailua. Garaje itxia aukeran. Argazki eta informazio gehiago hani baduzu: *www.ttiki.com/6609* Kontaktuan jartzeko telefono zenbakia: 656 73 11 43

**Berriatua.** Etxebizitza salgai Berriatuan. 72 metro koadro. Bi logela, komuna eta sukalde-egongela. Berriztua eta guztiz jantzia hartzeko aukera. Prezio negoziagarria. Deitu telefono honetara: 94 616 64 19 edo 94 613 90 56.

**Olazti.** Herrigunean dagoen etxe bat salgai Olatzagutian. 120.000 euro. Deitu telefono honetara: 650 53 79 83.

**Uharte Arakil.** 175 metro koadrokoa. Sukaldea, egongela tximiniarekin, hiru logela, bi komun, 50 metro koadroko garajea. Deitu telefono honetara: 615 74 34 90.

### 102. EROSI

**Arrasate.** Berriztatzeko baserria, etxea edo txaleta erosiko nuke Arrasate Garagartza edo Gesalibarren. Interesatuok, mesedez, mezu bat bidali *gurekontaktua@gmail.com* helbidera edo telefonoz deitu. 689 54 32 85

### 103. ERRENTAN EMAN

**Altsasu.** Lau logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Guztiz jantzia, bizitzera sartzeko prest. 620 12 43 85.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uriburu kalean. Unibertsitate ondoan. Sukaldea, komuna eta hiru gela. Guztiak kanpora begira. 652 71 16 20 edo 943 79 81 63

**Bergara.** Alde zaharrean etxebizitza errentan. Bi logela. Berritua eta jantzita. 605 73 37 39

**Eibar.** Pisua alokagai Bidebarrieta, 28an. 2 logela. Kanpora begira. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 652 76 45 66.

**Luz Saint Sauveur.** Etxebizitza ematen da errentan eski denboraldirako. 670 49 84 28

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzita. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. 650 euro. Deitu telefono honetara: 645 71 98 84

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 679 09 33 34

**Arrasate.** Logela bateko apartamentua alokatuko genuke Arrasaten. Egoera onean egotea ezinbestekoa izango da. 658 74 82 17

**Ataun.** Etxebizitza behar da alokairuan Ataunen. Pertsona helduak. Deitu: 665 70 53 73

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 600 25 98 54 edo 687 61 63 00

**Bergara.** Etxebizitza edo baserria errentan hartuko nuke. 658 77 90 46

**Bergara.** Errentan, konpartituz nahiz bakarrik, pisu baten bila nabil. Edurne naiz eta 33 urte dauzkat. 653 38 56 12

**Eibar.** Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Deitu telefono honetara: 690 98 08 46.

**Lekeitio.** Lekeition urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. Deitu telefono honetara: 658 70 19 53.

**Lazkao.** Logela bat alokatzen da Lazkaoko pisu batean. Deitu 678 22 80 31 telefono zenbakira, edo bidali mezua: *lalianzuinelli@hotmail.com*

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Erguin aldean pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. 628 76 25 00.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 270 €. 618 00 08 28.

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 699 28 99 06

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 270 euro. Deitu 618 00 08 28 telefonora

**Arrasate.** Bi pertsona behar dira etxea osatzeko erdialdean. Egoera oso onean. Hiru logela, bainugela, egongela, sukaldea eta balkoia. 235 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 606 74 42 37

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko ikasleak behar ditut. Uriburu kalean, Erguinen, unibertsitatetik gertu. Merke.Deitu telefono honetara: 663 72 37 44

**Donostia.** Amaran, topo eta autobus geltokitik hurbil gela bat alokatzen da emakume euskaldun batentzat. Berdin ikasle edo langile. Pisua konpartitua da eta gehienez 3 lagunekoa. Gela argitsua, balkoiarekin eta gelan telebista dauka. Telefono zenbakia: 943 65 16 92. Hartu ezean mezua utzi.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. 686 02 56 56

### 202. EROSI

**Bergara.** Garaje itxia erosi nahi dut erdialdean. 635 20 81 22

### 203. ERRENTAN EMAN

**Eibar.** Garaje marra alokagai Urkizun. Interesatuak deitu telefono honetara: 609 453946.

**Eibar.** Garaje itxia alokagai Arrate Bide, 17an. 80 euro hilean. 679 31 00 83 edo 943 701631. Alejandro.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garajea errentan hartuko nuke. 679 62 69 64

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Eibar.** Lokala alokagai Eibarren. 180 metro koadrokoa. Argitsua eta sarrera onarekin ibilgailuarentzat. Deitu telefono honetara: 605 771570.

**ARRASATE**
**Herriko plazan martxan dagoen taberna txikia errentan ematen da. Sukaldea du. Aukera ona.**
**605 76 08 29**

### 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. 638 10 29 63.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**OÑATI**
**Ile apaindegirako ofiziala behar da.**
**686 67 34 66**

**Bergara.** Pertsona behar dugu urtebeteko haurra goizez zaintzeko (08:00etatik 10:00-11:00ak arte). Deitu 17:00etatik aurrera. 607 57 73 73

**Bilbo.** Orduka, goizez, Bilbon haurrak zaintzeko prest legoken norbaiten bila gabiltza. Monika: 652 76 62 88

**Goierri.** Bertako neska bat behar da Beasainen ume bat zaintzeko eta garbiketa egiteko. Esperientziaduna. Ondo ordaintzen da. Interesa baduzu deitu:609 41 38 97

**Tolosa.** Tolosan, arratsaldetan 3 ume zaintzeko emakume euskaldun bat behar da. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 630 98 43 00.

### 402. ESKAERAK

**Altsasu.** Adin ertaineko emakume altsasuarrak bere burua eskaintzen du haurrak zaindu, pertsona edadetuak atenditu edo etxeko lanak egiteko. Harremanetan jartzeko deitu 654 23 08 66 telefonora.

**Aretxabaleta.** Alfonbra eta moketak garbitzen ditut, lehorrean, etxez etxe. 659 62 02 49

**Arrasate.** Umeak zaindu edo garbiketak egingo nituzke. Deitu: 649 30 13 60

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu umeak zaintzeko. Interesatuek deitu telefono zenbaki hauetako batera: 943 79 77 54 edo 646 63 75 03

**Arrasate.** Neska euskalduna eguerdietan etxe zein atariak garbitzeko prest. 663 04 53 99

**Arrasate.** Neska gaztea gertu arratsaldez eta astebukaeratan tabernan lan egiteko. Deitu: 697 42 79 88

**Arrasate.** Neska gaztea gertu arratsaldez ile-apaindegian lan egiteko. 697 42 79 88

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. : 606 42 64 14

**Azpeitia.** Lan bila nabil. Azpeitian, denda edo kafetegi batean lan egitea nahiko nuke. Helbide elektronikoa: *eargia@gmail.com* Kontakturako telefono zenbakia: 647 08 10 15 Ainhoa.

**Bergara.** Neska bergararra gertu etxeak garbitu, nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. 943 53 29 18

**Bergara.** Urte askoko esperientzia duen neska gertu sukalde laguntzaile lan egin edota etxez etxe nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

**Deba.** Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 665 74 18 66. Marian.

**Debagoiena.** Ordenagailuak konpontzen ditut etxean bertan. Deitu : 697 66 79 37

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 638 10 29 63

**Debagoiena.** Mutil esperietziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. Deitu: 648 06 84 71

**Debagoiena.** 30 urteko gaztea gertu lanerako. Geriatria laguntzaile titulua daukat. Beste edozein lanetan aritzeko ere prest egongo nintzateke. Ordutegi arazo barik. Interesatuek deitu: 685 70 76 25

**Debagoiena.** Garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko gertu nago. Eli Cerezo. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako. Harremanetarako deitu telefono zenbaki honetara: 610 82 02 17

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edo supermerkatuetan lan egiteko gertu. Paperak ditu. 636 01 91 12

**Debagoiena.** Bergara eta Arrasate. Gidabaimena duen mutila atariak garbitu, elkarteak garbitu edo beste edozein lan egiteko gertu. 685 70 76 25

**Debagoiena.** Josteko makinak konpontzeko gertu nago. 652 07 63 50

**Debagoiena.** Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. 626 78 22 95

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan ere biziko nintzateke. Bost urte daramatzat hemen eta legezko paperak dauzkat. 646 78 81 40

**Debagoiena.** Bergara eta Arrasate. Emakumea garbitasun lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eguneko edozein ordutan egin dezake lan. 650 62 12 94

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Mutila gertu edozein garbiketa egiteko: atariak, bulegoak eta abar. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara:650 14 69 10

**Debagoiena.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). Interesatuek deitu:618 00 08 28 edo 943 79 82 43

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu. Neska euskalduna gertu goizetan pertsona nagusiak zaintzeko. 635 25 54 44

**Debagoiena.** Atariak garbituko nituzke. 696 38 10 07

**Debagoiena.** Emakume arduratsua arratsaldez edo aste bukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 697 93 73 32

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luis de los Santos. 671 27 78 36

---

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak.**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

---

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Zubiaurre, 55 m², 84.142 euro. Negoziagarriak.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.
- Adosatuak eta bifamiliarrak. Eraikuntza berriak.

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka zein etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Deitu zenbaki honetara:669 53 02 92

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 608 08 36 02

**Debagoiena.** Antzeko lanetan esperientzia duen emakumezko batek lan egingo luke helduak zein umeak zaintzen. Ordutegi malgua eta lanerako prestutasuna. Deitu:669 02 91 30

**Debagoiena.** Asteburuetan edozein txakur edo animalia zaintzeko eta paseatzera ateratzeko prest. Merkea. 686 99 23 94

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra muntatzaile edo zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. 605 76 05 59

**Debagoiena.** Gertu nago adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke, egunez zein gauez, eta orduka. Harremanetarako: 638 54 75 93

**Debagoiena.** Instalazio elektrikorako eta mantenurako lanak egiteko gertu egongo nintzateke. Elektrikaria naiz, teknikari komertziala. Javi. 669 49 83 24 edo 680 30 30 52

**Debagoiena.** Iturgin laguntzaile lanak egingo nituzke. Magno Alberto. 600 76 43 14

**Debagoiena.** Mutila astebukaeretan zerbitzari lanak egiteko gertu. Deitu:661 86 23 62

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo furgoneta gidari lanetarako. Legezko paperak dauzkat. Interesa baduzu deitu: 628 48 05 41 edo 943 71 21 15

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: tabernan, garbiketak lanetan, baserriko lanetan edo bestelakotan. Telefonoa: 671 45 96 26

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 680 30 24 64

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 660 37 20 47

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu lan desberdinak egiteko: umeak zaindu, garbiketa lanak... 636 05 36 18

**Debagoiena.** Neska gertu 15:00etatik aurrera eta asteburuetan zerbitzari, sukalde laguntzaile edo umeak zaintzen jarduteko. Deitu: 679 04 42 68

**Debagoiena.** Neska gertu ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Zerbitzari ere bai. 660 56 65 58

Etxebila higiezinak
943-44 61 66

ALOKAIRUAN
**AMARA** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 800€
**USURBIL** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Lorategia. 650€
**LEZO** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Oso polita. 675€

SALMENTAN
**ALZA** 3 logela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 29.990.000
**AMARA** Madrid etorb. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 49.000.000
**AMARA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 38.625.000
**AMARA** Apartamentu polita. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Argitsua. 39.900.000
**AMARA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Altua. 43.500.000
**AMARA OSINAGA** Apartamentu berria. Altua. Garajea. 53.800.000
**AMARA** 100m2. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 58.900.000
**AMARA** Atikoa. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 39.950.000
**INTXAURRONDO** 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Kanpora begira.Polita. 36.900.000
**EGIA** Duke Mandas. 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Igogailua. 49.990.000
**EGIA** 2 logela, egongela, sukaldea, 2bainugela. Balkoia. Igogailua. 45.500.000
**LOIOLA** Sierra Aralar. 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Igogailua. 36.000.000
**LOIOLA** 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Igogailua. 24.900.000
**MARTUTENE** Balkoia. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 34.300.000
**LASARTE** 3 logela, sala, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 32.950.000
**PASAI ANTXO** 2 logela, sala, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 25.950.000
**PASAI DONIBANE** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Oso polita. 25.950.000
**ERRENTERIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Oso polita. 36.900.000

www.etxebila.net
www.etxebizitza.iragarkilaburrak.com
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari, garbiketa edo ume zein nagusiak zaintzen lan egiteko. Legezko paperak dauzkat. Interesatuek deitu telefono zenbaki hauetara: 628 48 05 41 edo 943 71 21 15

**Debagoiena.** Emakumea edozein lan egiteko prest. Socorro Mora Soria. 627 14 63 79

**Donostia.** Nikaraguako mutil bat nahiz eta Donostian bizi naiz. Bertan edo inguruko herrietan lanen bat egiteko prest nago, adineko pertsonak zaintzen edota beste edozertan. Interesatuek deitu 943 65 40 57 telefonora.

**Eibar.** Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Telefonoa zenbakia: 655 38 44 77.

**Eibar.** Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. Harremaneterako telefonoa: 636 17 27 65.

**Eibar.** Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu edo konponketa lanetarako. Harremanetarako telefonoa: 680 67 43 23.

**Eibar.** Neska euskalduna eskaintzen da garbiketa lanetarako. Harremanetarako telefono zenbaki: 687 11 47 07.

**Gernika-Lumo.** 26 urteko neska euskalduna lan bila: umeak zaindu, etxeak edo bulegoak garbitu eta abar. Interesatuek deitu 680 38 33 01 telefonora.

**Gernika-Lumo.** Txapista naiz baina edozein lanetarako prest nago. Deitu telefono hauetara: 946 25 70 80 edo 676 60 75 68

**Irura.** Giza elikadura eta dietetikan diplomatua naiz eta honekin zerikusia duen lanen baten bila nabil. Irati. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:697 52 20 48

**Markina-Xemein.** 23 urteko neska euskalduna eskaintzen da etxeak garbitu, umeak zaindu edota ostalaritzarako. Gidabaimena eta kotxea dauzkat. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 696 79 41 00.

**Tolosaldea.** Neska senegaldarra. 3. adinekoak zaintzen lan egingo nuke, eragozpenik ez interna sartzeko. Haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko ere prest nago.Interesatuek deitu 943 65 40 57 telefonora.

**Tolosaldea.** Tolosaldeko neska bat nahiz eta astegunez arratsaldetan lan egiteko prest nago, haurrak zaintzen, tabernan... Interesatuek deitu 616 07 70 06 telefonora.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergo teknologikoko eskola partikularrak etxean emango dizkidan norbait behar dut. 669 63 52 25

**Bergara.** Eskola partikularrak jasoko nituzke. DBH-ko 4. maila. 18:00etatik aurrera deitu. Pilar. 943 76 16 42

**Bergara.** Gaztelaniazko solasaldiak izateko norbait beharko nuke. Alemana naiz eta gaztelania hobetu nahi dut. Trukean, alemana erakutsiko nioke interesatuari. Johanna. Interesatuek deitu zenbaki honetara:689 33 30 75

**Bergara.** Pertsona bat behar da bi mutikori eskola partikularrak emateko. Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailan daude. 639 03 43 58

**Leintz Gatzaga.** Ingeleseko eskolak emateko irakaslea behar da Leintz Gatzagan. Eskolak bi arratsaldetan izango lirateke eta urtarrila arte, hasiera batean. Autoa derrigorrezkoa. 678 82 22 27.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeniaritza ikasi duen mutil batek Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko eskola partikularrak emango lituzke. 664 66 73 09

**Arrasate.** Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Eguerdietan deitu. 663 04 53 99

**Bergara.** Ingeleseko eskolak emango nituzke Bergaran. Maila guztiak, azterketetarako prestakuntza barne. Ingeles komertzialean esperientzia dut. Deitu:618 91 32 89

**Bergara.** LH, DBH eta batxilergo zientifikoa dituen neska euskalduna naiz. Orain Enpresaritza ikasketak egiten ari naiz. Idurre. Interesa baduzu deitu zenbaki hauetara:676 25 22 22 edo 943 76 03 34

**Busturialdea.** Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Printzipioz Busturialdean. Edozein gauzarako deitu inolako konpromiso barik. 680 53 84 42

**Debagoiena.** Ingelesezko nahiz euskarazko elkarrizketa saioak eskaintzen ditut (one to one), hizkuntza hauetan hitz egiten trebatzeko, Oñatin edo Arrasaten. 656 74 29 49

**Debagoiena.** Eskola partikularrak ematen dira. LH, DBH eta batxilergo zientifikoa. Ikasketak: Biologian lizentziatua eta euskara eta ingelesaren ezagutza maila altua. Harremanetarako: 635 72 02 05

**Debagoiena.** Ingeles komunikatibo eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak prestatzeko edo eskola laguntza. 15:00etatik aurrera. Merke. Deitu:610 97 49 68

**Gernika.** Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak eskaintzen ditu Gernikan lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzako. Kontaktua: 656 77 20 12 (Nahia)

**Iruñea.** Matematika, kimika edo fisikako klase partikularrak ematen dira, Iruñean. Bakoitzaren etxean (15 euro), edo nire etxean bertan (12 euro). Idatzi helbide honetara: *aitziberarbide@hotmail.com.* Mila esker.

**Lasarte-Oria.** Ingles magisteritzako 3. mailako ikaslea naiz. Lehen Hezkuntza eta DBH lehen zikloko klase partikularrak emango nituzke arlo ezberdinetan. Harremanetarako telefono zenbakia: 635 72 00 17

**Oñati.** Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntzako, DBHko edo batxilergoko eskola partikularrak emateko prest nago (matematika, marrazketa, fisika eta abar). Deitu 678 27 27 57

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Citroen Xsara** 1.9 D salgai. 1998koa. 166.000km. Oso egoera onean. 1.200 euro. Deitu 629 15 79 29 zenbakira.

**Kawasaki Z750 salgai .** Kawasaki Z750 Salgai 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000km, azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro.Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara:660 33 77 16.

**Toyota Previa** monobolumena salgai. 7 plazakoa. Oso ondo zainduta. 650 40 25 66.

**Viano Marco Polo** 2.2 CDi, 150ZP, 2004koa, 155.000km, gris kolorekoa. Jatorrizko Westfalia ekipamentua eta extra askorekin. 29.000 euro. 609 26 40 41.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ardiak.** 150 ardi saltzen dira, latxa arrazako 300 ardi gaztez osatutako artalde batetik. 606 04 44 36 edo 943 88 09 45

**Fox Terrier txakurkumeak salgai.** Abuztuaren 15ean jaiotakoak. Arra eta emea, buztanak moztuta eta parasitorik gabe. Harremanterarako telefono zenbakia: 635 74 16 55.

**Kanarioak** salgai. Interesatuek deitu zenbaki honetara eta galdetu Mikelengatik. 635 75 54 53.

**Lau untxi** salduko nituzke. Deitu 17:30etik aurrera. Deitu 665 74 91 27 zenbakira.

### 703. EMAN

**Katakumeak.** Hiru aste duten lau katakume oparitzen ditut, bi eme eta bi ar. Deitu telefono zenbaki honetara: 685 79 07 61

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak salgai.** Etxe aldaketagatik. Egongela, bikote logela, ordenagailu mahaia eta Fagor etxeko etxetresnak. Denak batera (prezio hobean) zein banaka. Oreretan. Informazioa eta argazkiak ikusi nahi badituzu idatzi: *mikel_muebles@live.com* edo deitu zenbaki honetara: 943 00 23 11

**Aluminiozko llantak** kubiertekin saltzen ditut. Neurriak: 185/60 R1. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 638 10 29 63

**Berogailuak.** Ecotermi etxeko 5 berogailu salgai. Bata, Ecotermi 570 w 5 difusore 100 e; hiru, Ecotermi 600 w 5 difusore 150 e/bak; eta bestea, Ecotermi 1000 w 9 difusore 200 e. Egoera onean. Guztiak 750 euroan. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 605 77 54 64

**BH bizikleta salgai.** 2009koa eta errepidekoa. Campagnolo freno eta osagaiekin. Egoera oso onean. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara:617 89 34 15

**Bideokamera.** Sanyo etxeko Xacti HD1A bideokamera salgai. Argazkiak 5mp egiteko aukeran eta bideoa HD formatoan. Txikia, oso erraza erabiltzen, egoera ederrean eta bere osagarri guztiekin. Bi bateria oparitzen ditut. 200 euro. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara: 6364385 40

**Bikiendako karroa.** Arrue etxeko karro-kapazoa salgai. Bikiendako Arrue etxeko karro kapazoa salgai. 2008koa. Oso praktikoa eta egoera bikainean. Lasai deitu. Harremanetarako: 649 00 53 42

**Gitarra akustikorako pedalera salgai.** Erdi prezioan. Interesa baduzu, deitu telefono zenbaki honetara:943 77 19 20

**Liburu zaharrak.** 1953. urteko liburuak saltzen ditut. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara:696 84 19 51

**Lursaila Etxarrin.** Urbanizatutako lursaila salgaiEtxarri Aranatzen. Interesatuek deitu 676 22 38 02 telefonora.

**Masaje aparatua.** Hankak urarekin masajeatzeko aparatu elektrikoa salgai. 608 36 26 07

**Monozikloa saltzen dut.** Pare bat aldiz bakarrik erabilia, berria. 100 euro. 605 73 07 77

**Mostradorea eta hozkailua.** Dendako mostradorea eta hozkailua salgai. Interesatuek hots egin telefono zenbaki honetara: 948 46 07 65

**Patinetea.** Umeen karrorako patinete unibertsala salgai. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 650 96 23 08

**Routerra.** Haririk gabeko routerra salgai. Telefonicako Amper Zyxelarekin batera. Deitu hemengo telefono zenbaki honetara:608 36 26 07

**Stokke kuma eta mini-kuma moldagarria** salgai. 2 koltxoi, eltxo-sarea eta izarak barne. 0 hilabetetik 5-6 urtera arte moldatzen da, egoera oso onean. Prezioa 330 euro. Deitu 639 02 02 75 edo 943 76 55 88 telefono zenbakietara mesedez.

**Su egurra salgai.** 20,30 eta 40 zentimetrotara moztua. Etxera eramaten dugu. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 615 75 57 62

**Umeendako aulkia.** Jane etxekoa. Hiru gurpilekoa. Frenoarekin. 80 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 608 36 26 07

**Umeendako kotxea.** Umeendako kotxe-silla eta maxi-coxia salgai. Arrue markakoa. Urdina. Egoera onean. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 616 32 70 19.

### 803. EROSI

**Bikiendako karroa.** Bikiendako karroa hartu edo erosiko nuke. Deitu telefono zenbaki honetara harremanetan jartzeko:650 57 36 07

**Billete eta txanponak.** Bankuko billete eta txanponak erosten ditut. 688 61 85 02

**Lur saila.** Oñatin lur saila erosi edo alokatuko nuke. Telefonoa: 609 11 72 96

**Lursaila erosiko nuke Goierri inguruan.** Lursaila erosiko nuke Goierri inguruan. Eraikigarria edo ez eraikigarria izan daiteke. Harremanetan jartzekotelefono zenbakia:634 46 41 69

**Tintin-en euskarazko komikiak.** Tintin-en euskarazko komikiak erosiko nituzke. Prezioa adosteko. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 94 460 74 44. Getxo

### 804. HARTU

**Jarlekua.** Bizikletarentzako umeen jarlekua behar dut. Eskarne. Deitu telefono zenbaki honetara:608 49 94 15

### 806. GALDU

**Belarritakoa.** Arrasateko tanatorio inguruan edo Bedoñako eliza inguruan perla iluneko belarritakoa galdu dut. Balio sentimentala du. Aldez aurretik, mila esker. 626 32 04 72 edo 943 76 47 56

**Eguzkitako betaurrekoak.** Eguzkitako betaurrekoak galdu nituen irailaren 20an, igandean, Urbiatik jaisten. Mesedez, norbaitek aurkitu baditu deitu mesedez telefono zenbaki honetara. 615 79 27 44

**Giltza sorta Arbizun.** Giltza sorta bat galdu nuen orain dela bi aste Arbizun. Larruzko giltzari bat du. Aurkitu duenak dei dezala telefono zenbaki honetara:667 26 67 46.

**Haurren erlojua Arbizun.** Haurren erloju morea galdu da Arbizun, erleen marrazkiak dituena. Deitu 686 40 66 14 telefonora.

**Haurren haize babeslea Etxarrin.** Euskal Selekzioko haize babesle beltza, folo polar antzekoa galdu zen Etxarrin. Beltza, haurrena, 8. tailakoa. Deitu 609 88 34 10 telefono zenbakira.

**Jertsea.** Neskatilaren jertsea galdu nuen urriaren 9an Arrasaten, Iturriotz eta erdiko kale inguruan. Grisa da eta 3 pommes etxekoa. 649 05 39 68

**Jertsea.** Neskatilaren jertsea galdu nuen urriaren 10ean Arrasaten, Erdiko kale eta San Andres artean. Berde iluna da eta IKKS etxekoa. Mariasun. 676 03 22 71

**Autoko giltza.** Ford etxeko kotxeko giltza galdu dut Arrasate erdialdean. Igande eguerdian, urriak 18. Aurkitu duenak, mesedez dei diezadala. Harremanterako deitu telefono zenbaki honetara: 660 43 64 29

**Leandro izena grabatua duen makila.** Urriaren 10ean Lizarraustin, Leandro izena grabatua duen makila galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, dei dezala 635 74 40 82 edo 635 86 54 17 zenbakira. Sarituko da. Mila esker.

**Sakelako telefonoa.** Sakelako telefonoa galdu dut Labegaraieta inguruan, irailaren 19an. Udaltzaingoan utzi edo telefonoz deitu, mesedez. 943 76 29 09

**Urrezko pultsera.** Urrezko pultsera bat galdu nuen joan zen astean. Deitu 620 26 80 60 telefonora.

**Nintendo Ds grisa.** Urriaren 12an Nintendo Ds grisa galdu zen Zarautzen, bere babes poltsa urdinean zegoen, joko eta guzti. Aurkitu baduzue mesedez 685 71 75 62 telefonora deitu.

### 807. AURKITU

**Eskumuturrekoa.** Eskumuturrekoa aurkitu nuen urriaren 14an, Bergaran, arrandegian. Galdu baduzu deitu zenbaki honetara: 943 76 34 51

**Jertsea.** Jertse grisa aurkitu nuen irailaren 28an Bergarako Ibargarai kalean, ziburuen parean. Emakumeen jertse grisa da, luzexka eta aurreko aldetik zabalik. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 943 76 26 82

**Sudadera.** Irailaren 27ko bolo txapelketa bukatu ondoren sudadera bat aurkitu nuen, norbaitek ahaztuta. Jabeak Kurtze Baltz elkartean berreskura dezake, astegunetan 20:00 aldera. Interesatuek deitu ezazue telefono honetara: 943 78 14 21 edo 943 53 42 13

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

**Emakume bila.** Oso ondo mantenduta dagoen 60 urteko gizonezko idazle dibortziatuak 40 urte baino gutxiago dituen emakume ezagutu nahi du. Seme-alabarik izanez gero, haiek hezteko konpromisoa, baita familia ere. Telefonoa:699 58 79 28 hitzordua jartzeko, egin dei galdua.

**Mutil bila.** 40 urteko mutil bat naiz eta beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke. Ahal balitz, gazteagoarekin. Asmo bera baduzu, bidali sms mezu bat hona. Nire aldetik, diskrezio osoa. Telefono zenbakia:665 75 58 74

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako,interesatuek idatzi ezazue *mgpelmaz@gmail.com* helbide honetara.

### 904. BESTELAKOAK

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten naiz. Lakuan lan egiten dut. Norbaiti autoa konpartitzea interesatuz gero, deitu. 635 20 33 14.

ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA

TXALO KONPAINIAREN
**LAS VACACIONES DE JOSEFA**
ANTZEZLANA

Eguna: Azaroak 1.
Lekua: Espaloia Kafe antzokia.
Ordua: 19:00etan.



Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 6 | | | | 1 | | 8 | |
| 5 | | | 2 | | | | 7 | |
| 1 | | | 3 | | | | | |
| | | 9 | | 8 | | 2 | | |
| | | 3 | | | | 6 | | |
| | | 6 | | 1 | | 4 | | |
| | | | | | 4 | | | 5 |
| | 2 | | | | 7 | | | 3 |
| | 8 | | 6 | | | | 9 | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



- * Arrasateko auzoa
- Galtzarbe
- Musika tresna
- Gizon izena
- Berandua-goko
- Bi
- Fruitu mota
- Hegan egin, hegaldatu
- Eder
- Argizagia, ilargia
- Gehiago
- Arto irinezko opila
- Erakuskaria
- Ekuatore Gineako hirib,
- Kontsonantea
- Heuk
- Holmioa
- Hizki baten izena
- Musika ikurra
- Itzain
- Toka, du
- Kontsonantea

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Gipuzkoako hiria.

**NNN**
**-H**

## hizki salda

Elgetako lau kaleren izenak.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | G | S | L | K | D | J | G | T |
| T | S | A | L | B | A | D | O | R |
| G | X | R | T | J | G | S | R | Z |
| Z | E | T | W | F | B | Z | R | K |
| H | K | E | S | G | L | O | E | L |
| Z | U | K | I | T | O | T | A | L |
| H | M | A | A | L | A | I | L | A |
| S | A | L | A | S | A | O | E | A |
| T | G | E | O | H | U | I | T | J |

## soluzioak



**Hieroglifoa:** Asteasu.

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Malgutasunez jokatu beharko duzu diruarekin egoeren arabera. Batzuetan aurreztaile, besteetan eskuzabal. Maitasunean, egun biziak.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Astroen arabera, lanerako eta ahaleginerako egun onak. Normalean baino biziago igarriko duzu zeure burua. Harremanen arloan izango dituzu zailtasun handienak.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Jarri arreta egitasmo handizaleei eta ekonomikoki hobetzeko aukerei, gutxi barru sekulako indarra hartuko dute-eta. Horiek eramango zaituzte nahi duzuna lortzera.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Ez dira egun lasaiak. Ez zaitez geldi geratu, energia soberan izango duzu-eta. Kontuz buruko eta belarriko minekin. Hondartzan eguzkia hartzeak on egingo dizu.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Normalean baino harroago ibiliko zara. Ahalegindu txutxu-mutxuei arretarik ez jartzen. Azaleratu zure sentimenduak mugarik gabe.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Ez fidatu jendeak esaten dizunarekin, jarrai iezaiezu senari eta esperientziei. Horrela, etorkizunean arazo ekonomikoak ekidin ditzakezu. Ez ibili presaka.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Zuretako oso garrantzitsua den pertsona batekin dezepzioa izan dezakezu. Horrela ikasiko duzu ez duzula beti egin behar besteek esaten dutena edo gura dutena.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Erronkei aurre egiteko duzun gaitasuna gal zenezake, errealitateari uko egiteko desioa duzu-eta. Ardurei aurre egin, ihes egiteak ondorio negatiboak ekarriko dizkizu.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Zure ingurukoei arreta ipini; buru-belarri diharduzu zure proiektuetan, eta ez zara konturatzen gertuko emakume batek zure laguntza behar duela.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Beste sexuarengan erakarpen handia eragingo duzu, eta bikotekidekirik ez badaukazu, pertsona bat ezagut dezakezu eta harekin harreman estua sortu.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Lan-egoerak hobera egingo du, eta lanik ez badaukazu, topatuko duzu eta zure gustukoa izango da, gainera. Lana edukitzekotan, kontratuan hobekuntzak izango dituzu.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Gastu gutxiago egin beharko dituzu, apetak emanda erosketa ugari egiten duzu eta gero larri-larri ailegatzen zara hil bukaerara. Dirua neurriz gastatzen ikas ezazu.

## gazte zerbitzua

### BEKAK

**> Bibliotekonomia.** Espainiako Senatua. Artxibategian, dokumentazioan eta bibliotekonomian prestakuntza egiteko 16 beka. Epea: azaroaren 2a.

### LANA

**> Begiraleak.** Kells taldea. Ingelesa dakiten begiraleak behar ditu Kantabrian egingo den kanpamentu batean berehala lanean hasteko. Epea: azaroa amaiera bitartean.

**> Gizarte Hezitzailea.** Ostargi Gizarte Elkartea. Ostargi elkarteak gizarte hezitzaile bat behar du.

### EKINTZAK

**> Goierri Kolore.** Goieki. Goierri Kolore Kulturen arteko III. Topaketa. Urriaren 28tik azaroaren 8ra bitartean hainbat ekintza Ordizia, Beasain, Zaldibia eta Lazkaon, besteak beste. Informazio gehiago: *www.goierri.org*

**> Goierri Kolore.** *Sudurra Sartzen* erakusketa, esentziak eta usain naturalak izeneko erakusketa dago ikusgai. Erakusketak bisitariei aukera ematen die erakusgai jarritako 50 lurrinen bidez, bost zentzumenen artean ahaztuena dugun zentzumena garatzeko. Epea: azaroaren 7a.

### LEHIAKETAK

**> Kartela.** Irungo Udala. Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren kartela diseinatzeko lehiaketa. Epea: azaroaren 5a.

**> Kartela.** Kultur Leioa. Leioako X Pop Rock lehiaketaren kartel lehiaketa. 14-35 urte bitarteko gazteentzat zuzenduta. Epea: Azaroak 20.

**> Literatura.** Hondarribiko Udala. XXVI. Bordari eta Satarka Literatur Lehiaketa 2009. Bi kategoria izango dira: ipuina eta olerkia. Epea: urriaren 31.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 26



**> Pello Zabala etorriko da 'Magazinea'-ra**
**19:45**

Pello Zabala frantziskotarrak bere azken liburuak, *El tiempo*, zer jasotzen duen kontatuko du gaurko *Magazinea* programan.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Sakonduz.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 27



**> Iker Galartza aktore ezaguna 'Ilunpean' saioan**
**22:15**

ETBko *Vaya Semanita* eta *Euskolegas* programetako eta *Ate joka* antzezlaneko aktorea da, besteak beste, Iker Galartza.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Wazemank.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** Wazemank.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 28




**> 'Ipupomamua', 'Gipuzkoa kultura' saioan**
**22:15**

ETBn ikusi ahal izango den *Ipupomamua* egitasmoa eta Debako Astigarraga kobazuloan aurkitutakoak erakutsiko dituzte.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Udazken loreak.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Sakonduz.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** GipuzkoaKultura.
**23:00** Kalekantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 29



**> Oxel Erostarbe Elgetako alkatea, zuzenean**
**19:45**

Oxel Erostarbe Elgetako alkateak ikus-entzuleen galderak ere erantzun behar izango ditu eguenean, *Alkateak zuzenean*-en.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkua kultura.
**15:45** Kalekantoi.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Sakonduz.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Puntuz Puntu.
**22:45** Erreportajea.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 30



**> Kantari ibiliko dira bailarako gaztetxoak**
**13:45**

Debagoieneko gaztetxoak Kantari programarako prestatu dituzten kantuak eta koreografiak entzun eta ikusiko dira.

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Elkartasun bideak.
**15:45** Ur eta lur.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**22:45** Ilunpean.
**23:45** GipuzkoaKultura.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Bide Ertzean taldearen azken lanaren aleen zozketa**
**10:30**

Bide Ertzean taldeak argitaratu berri duen *Leidor sessions* lanaren ale batzuk zozketatuko dituzte aste honetan Arrasate Irratiko I*go autobusera* saioan. Baita, Bill Lyerly abeslariaren disko bat ere. Horrez gain, domekan Amaian antzeztuko duten *Exitus* antzerkirako sarrerak ere banatuko dituzte.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibili munduan geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## telealbisteak

> TELEBISTA

### 'Millennium' trilogiarekin egindako telesaila emango du Canal+ telebista kateak datorren urtean

Zinemarako egokitzapena egin ostean, telesaila egingo dute orain *Millennium* trilogia ezagunarekin. Sei kapitulu izango ditu telesail horrek, hiru filmen grabazioetan gordetako eta oraindik argitaratugabeko materialarekin, hain zuzen ere. Canal+ telebista kateak eskuratu ditu emisio eskubideak, bai hiru filmenak baita telesailarenak ere, eta 2010ean emitituko du pantaila txikian.

*Millennium* trilogia Stieg Larsson idazlearen lana da. Yellow Bird enpresak erosi zizkion ikus-entzunezko eskubideak Suediako argitaletxeari. Enpresa horretako ekoizleak esan du pelikulak egin zituzten bitartean, 90 minutuko sei kapituluko telesail bat egiteko adina material ere grabatu zutela.

> TELEBISTA

### 'Los Simpson' telesailak 20 urte jarraian egin ditu telebistako pantaila txikian

*Los Simpson* telesail ezagunak 20 urte egin ditu pantaila txikian. Jarraian, egin ere, 20 urteak. Joan den martitzenean, urriak 20, ospatu zuen urteurrena familia horren sortzaileak, Matt Groening-ek. Los Angeles hirian egin zuten urteurren festa, Homer, Marge, Lisa, Bart eta Maggie-ren irudiekin batera.

Urteurrenaren barruan, Fox kateak lehiaketa bat egin du *Los Simpson* telesailean denbora jakin batez agertuko den pertsonaia bat sortzeko. Bestalde, Marge Simpson *Playboy* aldizkariko azaroko alean agertuko da. Argazkiak eta elkarrizketa jasoko dituzten hiru orrialde eskainiko diote Simpson familiako etxeko-andreari.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

**ORDUTEGIA:** Astelehenetan itxita. Asteartetik ostiralera 10:00-19:00 eta asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

**PLANETARIUM BERRIA**
**Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak.**
**Saioak**
Asteartetik ostiralera: 17:30 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)
Asteburu eta jai-egunetan: 12:00(eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.), 18:00 (gazt.)

**Eboluzioa** (Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu)
**Biziaren Jatorria** (Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa)
**Infinity Express** (Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia)
**Kartoizko Suziriaren Jatorria** (Haurrei zuzendutako saioa)
**Donostiatik zerura begira** (Zuzeneko saioa. Ikas ezazu gurekin zeruko objektuak ezagutzen eta disfruta ezazu Astronomiaz)
**Itsua izar begiekin** (Ipuin animatu bat, non itsu batek eta tirano batek, unibertsoaren ezagupenera hurbilduko gaituzten)

**HITZALDIAK**
**- Azaroak 4**, 19:30ean: "Zelula Amen ikerketa. Gauzak argi eta garbi". Hizlariak: Gurutz Linazasoro eta Charo Sánchez. Sarrera doan aforoa bete arte.
**- Azaroak 10**, 19:00tan: "Snowboard pistaz kanpo Las Leñasen (Argentina). Zientzia, Hezkuntza eta Kirola". Hizlariak: Pablo eta Javier Martínez

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak


ESKORIATZA
**Javi Corbal Vazquez**
Urriaren 19an, 36 urte. Zorionak, aitatxo. Ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat. Maite eta Jon.


ARRASATE
**Julen Barandiaran Oruna**
Urriaren 19an, 5 urte. Zorionak familiako guztion partetik, bereziki lehengusu Aitor, Eneko eta Markelen partetik.


ANTZUOLA
**Juan Manuel Lasa Arana**
Urriaren 20an, 43 urte. Zorionak, aitatxo! Ondo pasatu eguna eta urte askotarako. Muxurik handiena amatxo eta nire partetik.


OÑATI
**Malen Osinaga Osinaga**
Urriaren 20an, 4 urte. Zorionak, potxola. Muxu eta besarkada bat etxekoen partetik.


ARRASATE
**Urki Garitaonaindia Uriarte**
Urriaren 21ean, 4 urte. Zorionak etxekoen partetik, bereziki Ixone eta Hodei. Muxu handi bat, mutiko handi txapelduna!


ARRASATE
**Txaro Azkarate Zabarte**
Urriaren 22an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoen partetik.


ARRASATE
**Raul Cordovilla Martinez**
Urriaren 22an, urtebetetzea. Guraso eta anaien partetik, zorionak!


ANTZUOLA
**Amaia Arroitia**
Urriaren 23an, urtebetetzea. Zorionak! Ez ahaztu maite zaituztegula. Ondo pasatu eguna! Zure bigarren familia, Oncala.


ESKORIATZA
**Ekaitz Oñate Uribe**
Urriaren 23an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Mua, mua eta reketemua! Ondo pasatu familia osoaren partetik.


BERGARA
**Amaia Lakuntza Lazpiur**
Urriaren 24an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat Antzuolako eta Bergarako familien partetik.


BERGARA
**Haritz Bilbao Iñarra**
Urriaren 24an, 2 urte. Zorionak, gure pototo! Patxo handi bat familiaren eta bereziki Maiderren partetik.


ARRASATE
**Nora Otxandiano**
Urriaren 24an, 3 urte. Zorionak, Nora! Laster hiru urte. Ailegau da! Gozatu eta zelebrau egun handi hau.


OÑATI
**Eneritz Irusta**
Urriaren 24an, 30 urte. Zorionak, Ene! Muxu handi bat kuadrilakuen partetik. Mua! Ondo-ondo pasatu.


BERGARA
**Iraia Garitaonandia**
Urriaren 24an, 3 urte. Zorionak familikoen partetik eta bereziki Hodei eta Unax.


OÑATI
**Joxe Lete**
Urriaren 24an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako. Etxekoen partetik.


ARETXABALETA
**Maren Lazpiur**
Urriaren 25ean, 3 urte. Zorionak, prexioxa! Ondo-ondo pasatu zure eguna familia eta lagunen artean. Txokolatada ederra eingu! Patxoak aitxatxo eta amatxoren partetik.


ARETXABALETA
**Ander Giletto**
Urriaren 25ean, 13 urte. Zorionak, potxolito! Muxu handi bat etxekoen partetik!


BERGARA
**Leire Gantxegi**
Urriaren 26an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik. Jarraitu jator eta alai orain arte bezala.


OÑATI
**Unai Gomez Perosterena**
Urriaren 26an, 4 urte. Hau da hau mutikotzarra eta mendizalia. Zorionak, txapeldun.


ARRASATE
**Julen Abarrategi Garai**
Urriaren 26an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Zortzi patxo potolo zure zortzigarren urtebetetzean etxekoen partetik.


OÑATI
**Leire Barrena Jausoro**
Urriaren 27an, 8 urte. Zorionak, polittori eta muxu handi bat. Oso ondo pasatu eguna etxeko danon partetik.


OÑATI
**Jon Ander Errasti Fernandez**
Urriaren 27an, 15 urte. Zorionak zure urtebetetzean! Zorionak, Jonan. 15 urte. Zelako aguro fan dia! Baña horrek ez dau importa! Ondo pasatu zure urtetan. Zure arrebian partetik. Deiane.


ESKORIATZA
**Iñaxio Herrera eta Larraitz Etxebarriarteun**
Urriaren 28an, 31 urte. Zorionak eta patxo potolo bana Eskoitzako kuadrilian partetik! Ez inoiz aldatu, bikote! Ondo pasatu eta asko gastatu. Je, je, je...


ARRASATE
**Alatz Gordobil Kortabarria**
Urriaren 28an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Bigarren eskuko atzamarrekin hasi gare, e! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu bat tia Larraitz, Intza, aita eta amatxoren partetik. Mua!


ARRASATE
**Galder eta Haizea Otxoa Eizagirre**
Urriaren 29an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat zuen lehengusuen partetik. Aner, Aratz, Oier eta Ibai.


OÑATI
**Izar Ezkibel Bastida**
Urriaren 29an, urtebete. Zorionak, potxola! Patxo bat eta besarkada bat etxeko danon partetik.


ARRASATE
**Ibai Etxebeste Rodrigo**
Urriaren 30ean, 6 urte. Zorionak, Ibaitxo! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxekoen partetik.


BERGARA
**Leire Sanz**
Urriaren 30ean, 13 urte. Zorionak Oier, Ane eta Aratzen partetik.


OÑATI
**Oier Regueiro Larrea**
Urriaren 30ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Etxeko danan partetik ondo-ondo pasatu eguna!

### ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu. Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera. Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

## kuxkuxeroa


**Xabier Urtzelai**

# Kuadrilen arteko pikien, bromarik ez

Asteburuen egon die Arrasaten eta Aretxabaletan pike bi, aipatzekuek dienak. Lelena Aretxabaletan. Baiñe hamen kuadrilla artekue biherrien kuadrilla berekuen artekue izen da. Gaztetan –aspalditxo– saskibaloien jokaketan euen neskak, gaiñontzekuen kontra (17-5). Palizie ez zan horrenbesterakue izen, neurri haundixen, **Ramosek** sartutako tripliei esker.

Bigarren pikie Arrasateko kuadrillan artekue izen da, baiñe Errioxan (Eltziegon). **Komando Alpargat** eta

**"Arrieta gasolina barik geratu zan antza, eta goizeko lehenengo puntue Alpargatekuendako"**

**Goma2** kuadrilletako morroskuek aurrez aurre, pelotan. Eskuz biñaka, **Arrieta II.**a eta **Kepa I.**a **Eimonen** eta **Muxiren** kontra (19-22). Arrieta eta Kepa fuerte hasi zien, baiñe Arrieta gasolina barik geratu zan antza, eta goizeko lehenengo puntue Alpargateko mutillendako. Buruz burukuen, barriz, **Zarre** eta **Mono** zein baiño zein gehixau, eta hor be alpargateruek irabazi (22-12). Frontoiko nagusittasunek, baiñe, txikiteuen be jarraittu euen, eta jakin dogunez, baitte musien eta bertsotan be.

Bukaketako, jakin dot Oñatiko lagun batzuk Radio Shaq taldien ibiliko dien ziklistekin batera doiezela Pirineuetara, lagun artien bizikletan ibiltzera; behinguagatik, lasai. Ondo ibili.

### HARTU PARTE!

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

URTEURRENA

## Mari Carmen Zengotitabengoa Mendigutxia

Hirugarren urteurreneko meza eguaztenean, urriaren 28an, 19:00etan, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

## Aitor Bengoa Bengoa

Iratxe Bengoa Goienako langilearen anaia

Aretxabaletan hil zen 2009ko urriaren 22an, 40 urte zituela.

GOIENAk bat egiten du senideen saminarekin.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Aretxabaletan, 2009ko urriaren 26an.

ESKELA

## Aitor Bengoa Bengoa

'Txilibri'

Aretxabaletan hil zen 2009ko urriaren 22an, 40 urte zituela.

*Haize haundi batek eraman zaitu*
*betirako hegan*
*Maitasuna erruz banatu duzu*
*gure artean*
*Mila esker eta hartu atseden*
*Ama Lurraren altzoan*

Zure koadrilakoak.
Aretxabaletan, 2009ko urriaren 26an.

## asteburuko albuma



**Perretxikoen gaineko erakusketa izan dute Elgetan.** Jakina denez, perretxikoen sasoian murgilduta gaude eta hortaz, nonahi aurki daiteke mikologiarekin lotura duen ekimena. Bergaran, esaterako, mikologia astea egin zuten eguenetik domekara. Azken egunotan inguruko mendietan batutako eta aukeratutako perretxiko guztiekin erakusketa izan zuten atzo. Irudian, esandako erakusketa ageri da.



**Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazoak Osintxun izan ziren atzo.** Osintxuko umeek bisita berezia izan zuten atzo. Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazoek ikuskizuna eskaini zuten arratsaldean, pilotalekuan. Noiz bueltatuko zain geratu ziren neska-mutikoak.

## jaiotakoak



**Unax Mondragon Perez**
Aretxabaleta > 3,200 kilo. Urriaren 18an. Gurasoak: Arantzazu (Arrasate) eta Jon (Arrasate). Argazkian, Unax jaioberria, aitarekin.



**Nerea Poza Lera**
Arrasate > 2,700 kilo. Urriaren 17an. Gurasoak: Marta (Eibar) eta Juan Mari (Arrasate). Argazkian, Nerea jaioberria, amarekin.



**Lier Torres Sanchez**
Arrasate > 2,815 kilo. Urriaren 20an. Gurasoak: Verónica (Arrasate) eta Patxi (Zarautz). Argazkian, Lier jaioberria, sehaskan lo.



**Aitor Canales Losa**
Arrasate > 3,810 kilo. Urriaren 23an. Gurasoak: Azucena (Arrasate) eta Sergio (Arrasate). Argazkian, Aitor jaioberria, amarekin.



**Urtzi Leibar Fernandez**
Arrasate > 3,050 kilo. Urriaren 21ean. Gurasoak: Maider (Elorrio) eta Jose (Elorrio). Argazkian, Urtzi jaioberria, gurasoekin.



**Alexandra Hernandez Franco**
Bergara > 3,500 kilo. Urriaren 18an. Gurasoak: Kerly (Bergara) eta Josean (Bergara). Argazkian, Alexandra jaioberria, sehaskan lo.




ASTELEHENEKO **Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2009-10-26

**Iker Galartza** > Aktorea eta gidoigilea

# "Ofizioan zaletasun hutsez jardutea ona da"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Aktorearen bizitza petralaz kexatu ohi dira sarri antzezleak, lanaren gorabeheherez, baina Galartzak orain bertan denetik egiten du atseden hartzea izan ezik. *Patatero*-en ikono izatetik, *Vaya Semanita*-n bueltan dugu barre eragiten. Etxeko txikienak ere harrituko lirateke Poxpolo pailazoaren atzean bera ezkutatzen dela jakingo balute.**

**Argi utzi beharko duzu gasteiztarra ez zarela hango ordezkari lanak egin behar izaten badituzu ere.**

Ez, amezketarra naiz baina esan beharra daukat Gasteizko peña batek gonbidatu egin nauela hurrengo festetara. Ilusio handia egiten ei die eta baita niri ere! Nire pertsonaiarekin [Pruden, ETB2ko *Euskolegas* saioan] gertatzen da Txirri, Mirri eta Txiribitonekin moduan: beste biak ezin tontoagoak dira eta niri Txirriren papera egokitu zait.

**Bazeneukan aurretik harremanik Gasteizekin?**

Bai hara joan nintzen Euskal Filologia ikasteko asmotan, baina horretan geratu zen, asmoetan. Oraindik ikasgai batzuk falta zaizkit.

**Pailazoak aipatuta, Poxpolo eta Mokolo ere aipatuko ditugu ezinbestean.**

Hamar urte baino gehiago daramagu ikuskizunarekin. Asteburu honetan Osintxun egon gara. Xabier Usobiaga eta biok hasi ginen; bikotekide artistiko dut bera ia. Haurrak ere batera eramaten ditugu ikastolara eta askok uste dute bikote eta guzti ere bagarela. Aisialdiko monitore ginen garaitik dator hori. Begirale batzuk sukaldean ziren onak, beste batzuk eskulanetan eta geu, ba, haurrak entretenitzen; eta hortik jota hasi ginen eta gainera benetan gustuko dugulako jarraitzen dugu. Ze sosik ez dugu ateratzen. Egunpasa ederra da; bi furgoneta, umeak, neskak eta lagun koadrilla hartu eta egunpasa ikaragarria egiten dugu. Polita da eta horrexegatik egiten dugu. Afizio ofizio bihurtu genuen eta sanoa da noizean behin zaletasunagatik bakarrik lan egitea.

**Nola daramazu aurpegi ezaguna izatea?**

Larregi ere ez zait gustatzen. *Goenkale*-n nenbilen garaian herri txikietan ezagutzen ninduten. Nabaria da herri euskaldunetan *Goenkale*-k baduela eragina. Orain gazteleraz eta ETB2 katean lan eginda, askoz ere jende gehiagok ezagutzen zaitu. Askotan, gainera, lotsagabe gerturatzen dira. Mugikorrarekin etorri eta ezer esan gabe argazkia ateratzen dizute sakelakoarekin eta hori ez da batere atsegina, benetan.

TEST-A

**Herria:** Amezketa. **Adina:** 32 urte. **Ikasketak:** Euskal Filologia hasita, baina lau ikasgai falta zaizkit. **Telebista gustuko?** Ez zait buruan kabitzen jendeak nola ikus ditzakeen *Gran Hermano* eta halakoak. Gero esango dute geurea defendatu behar dugula! **Antzerkia nahiago:** Telebista ere gustuko dut; gainera, ondo ordaintzen dute. Antzerkian gustatuko litzadake *Hamlet* euskaraz egitea, baina nork ikusiko luke?



**ANTZERKIA** *Ate joka* antzezlanarekin dabil azkenaldian. OIHANE ISASI

## ai, ene!



### Non dago bidegorria?

Jakina da Asia inguruan bizikleta dela ibilgailu erabiliena. Baina zer egin uholde garaia bada? Argazkiko gizonak konponbide bikaina aurkitu dio arazo horri. Inoiz ikusiko ahal dugu halakorik urkulun?

http://www.sarda.es

## biharamuna

**Juan Kruz Mendizabal**

### Halloween?

Bakoitzak nahi duen bezala eta nahi duenean festa egiteko eskubidea du. Baina gaur egun kanpotik etorritako hainbat festa sartzen zaizkigu halabeharrez, geure ondarea eta historia zatitxoak besterik ez bada ezagutzeko aukerarik eman gabe. Hau guztia kontatu nahi dizut Domu Santu ingurumari honetan erbestetik etorritako hala moduzko festa modan jarri zaigulako. Beno, modan esateagatik. Komertzioak eta ingelesaren eraginez jarritako Halloween festari buruz nabil hizketan. Ez nago kanpotik etortzen diren proposamen eta aukera kultural diferenteen aurka. Alderantziz, gure mestizaiaren ezaugarri bat dela iruditzen zait. Zu handik etorria, ni hemen jaioa; zuk hura, nik beste hau eta bion artean ikasi dezagun… Konforme! Baina ikastolatik etorritako umeak *trick or treat* –hau da: "trukua edo tratua" esanez aritzea–… edo umeak kalabaza bila ibiltzea kandela bat barruan sartzeko? Ez al ziren guretzat azterketa ondorengo kalabazak guk ezagutzen genituenak? Zer da hau? Nola da, oraingoan ere, orain gutxi arte gurea zena erakusteko denborarik gabe, gurea ez dena etorri zaigula negozio itxuran? Kanpotik datorrena zein azkar ikasten dugun eta gure ezagutzeko interes zipitzik ere ez dugu erakusten! Hasieran esan bezala, bakoitzak nahi duena egin dezala. Nik hauxe esan eta idazteko gogoan neukan… hau lasaitasuna!....



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +23 | +11 |

Goiza hodeiekin hasi arren, orduek aurrera egin ahala, urdinduz joango da zerua. Egunez tenperatura goxoa izango dugu.

www.euskalmet.net

